

I. XEDAPEN OROKORRAK

ESTATUKO BURUZAGITZA

5773 *5/2021 Legea, apirilaren 12koa, zeinaz aldatzen baitira uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Kapital Sozietateen Legearen testu batagina eta beste finantza-arau batzuk sozietate kotizatuetao akziodunen epe luzerako inplikazioaren sustapenari dagokionez.*

FELIPE VI.a

ESPAINIAKO ERREGEA

Honako hau ikusten eta ulertzen duten guztiak.

Jakizue: Gorte Nagusiek honako lege hau onetsi dutela eta nik berretsi egiten dudala.

HITZAURREA

I

Lege honen helburua da Espainiako ordenamendu juridikora ekartzea Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2017ko maiatzaren 17ko (EB) 2017/828 Zuzentaraua, 2007/36/EE Zuzentaraua aldatzen duena sozietate kotizatuetao akziodunen epe luzerako inplikazioa sustatzeko.

Europako erakundeek ia bost urtean negoziatzen aritu ondotik onetsi zuten Zuzentaraua, eta eginahal horrek agerian uzten du zein garrantzitsuak diren han jasotako zenbait berritasun. Izenburuak berak dioen bezala, Zuzentaruaren azken helburua da akziodunek epe luzeagoz parte hartzea sozietate kotizatuetao, haietan inbertitzen dutenean. Ildo horretan, legegintzako egintza honen oinarri den Batzordearen 2012ko Ekintza Planak –zeinaren izenburua baita «Europako sozietateen zuzenbidea eta gobernu korporatiboa. Akziodunek partaidetza areagotzeko eta enpresen bideragarritasuna hobetzeko esparru juridiko modernoa»– hauxe zioen: «Aksziodunen konpromiso eraginkor eta iraunkorra da sozietate kotizatuetao gobernu korporatiboaren ereduaren giltzarrietako bat, eta organoen eta alderdi interesdunen kontrolerako eta orekarako barne-mekanismoen mende dago, besteak beste. Esate baterako, egungo gobernu korporatiboaren funtzionamenduak eraginkortasun txikiagoa izango du baldin eta akziodun gehienek jarrera pasiboa badute, enpresarekiko interakziorik bilatzen ez badute eta boto-eskubidea baliatzen ez badute».

Batzordearen ekintza plan horretan bertan, hauxe eransten da: «Langileek beren enpresaren bideragarritasunean duten interesa kontuan hartu behar da zernahi gobernu korporatibo egoki diseinatzerakoan (...). 2011ko Liburu Berdea taxutzean eginiko ikerketak eta hari emaniko erantzunek adierazten dutenez, litekeena da langileek kapitalean parte hartzeko sistemak garrantzi handia izatea epe luzeko ikuspegia duten akziodunen proportzioa areagotzeko».

Izan ere, epe laburreko inbertsio-estrategiek eragin negatiboa izan ohi dute sozietate kotizatuetao balizko garapen jasangarrian. Alde batetik, epe laburrean edo oso laburrean mozkin finantzarioak sortzeko eta banatzeko presioaren eraginez, hiruhileko emaitza finantzarioetan arreta jartzera behartuta daude enpresa kotizatuetao zuzendaritzak. Sozietate kotizatuetao finantza-emaitzak epe laburrera edo oso laburrera maximizatzean jartzen dute arreta, eta, beraz, beren estrategia korporatiboeak, maiz, akzioen balioa ahalik eta lasterren handitzea izaten dute helburu. Zenbait neurrik, hala nola akzioak berrerosketa programek edo sozietate-berregituraketek, mozkin finantzario iragankorrak sortzen dituzte, baina arriskuan jar dezakete sozietate kotizatuetao eta haren akziodun, langile, hartzekodun eta bezeroen etorkizun jasangarria. Ondorioz, kalte egin diezaizkete

enpresaren iraunkortasunari. Hain zuzen ere, batez ere epe laburreko errendimendura bideratutako akzio-oinarria duten sozietate kotizatuak pizgarriak izaten dituzte baliabideak gorde eta epe luzeko inbertsio produktibora bideratzeko. Izan ere, epe luzeko inbertsioa lagungarria izan liteke sozietate kotizatu horien etorkizuneko iraunkortasuna eta errentagarritasuna hobetzeko. Zenbait azterlanek erakusten dutenez, epe laburrean emaitzak maximizatu nahi dituzten sozietate kotizatuak gutxiago inbertitu ohi dute I+G+Ban. Inbertsio txikiago horrek, halaber, eragina du konpainiaren etorkizuneko garapenean, oztopatu egiten baititu merkatura egokitzeko duen gaitasuna, haren lehiakortasuna, nazioarteko merkatuetan duen posizioa eta abar.

Epe laburreko inbertsio-estrategiek badute beste ondorio kaltegarri bat ere: sozietate kotizatuak finantza-errendimendu hutsari erreparatzen diola, akziodunen onura eskusiborako. Estrategia korporatiboaren bigarren mailan geratzen dira sozietate kotizatuaren gainerako helburu ez-finantzarioak eta beste interes-talde batzuen interesak (bereziki, langileenak). Aldiz, epe luzeko inbertsio-estrategiek beste helburu ez-finantzario batzuk hartzen dituzte kontuan, modu naturalean, hala nola langileen ongizatea eta ingurumenaren babesa. Eta horrek enpresen iraunkortasuna bermatzen du epe luzera begira. Izan ere, gizartean eta ingurumenean bideragarriak diren enpresak ekonomikoki iraunkorragoak ere izaten dira epe ertain eta luzera. Helburu bera du berriki samar onetsiriko abenduaren 28ko 11/2018 Legeak, Merkataritza Kodea, Kapital Sozietateen Legearen testu bategina eta Kontu Auditoretzaren Legea aldatzen dituenak informazio ez-finantzarioari eta dibertsitateari buruzko informazioari dagokienez.

Enpresa kotizatuak halako epe laburreko jokabideak izateak, gainera, eragin oso kaltegarria izan dezakete ekonomian eta sozietatean, oro har. Hain zuzen ere, ikerketa ugariaren arabera, epe laburreko inbertsio-politikek, enpresen iraunkortasunean eta errentagarritasunean maila indibidualean eragiteaz gainera, arrisku nabarmenak sorraraz ditzakete kapital-merkatuen eta ekonomia-erregulazioaren egonkortasunean. «Hiru hileko kapitalismo» delakoak (horrela deritza hiru hilean behingo finantza-txostenetan finantza-emaitzak maximizatzearen presioagatik) eragina du hazkunde ekonomikoan, enpleguan eta kapitalaren produktibitatean. Besteak beste, ekonomia-erregulazioaren epe laburreko ikuspegi horren ondorio izan zen 2008ko finantza-krisia. Krisiaren aurreko hazkunde-ereduak, epe laburrean irabaziak sortzeko premian oinarrituta zegoenez, negozio-eredu arriskutsua ez ezik, palanka-efektu handiegia ere sortu zuen.

Zuzentarauak berak ere berariaz jasotzen du diagnostiko hori, hauxe zehazten baitu kontuan hartuzkoen artean: «Finantza-krisiak agerian utzi du kudeatzaileek epe laburrera arrisku gehiegi hartzeko joerak, kasu askotan, akziodunen babesa izan duela. Horretaz gainera, argi dago inbertsioen xede diren sozietateen gaineko «jarraipena» eta inbertitzaile instituzionalen eta aktiboen kudeatzaileen inplikazioa desegokiak direla, eta zentratuegi daudela epe laburreko errentagarritasunean; garbi gelditzen da, orobat, horrek ez dezakeela ekar kudeaketa eta enpresa-errendimendu onik. (...) Sozietate kotizatuaren gobernu-eredu korporatiboaren oinarritzko giltzarrietako bat da akziodunen inplikazio errealek eta iraunkorra, eta organoen eta pertsona interesdunen arteko kontrol- eta oreka-sistemaren mende dago. Akziodunak gobernu korporatiboan gehiago inplikatzeko lagungarria izan daiteke sozietate horien errendimendu finantzarioa eta ez-finantzarioa hobetzeko, baita ingurumen-, gizarte- eta kudeaketa-faktoreei dagokienez ere (halako faktoreak dira, konparazio batera, Nazio Batuek defendaturiko Inbertsio Arduratsuko Printzipioetan aipatzen direnak). Horretaz gainera, sozietate kotizatuak epe luzeko ikuspegiak izan dezaten bermatzeko –ikuspegi horixe sustatu eta hartu behar baita kontuan–, garrantzitsua da interesdun guztiek (bereziki, langileek) inplikazio handiagoa izatea gobernu korporatiboan».

Ondorio berera iritsi dira nazioarteko zenbait instantzia ere, hala nola Ekonomiako Lankidetzak eta Garapenerako Antolakundea (ELGA) eta G20a, 2015eko Gobernu Korporatiboaren Printzipioen bidez, zeinek aitortzen baitute epe luzeko inbertsioak sustatzea dela gobernu korporatiboaren helburuetako bat. Eta ondorio hori bera defendatzen du, halaber, Nazio Batuen Erakundeak, Inbertsio Arduratsurako Printzipio horien beren bitartez, zeinetan baieztatzen baita oro har ekonomikoki efizientea eta

finantzen aldetik jasagarria den sistema batek, epe luzera, inbertsio arduratsua sarituko duela eta, ingurumenari ez ezik, gizarteari ere ekarriko diola onura.

Era berean, Baloreen eta Merkatuaren Europako Agintaritzak (ESMA), berriki egindako txosten batean, epe luzeko inbertsioen eta enpresen gizarte- eta ingurumen-jasangarritasunaren arteko lotura azpimarratzen du. 2019ko abenduaren 18an emaniko txosten horren arabera –«Enpresen gaineko epe laburreko presio bidegabeak» (Undue short-term pressure on corporations)–, epe luzera eginiko inbertsioek gehiago erreparatzen diete jasangarritasunarekin lotutako elementu eta helburuei. Izan ere, Baloreen eta Merkatuaren Europako Agintaritzaren arabera, gizarte- eta ingurumen-jasangarritasuneko helburuak oso lotuta daude epe luzeko inbertsioekin. Ondorioz, gizarte- eta ingurumen-arriskuen kudeaketa egokia bat dator inbertitzaileek epe luzera dituzten helburuekin. Horregatik, ESMAk uste du sozietate kudeatzaileen eta inbertsio-zerbitzuetako enpresen epe luzera inplikatzeko politikak ingurumen-, jasangarritasun- eta gobernantza-adierazleak ere aintzakotzat hartu beharko lituzkeela.

Era berean, Davosko berrogeita hamargarren Ekonomia Foroak printzipio etikoen multzo bat onetsi zuen azken ondorioetan, enpresak Laugarren Industria Iraultzaren aroan gidatzeko, helburu gisa harturik bestelako kapitalismo baterantz egitea, non enpresen helburua izango baita mozkinetik harago joatea eta balioa sortzea interes-talde guztientzat. Aintzakotzat harturik enpresa bat aberastasuna sortzen duen unitate ekonomikoa baino gehixeago dela eta sistema sozial osoaren esparruko aspirazio humano eta sozialei erantzuten diela, azpimarratzen du errendimendua ez dela neurtu behar akziodunen mozkinen erreparatuta bakarrik, baizik eta kontuan hartu behar duela ingurumen- eta gizarte-helburuak betetzea ere.

Beraz, akziodunen epe luzerako inplikazioa sustatzeko zuzentarauaren ondorioek gainditu egiten dituzte gobernu korporatibo eta enpresa-errentagarritasunaren berezko eremua, eta inpaktu positiboa izan dezakete, hala ekonomian, nola gizarte osoan.

II

Zuzentzaraua Espainiako ordenamendu juridikora ekartzeak hobekuntzak ekarriko ditu Espainiako sozietate kotizatuen gobernu korporatiboari dagokionez. Kontuan izan behar da gure eredia dela, gaur egun, nazioartean aintzatetsienetako bat. Bi ardatz izango dituzte hobekuntza horiek: batetik, sozietate kotizatuak kapital-merkatuen bidez jasotzen duten epe luzeko finantzaketa hobetzea; eta, bestetik, gardentasuna areagotzea, dela kapital-merkatuko agenteen jardunari dagokionez, dela kontseilarien ordainsariei dagokienez, dela sozietatearen eta harekin loturiko alderdien arteko eragiketeei dagokienez.

Horretarako, azken urteotan Espainian arlo horretan eginiko erreformak hartu dira abiapuntutzat, zeinei esker Gobernu Onaren Nazioarteko Printzipioen betetze-maila gorenean kokatu baitira Espainiako estandarrek, beste herrialde batzuetakoekin alderatuta. Erreforma horiek gobernu korporatiboaren arloko adituen batzordeak proposatu zituen, eta, batez ere, 31/2014 Legean islatu ziren (31/2014 Legea, abenduaren 3koa, Gobernu korporatiboa hobetzeko Kapital Sozietateei buruzko Legea aldatzen duena). Lege hori, oro har, behar bezala aplikatu da, eta esparru juridiko horretatik abiatzen da, ahal den neurrian, Zuzentarauaren transposizioa. Horretaz gainera, zaindu beharreko printzipioak eta balioak dira merkataritza-araudiaren segurtasun juridikoa eta egonkortasuna, eta saihestekoak dira, bestalde, beharrezkoak ez diren eta maiz egiten diren lege-aldaketak, hala lortzen baita segurtasun juridikoa areagotzea, eragile guztien konfiantza indartzea eta, ondorioz, Espainiako sozietate kotizatueta epe luzeko inbertsio produktiboak egin daitezten erraztea. Era berean, 31/2014 Legean, Zuzentzarauan jasotako zenbait soluzio arautu ziren (hala nola akziodunek kontseilarien ordainsari-politika onestea), transposizio honen xede den Zuzentzarauan baino eskakizun-maila handiagoarekin arautu ere.

III

Lege honek berritasun gisa jasotzen ditu inbertitzaile instituzionalen, aktiboen kudeatzaileen eta boto-aholkularien gardentasun-politikari buruz Zuzentarauan jasotzen diren xedapenak.

Helburu horrekin, aldatu egiten ditu, batetik, azaroaren 4ko 35/2003 Legea, Inbertsio Kolektiboko Erakundeena, eta, bestetik, azaroaren 12ko 22/2014 Legea, Arrisku-kapitaleko erakundeak, inbertsio kolektiboko bestelako erakunde itxiak eta inbertsio kolektiboko erakunde itxien erakunde kudeatzaileak arautzen dituena eta azaroaren 4ko 35/2003 Legea –Inbertsio Kolektiboko Erakundeena– aldatzen duena. Lege-aldaketaren xedea da aipatutako erakunde eta entitateak kudeatzen dituzten sozietateak behartzea inplikazio-politika bat egin eta argitaratzera. Politika horrek azaldu behar du, besteak beste, nola integratzen duten akziodunen inplikazioa inbertsio-politikan, eta nola gauzatu dituzten boto-eskubideak, halakorik egin badute, inbertsioen xede diren sozietateetako akziodunen batzar nagusietan, bereziki bozketa garrantzitsuetan. Orobat, azaldu behar du zer-nola jotzen duten boto-aholkularien zerbitzuetara, baldin eta halakoetara jotzen badute.

Aintzakotzat harturik 2017/828 Zuzentarauak aktiboen kudeatzaileen artean sartzen dituela inbertitzaileei zorria kudeatzeko zerbitzuak ematen dizkieten inbertsio-zerbitzuetako enpresak, beharrezkoa da urriaren 23ko 4/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Balore Merkatuaren Legearen testu bategina aldatzea, kontuan hartzeko inbertsio-zerbitzuetako enpresen betebeharrak, inbertsio kolektiboko erakundeak kudeatzen dituzten sozietateentzat ezartzen denaren antzera.

Egia da orain arte indarrean egon den araudiak bazituela antzeko informazio-betebehar batzuk, baina zatikaturik ageri ziren. Alabaina, Zuzentaraua zehatzagoa da, eta hainbat eratako inbertitzaile instituzionalei aplikatzen zaie. Hori horrela, beharrezkoa da indarrean dagoen araubide juridikoa aldatzea.

Legeak, halaber, aipatutako obligazioarekin zerikusia duen beste betebehar bat ezartzen die aktiboen kudeatzaileei, hain zuzen ere kudeatzaile horiek inbertitzaile instituzionalekiko bete beharrezkoa azken horien aktiboak kudeatzen dituztenean. Lege-erreformaren eraginez, aktiboak kudeatzeko akordio horiek egin dituzten erakundeek urtero jakinarazi beharko diete, besteak beste, nola egokitzen diren akordio horretara beren inbertsio-estrategia eta haren aplikazioa, eta nola laguntzen duten aktiboen epe ertain eta luzeko errendimenduan.

IV

Bigarrenik, Zuzentarauak berariaz aitortzen du sozietateek beren akziodunak identifikatzeko eskubidea dutela, haiekin zuzenean komunikatu ahal izateko eta, hartara, haien eskubideak baliatzen eta sozietatean inplikatzeko lagundu ahal izateko. Sozietateen gure lege-araubideak eskubide hori bera aitortzen die sozietateei beren akziodun guztiei dagokienez, eta ez du exijitzen gutxieneko akzio-partaidetza duten akziodunak bakarrik identifikatu ahal izatea. Sozietate anonimoetako bazkideen anonimotasuna hirugarrenen kasuan bakarrik hartzen da kontuan, sozietatearen izaera kapitalista eta ez-pertsonalistaren ondorioz eta erantzukizuna jarritako kapitalera mugatzearen pribilegioaren ondorioz. Sozietate barruan, berriz, ez da berez aplikatzekoa. Hori dela eta, Legeak mugarik gabe eusten dio sozietateen aldeko eskubide horri, nahiz eta Zuzentarauaren arabera estatu kideek akzioen edo boto-eskubideen ehuneko jakin bat baino gehiago duten akziodunak soilik identifika ditzaketan (ehuneko hori, gehienez ere, % 0,5 izango da).

Horri lotuta, aipatutako eskubideari dagokion alderdi garrantzitsu bat aldatzen du lege honek; hala, uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Kapital Sozietateen Legearen testu bateginaren 497. artikulua akziodunak identifikatzeko eskubidea aitortzen du; akzioak kontuko idatzoharren bidez ordezkaturik dituzten sozietateetan, akzioduntzat hartzen ditu kontabilitate-erregistroko idazpenetan legitimatuta ageri diren pertsonak, urriaren 23ko 4/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Baloreen Merkatuko Legearen testu bateginaren 13. artikuluan aurreikusitakoarekin bat. Espainian araututako merkatuen berezitasuna –hala nola balore-

burtsarena– zera da, akzioak zeharka edukitzeko eta maila bikoitzeko sistemak direla. Aurreko guztiaren ondorioz, gerta liteke erregistroan aitortutako akziodun formala ez etortzea bat akzio horiekin lotutako eskubide ekonomiko eta politikoen azken onuradun errealarekin. Hori gertatzen da, konparazio batera, baloreen gordailu zentralean erakunde parte-hartzaile gisa konturik ez duten eta finantza-erakunde bitartekarien bidez akzioak eskuratzen dituzten azken inbertitzaileekin. Horrelakoetan, erakunde bitartekariak bere izenean jarduten du, baina inbertitzaile horien kontura, zeinak erakunde bitartekarien bezero baitira eta inbertsioaren arriskua jasaten baitute. Egoera hori Kapital Sozietateen Legearen testu bateginak aitortzen zuen berariaz, 524. artikuluan aukera ematen baitu, kasu horietan, finantza-bitartekariak boto-eskubidea zatika edo modu dibergentean baliatzeko sozietate batean, akzioen zeharkako titularren ordezkari gisa.

Zuzentarauak akziodun errealak identifikatzeko eskubidea aitortzen du, beren eskubideak erabiltzeko baldintza hobeetan egon daitezten. Horretarako, zenbait mekanismo ezartzen ditu sozietateek azken onuradunak identifika ditzaten, Zuzentarauaren helburua ez baita estatu kide bakoitzaren balore-edukitzako araubide juridikoa aldatzea.

Aurreko guztia ikusita, lege honek erdibideko soluzio orekatu bat hartzen du eskubide hori baliatzeko. Hasteko eta behin, akziodun formalak ez ezik, azken onuradunak ere identifikatzeko eskubidea aitortzen die sozietateei. Eta, bigarrenik, bere horretan eusten dio gaur egun indarrean dagoen balioak erregistratzeko Espainiako sistemari. Azkenik, Legeak zuzeneko eta salbuespenezko gaikuntza ematen dio Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko Ministerioaren titularrari, erregelamendu bidez garatu ditzan beste alderdi tekniko eta formal batzuk, akziodunak eta azken onuradunak identifikatzeari dagokionez, hartara Administrazio Prozeduraren Legearen 129.4 artikuluan jasotako eskakizunak betetzeko. Gaikuntza horren justifikazio gisa nabarmentzen dira, batetik, teknikotasuna bera, eta, bestetik, xedapen berritzaile horien aplikazio praktikoarekin agerian gera daitezkeen arazo tekniko eta operatiboei legearen bidez erantzuteko zailtasuna.

V

Hirugarrenik, Zuzentaruak boto-aholkulariez ere arduratzen da, zeinei proxy advisors ere esaten baitzaie. Horiek, azken urteotan, oso garrantzitsuak bihurtu dira sozietate kotizatuen akziodunen batzar nagusien funtzionamendurako. Europar Batasunaren egintza batean arautzen dira lehendabizikoz entitate horiek, eta haien helburua da inbertitzaileei aholkularitza profesionala ematea akziodunen batzar nagusietan beren boto-eskubideak balia ditzaten. Gero eta inbertitzaile gehiagok kontratatzen dituzte halako profesionalen zerbitzuak, inbertsioekin loturiko beren boto-eskubideak nola erabili erabakitzeko. Gero eta garrantzi handiagoa dute, besteak beste, inbertitzaile instituzionalek arduraz baliatu behar dituztelako beren inbertsioekin lotutako eskubide ekonomiko eta politikoak. Espainiaren kasuan, 1998ko Olivencia txostenak inbertitzaile instituzionalei gomendatzen zien modu aktiboan balia zitzatela eskubide politikoak akziodun ziren sozietate kotizatuetan, eta gomendatzen zien, orobat, eskubide horiek baliatzean jarraitzen zituzten irizpide orokorren berri emateko partaideei eta azken inbertitzaileei.

Boto-aholkulariak gero eta garrantzitsuagoak direnez, eta kontuan hartuta zer-nolako interes-gatazkak izan ditzaketan, komeni da Europar Batasunean horiek arautzea. Espainian, zenbait lege aldatuz arautu daitezke, izan sozietate-araudiarekin loturikoak moldatuta, izan inbertsio kolektiboaren edo balore-merkatuaren alorrekoak egokitu. Hala ere, badirudi egokiagoa dela Balore Merkatuaren Legearen testu bateginean heltzea lege-erreformari; izan ere, ezartzen zaizkien betebeharrak gardentasunarekin dute zerikusia eta ez dute berritzen sozietate-kontratua, eta, gainera, lege horretan bertan araututako aldizkako informazioa baliatzen da gomendioak egiteko oinarrizko informaziotzat.

VI

Laugarrenik, akziodunek administratzaileen ordainsariei buruzko iritzia emateko eskubidea izatea (*say on pay*) azken urteotako berritasun garrantzitsuenetako bat izan da nazioartean, gobernu korporatiboari dagokionez. 2002an, Erresuma Batuak ordainsarien urteko txosten bat argitaratzera eta batzar nagusiaren kontsulta-botoaren mende jartzera behartu zituen konpainia kotizatu britainiarrak. Harrezkero, hainbat jurisdikziotan txertatu da eskubide hori, zenbait aldaketarekin, Estatu Batuetan bereziki, eta, 2014az geroztik, baita Espainian ere.

Orain, Zuzentarauak Europar Batasun osora zabaltzen du aipatutako mekanismoa, baina behar adinako malgutasuna ematen dio «Batasunean ageri diren gobernu korporatiboko sistemen aniztasuna errespetatzeko, aniztasun horrek agerian uzten baitu estatu kideek ikuspegi desberdinak dituztela sozietateek eta administratzaile bakoitzaren ordainsari-politika eta ordainsari espezifikoak zehazten dituzten organoek bete behar duten eginkizunari buruz». Esate baterako, Zuzentarauari esker, estatu kideek arautu dezakete akziodunen batzar nagusiak onetsi baino lau urte lehenago ere indarrean egon ahal izatea ordainsari-politika, edo batzar horren botoak kontsultarako baino ez izatea.

Orain arte indarrean egon den araudi nazionala zorrotzagoa da Zuzentaraia baino, hiru urteko epea ezartzen duelako eta lotesletzat jotzen duelako akziodunen batzar nagusiaren botoa. Araubide horren aplikazioa positiboa izan da sozietate kotizatu, inbertitzaile eta finantza-agente gehienek ikuspuntutik; beraz, lege honek aldaketarik gabe eusten dio araubide horri elementu nagusiei dagokienez, eta aldaketa garrantzitsu samarren bat txertatzen du ordainsarien urteko txostenarekin loturik. Hala, zehatzagoa izango da txosten horren edukia, Zuzentaraia Espainiako ordenamendu juridikora ekartzearen ondorioz. Horrenbestez, Kontu Auditoretzaren uztailaren 20ko 22/2015 Legea ere aldatzen da, Zuzentaraia egokitzeko eta Espainiako ordenamendu juridikora ekartzeko legezko auditoreak edo auditoretza-entitateak ordainsarien urteko txostena ematen dela bermatuko duela dioen xedapena.

VII

Bosgarrenik, eragiketa lotuak arautzea da, zalantzarik gabe, Zuzentaraia gai garrantzitsuenetako bat. Kapital Sozietateen Legearen testu bateginak jada arautzen bazituen ere, beharrezkoa da Zuzentaraia dakartzan eta sozietate kotizatuei aplikatu beharreko zenbait berritasun txertatzea, eta ezinbestekoa da, orobat, argitasun eta sistematikotasun handiagoa ematea araubide juridiko horri.

Eutsi egiten zaio kapital-sozietate guztiei –baita sozietate kotizatuei ere– aplikatu beharreko araubide orokorrari, zeina interes-gatazkaren eta lekopen-araubidearen inguruan egituratuta baitago. Egindako aldaketak sozietate kotizatuen eragiketa lotuetan kontuan hartu beharreko berezitasunei buruzkoak dira, eta haien helburua da eragiketok Zuzentaraian xedatutakora egokitzen direla bermatzea, barne-koherentzia handitzea eta sistematika hobetzea. Horretarako, VII bis kapitulua txertatzen da sozietate anonimo kotizatuei buruzko XIV. tituluaren, zeina lotutako eragiketen araubideari buruzkoa baita osorik.

Lehendabiziko berritasun nagusia da lotutako eragiketaren definizioa Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002ko uztailaren 19ko 1606/2002 (EE) Erregelamenduaren arabera onetsitako Finantza Informazioari buruzko Nazioarteko Arauetan jasotako definizioa egokitzea, Zuzentaraia exijitzen duen bezala; erregelamendu hori nazioarteko kontabilitate-arauek aplikatzeari buruzkoa da. Aipatutako definizioa, gaur egun, hemen dago jasota: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1606/2002 (EE) Erregelamenduari jarraikiz Nazioarteko Kontabilitate Arau jakin batzuk onesten dituen Batzordearen 2008ko azaroaren 3ko 1126/2008 (EE) Erregelamenduaren Finantza Informazioari buruzko Nazioarteko 24. Arauan. Indarrean dagoen idazketan, Finantza Informazioari buruzko Nazioarteko 24. Araua alderdi lotuei buruz eman beharreko informazioari buruzkoa da, eta haren 9. arauak, «alderdi lotua» definitzean, dena delako pertsonak edo entitateak entitatean eragin nabarmena izateari erreparatzen dio, besteak

beste. Finantza Informazioari buruzko Nazioarteko 28. Arauak, berriz, eragin nabarmenaren kontzeptua definitzen du 5. arauan.

Bestalde, Finantza Informazioari buruzko Nazioarteko 24. Arauaren eduki materiala ikusita, ezinbestekoa da 231.1 artikulua d) letra aldatzea, haren perimetroa handitzeko, ezinbestekoa baita koherentzia sistematikoari eustea. Egia da sozietate kotizatuen arloko aurreikuspenek ez dutela zertan bat etorri zati orokorrean ezarritakoekin, besteak beste zati orokorrak «administratzaileekin lotutako pertsonak» definitzen dituelako eta Zuzentarauak, berriz, «sozietate kotizatuari lotutako alderdiak» aipatzen dituelako, baita kontabilitate-araudi bat ere, kontabilitate-arloko nazioarteko arau bat, esate baterako, zeina haiei bakarrik aplikatu behar baitzaie. Hala ere, ikuspegi materialetik, oso komenigarria da bi tratamenduak funtsean hurbiltzea, hala lortuko baita nekez justifika daitezkeen balorazio-kontraesanak saihestea. Gainerakoan, doktrina bat dator 231. artikuluan aurreikusitako lotutako pertsonen espektroa zabaltzeko behararekin. Bi erregulazioen arteko funtsezko aldea da lehenak kanpoan uzten dituela sozietateak edo erakundeak, baldin eta administratzaileak partaidetza garrantzitsua badu edo funtsezko lanpostu bat betetzen badu haietan. Horretaz gainera, eta oraindik ere 231. artikuluari dagokionez, zilegi da administratzailearekin lotutako pertsonen artean berariaz kontuan hartzea hura administrazio-organorako ordezkari izendatu duten pertsonak, zeinak besteren konturako interes-gatazken iturri baitira, 228.e) artikuluan oro har jasotzen denaren eta egungo 529 ter.1.h) artikuluan berariaz aurreikusten denaren ildotik.

Zuzentarauak, era berean, legegile nazionalak gaitzen ditu, arau orokorrak ez dakizkien aplikatu talde barruan lotutako eragiketei, baldin eta «zuzenbide nazionalak sozietatearen, filialaren eta alderdi lotuak ez diren akziodunen interesen babes egokia aurreikusten badu, akziodun minoritarioak barne» (Zuzentarauaren 9 quater.6.a) artikulua in fine). Gaikuntza hori goranzko zein beheranzko eragiketetan aplikatzen da, hau da, hurrenez hurren, filialak egiten dituen baina sozietate nagusiaren alderdi lotuen parte-hartzea duten eragiketetan, eta filialak sozietate nagusiarekin egindakoetan. Bereziki, Zuzentarautek zera ondorioztatzen da, izan litekeela aplikatu beharrik ez edukitzea sozietate nagusiko kontseilariak filial kotizatuan parte ez hartzeko betebeharra talde barruko eragiketetan, hain zuzen ere, barne-eragiketak ezinbesteko elementu dituzten taldeen ekonomia eta plangintza estrategikoa errazteko. Enpresa nagusiari ezin zaio galarazi horrelako erabaki estrategikoetan parte hartzea jazaritzeko kontseilariaren bidez. Hori dela eta, beharrezkoa da kasu horietan ukitutako kontseilariari botoa ez kentzea; horretarako, zuzenbide nazionalak behar bezala babestu behar ditu filiala eta haren kanpoko akziodunak. Haiek behar bezala babesteko, frogatu beharrenean karga inbertitzearen erregela bat edo entire fairness test bat aurreikusi behar du, 190.3 artikulukoaren tankerakoa. Aurreko bi arau berezi edo salbuespen horiek ez lirakeke mugatu behar sozietate kotizatueta, eta, bereziki, filial kotizatueta (apenas dagoen halakorik gure herrialdean). Aitzitik, era guztietako sozietateetara orokortu behar dira. Izan ere, sozietate kotizatuen filial ia guztiak kotizatu gabeko sozietateak dira. Horregatik, manu berri bat txertatzen da, 231 bis artikulua, «Talde barruko eragiketak» izenekoa, eta hantxe geratzen dira jasota arau horiek. Bistan denez, araubide berri hori ez zaie aplikatuko erabat partaidetzazkoak diren sozietateen arteko eragiketei, ez baitaude, definizioz, interes-gatazkaen mende.

Eragiketa horiei aplikatu beharreko araubide substantiboari dagokionez, erabaki da berezita arautzea eragiketen publizitate-araubidea, onespren-araubidea eta bataren zein bestearen salbuespenak. Azpimarratu behar da erregulazioak zenbait jarraitutasun-elementu garrantzitsu dituela orain arteko erregulazioarekiko; izan ere, kategoria batzuk eta besteak zehazteko, oinarritzat hartu dira, neurri handi batean, eragiketak akziodunen batzar nagusiari edo administrazio-kontseiluari onar ditzan aurkezteko Kapital Sozietateen Legearen testu bateginak orain arte erabiltzen zituen atalaseak eta irizpideak, zeinak oraindik ere sozietate kotizatuari aplikatu behar baitzaizkie.

Lege honek, halaber, ezartzen du beharrezkoa dela informazio garrantzitsua argitaratzea atalase kuantitatibo jakin batzuk gaintzen dituzten eragiketei buruz, auditoretza-batzordeak egindako txostenarekin batera, beranduenez ere delako eragiketa egiten den unean bertan. Ezartzen dituen atalaseen helburua da arrazoizko oreka lortzea

bi faktorearen artean: batetik, sozietatearen eta bazkide minoritarioen interesen babes egokia eta, bestetik, neurriaren kostu administratibo eta burokratikoak.

Eragiketa lotuak onesteko araubideari dagokionez, errespetatu egiten dira batzar nagusiaren egungo eskumenak, bai arauaren zati orokorrean, bai sozietate kotizatuei buruzkoan. Oraindik ere batzar nagusiaren eskumen dira, esate baterako, administrazio-kontseiluko kideak baimentzea sozietateko aktiboen ehuneko hamarretik gorako eragiketak egin ditzaten edo eragiketa horietatik salbuestea. Gatazka-egoeran dauden bazkideek bozketan parte hartzeari dagokionez, arau berezi bat ezartzen da sozietate kotizatuentzat, Kapital Sozietateen Legearen testu bateginaren 190. artikuluan jasotako arau orokorraz bestelakoa. Hala, 190. artikuluko horrek kasu jakin batzuetan bakarrik behartzen du bazkidea abstenitzera; gainerako gatazka-kasuetan, aldiz, bozketan parte hartzeko aukera ematen dio, eta epailearen aurrean frogaren karga inbertitzearen baldintzapean jartzen du minoritarioaren babesa. Sozietate kotizatueta sozietate-akordioak aurkaratzeko beharrezkoak diren baldintzak kontuan hartuta, nahiago izan da, sozietate horiei aplikatu beharreko arau berezi gisa, bazkide minoritarioen babesa indartzea. Hori horrela, gatazka-egoeran dauden bazkideek kasu bakarrean bozkatu ahalko dute: administrazio-kontseiluak kontseilari independente gehienek aurkako botorik gabe onartu badu erabakiaren mende dagoen eragiketa.

Administrazio-kontseiluak eskumena izango du gainerako eragiketa lotuak onesteko, salbu eta, haien ezaugarri bereziak direla eta, onespenezko prozedura laxoago eta arinago baten mende badaude.

Horri lotuta, ez da beharrezkoa sozietateak alde aurreko iragarki publikorik egitea eragiketa estandarizatuetarako, baldin eta kasuan kasuko ondasun edo zerbitzuaren hornitzaileak finkatzen baditu haien tarifak, eta eragiketa horien zenbatekoak ez badu gainditzen sozietatearen negozio-zifraren zenbateko garbiaren ehuneko 0,5. Hala, mota horretako eragiketak onesteko, nahikoa da behar adinako ordezkartza-ahalordea duen organo edo pertsona batek eginak izatea.

VIII

Azkenik, egokitzen jotzen da lege hau aprobeztatzea gobernu korporatiboaren eta kapital-merkatuen funtzionamenduaren arloko beste arau-hobekuntza batzuk txertatzeko, Zuzentaraua alde batera utzita.

Lehenik eta behin, Kapital Sozietateen Legearen testu bateginaren 225. artikuluko 1. apartatua aldatzen da, eta administratzaileek arretaz jokatzeko eginbeharra indartzen da, gobernu korporatibo onaren eskakizunekin bat etorriz.

Bigarrenik, Kapital Sozietateen Legearen testu bateginaren 529 bis artikuluko 1. apartatua aldatzen da, eta ezartzen da sozietate kotizatueta kontseilariak pertsona fisikoak izan behar dutela nahitaez. Gardentasunarekin eta gobernu korporatibo onarekin zerikusia duten arrazoiek eragin dute aldaketa hori.

Hirugarrenik, Legeak boto gehigarria duten «leialtasunagatiko akzioak» ere sartzten ditu gure sozietate-zuzenbidean, eta sozietate kotizatuei aukera ematen die akzio horiek jasotzeko sozietateen estatutueta. Hori horrela, baimenduta geratzen da estatutuek boto-erakunde gehigarriak ematea akzioei, baldin eta titular bera izan badute gutxienez bi urtez jarraian. Mekanismo hori baliagarria izan daiteke akziodunak epe luzean sozietatean inbertitzen jarraitzea bultzatzeko eta enpresen kudeaketaren gaineko epe laburreko presioak murrizteko. Gainera, mekanismo hori txertaturik, gure sozietate-araubideak eta, finean, gure burtsa-merkatuak Europako beste legedi batzuek ahalbidetzen dituzten aukera berberak eskainiko dituzte, eta, hala, haien erakargarritasuna indartuko da.

Proposatzen den araubidea Frantziak eta Italiak orain urte batzuetatik dutenaren tankerakoa da. Hori horrela, aipatutako mekanismoa aplikatzeko, konpainiak berariazko erabakia hartu beharko du, eta sozietatearen estatutueta txertatu beharko du figura hori, akziodun minoritarioa babesteko bereziki zorrotzak diren baldintza jakin batzuk beteta quorumari eta boto-gehiengoari dagokienez. Leialtasunagatiko akzioen figura kentzea onesteko beharko diren quoruma eta gehiengoak, berriz, laxoagoak izango dira.

Laugarrenik, Merkataritza Kodea aldatzen da, aurrera egiteko langileek enpresetan parte har dezaten sustatzeko bidean. Gobernu korporatibo onaren eta erantzukizun sozial korporatiboaren beste alderdi batzuetan bezala, aurrerapen esanguratsuak lortzeko lehen urratsa da uneko egoerari buruzko eta langileen parte-hartzearekin lotuta inplementatutako neurriei buruzko informazioa zabaltzea merkatuan, inbertitzaileek eta interes-taldeek behar bezala alderatu eta balioets dezaten enpresek arlo horretan duten konpromisoa. Horretarako, informazio ez-finantzarioaren egoera-orriari buruzko apartatuetako bat garatzen da, gai sozialen eta langileei dagozkien gaineko informazioarena, eta haren bidez zehazten da enpresak zer mekanismo eta prozedura dituen sustatzeko langileak konpainiaren kudeaketan inplika daitezen (informazioarekin, kontsultarekin eta parte-hartzearekin loturiko gaitan).

Horretaz gainera, lege honek zenbait aldaketa txertatzen ditu Kapital Sozietateen Legean, helburu nagusi gisa harturik sinpleago eta arinago bihurtzea sozietate kotizatuek eta negoziazio-sistema aldeaniztunetan negoziatzeko onartutako akzioak dituzten konpainiek merkatuan kapitala erakartzeko prozesuak. Aldaketa horiek bereziki egokiak dira gaur egungo testuinguruan, kontuan izanik garrantzitsua dela enpresa askok beren kapital-egitura indartu ahal izatea. Hori horrela, hobetu egiten dute kapital-gehikuntzei eta bi sozietate motek akzio bihur ditzaketen obligazioen jaulkipenari aplikatu beharreko araubidea, lehiakorrago bihurtzen dutelako araubide hori eta, aldi berean, berretsi egiten dutelako arlo horretan jarraitu beharreko sozietate-zuzenbidearen printzipioak.

Alde batetik, hamabost egun naturaletik hamalaura murrizten da lehentasunezko harpidetza-eskubidea baliatzeko gutxieneko epea. Horri esker, konpainiek, nahi izanez gero, eragiketak abiarazi eta itxi bitarteko epea laburtu ahalko dute, eta, hartara, zenbait kostu murriztuko dituzte (aseguramenduekin loturikoak, kasurako, zeinak merkatu-arriskuarekin loturik baitaude).

Bestalde, sozietate kotizatueta lehentasunezko harpidetza-eskubidea baztertze, 308. artikuluan aurreikusitako aditu independentearen txostena behar da oro har, baldin eta administrazio-kontseiluak akzio edo balore bihurgarriak jaulkitzeko proposamena egiten badu, lehentasunezko harpidetza-eskubidea alde batera utzita, kapitalaren ehuneko hogeitik gorako zenbatekoan. Horrek esan nahi du kapitalaren ehuneko hogeitik beherako jaulkipenarako, oro har, kendu egiten dela Merkataritza Erregistroak izendatutako kontu-auditoreaz bestelako aditu independentearen txostenaren eskakizuna, zeinaren irismenak eta eragiteko ahalmenak garrantzi txikiagoa baitute sozietate kotizatueta kapital-gehikuntzetan. Horiek burtsa-kotizazioan balorazio-erreferentzia objektiboa dutenez, ez du zentzu handirik prozesua nabarmen zailtzen duen betekizun bati eusteak, batez ere inbertitzaile profesionalen artean akzioak azkar kokatzen diren kasuetan. Aditu-txostena salbuespenezko bi kasutan baino ez da izango beharrezkoa: batetik, merkatu-balioak ez duenean behar bezain ondo ordezkatzeko arrazoizko balioa, eta, bestetik, sozietatearen interesak exijitzen duenean, lehentasunezko harpidetza-eskubidea baztertzeaz gainera, akzio berriak arrazoizko balioa baino merkeago jaulkitzea. Sozietate kotizatuak, hala ere, bere borondatez eskuratu ahalko du txosten hori.

Era berean, lehentasunezko harpidetza-eskubidea alde batera utzita kapitala gehitzeko ahala administratzaileei eskuordetzeari dagokionez, nolabaiteko prebentzioz ikusi izan da gobernu korporatibo onaren ikuspegitik, baldin eta eskuordetzaren zenbatekoa oso handia bazen; bada, aurrerantzean, eskuordetza hori kapitalaren ehuneko hogeikoa izango da gehienez (orain arte, arau orokorra aplikatuta, ehuneko berrogeita hamarrekoa izan zitekeen gehienez), eta, Kapital Sozietateen Legearen araubide orokorraren ildoan, argi eta garbi bereizten dira, batetik, kapital baimenduaren figura eta, bestetik, administratzaileei gehikuntzaren data eta bestelako baldintza batzuk zehazteko atribuzio hutsa.

Gauzak horrela, obligazioak jaulkitzeko araubidearen kasuan Enpresa Finantzaketa Sustatzaren apirilaren 27ko 5/2015 Legeak egindako erreformaren bidez egin zen bezalaxe, akzio berriak entregatu eta eskualdatu ahalko dira, oro har, gehikuntza egikartzeko eskritura egiletsi ondoren eta hura inskribatu aurretik. Horrek ez du eragotziko kapital-gehikuntza gerora inskribatzea, nahitaezkoa baita oraindik ere, bistan denez, sozietatea eratzeke eskritura bera inskribatzea bezalaxe. Era berean, sozietate kotizatueta

kasuan, kendu egiten da jaulkipen-erabakian harpidetza osatugabea berariaz jasotzeko beharra, eta ez da baldintza hori bete beharko gehikuntza eraginkorra izan dadin.

Azkenik, kapital-gehikuntzei dagokionez, adierazi bezala, aurreikusten da proposaturiko araubide aldatua negoziazio-sistema aldeaniztunetan negoziatzen diren akzioak dituzten konpainia txikiagoei ere aplikatzea, baita merkatu arautuetan negoziatzeko onartzeko eskaintzetan edo sistema horietan sartzekoetan akzio berriak jaulkitzen dituztenei ere. Helburua da haiek ere merkatuan kapitala erakartzea, ahalik eta modu efizienteenean.

Arlo horretan, beste hobekuntza tekniko bat egiten da: 495. artikulua aldatzen da, atzerriko balore-merkatuetan soilik kotizatzen duten Espainiako sozietateei aplikatu beharreko lege-araubidea argitzen duena.

Bosgarrenik, Kontu Auditoretzaren uztailaren 20ko 22/2015 Legea aldatzen da, eta aldaketa horren xedea da kontseilarien ordainsarien urteko txostena sartzeko auditoreak sozietate kotizatuen kudeaketa-txostena aztertzean egiaztatu behar duen informazioaren artean. Orobat, egokitu egiten da interes publikoko entitateei auditoretza-batzorde bat ezartzeko eskakizuna ere, baldin eta mendeko entitateak badira talde-egituren barruan. Halako kasuetan, auditoretza-batzorde bat izateko betebeharraren salbuespena aplikatu ahal izateko, sozietate nagusiak erakundeon gaineko partaidetza osoa izan beharko du, edo, bestela, akziodunen batzar nagusiak aho batez erabaki beharko du salbuespen hori aplikatzea.

Seigarrenik, Balore Merkatuaren Legearen testu bategina Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2017ko ekainaren 14ko (EB) 2017/1129 Erregelamendura egokitzen da (Merkatu arautu batean baloreak kotizatzeako onartuz edo baloreen eskaintza publikoa eginez gero argitaratu behar den liburuxkari buruzkoa, eta 2003/71/EE Zuzentaraua indargabetzen duena). Erregelamendu hori zuzenean aplikatu behar da 2019ko uztailaren 21etik, eta beharrezkoa da egin beharreko egokitzapenak egitea Espainian segurtasun juridikoz aplikatzen dela bermatzeko. Berritasun nagusi gisa, salmenta-eskaintza publikoen zenbatekoa zortzi milioi eurora igo da, eta hortik aurrera nahitaezkoa da liburuxka egitea eta argitaratzea, kreditu-erakundeon sektorearen kasuan izan ezik, horietarako atalaseak bost milioi euroan jarraitu behar baitu, jardueraren konplexutasunaren eta jaulkitzaileen egituren arabera. Gainera, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak liburuxka exijitzeko ahalmena izango du jaulkipenak aipatutako atalaseak gainditzen ez dituenean, baldin eta jaulkitzailearen edo finantza-tresnaren konplexutasunagatik hala komeni bada. Badira beste elementu batzuk ere nabarmendu beharrekoak (EB) 2017/1129 Erregelamendura egokitzeari dagokionez: Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalera egokitzea arau-hausteak jakinarazteko kanala, izan diren ez-betetzeak komunika daitezkeen gaien artean sartzeko Europako erregelamendu hori; Balore Merkatuaren Batzorde Nazionala agintaritzaren eskuduntzat hartzea, eta, gainera, berariaz aitortzea liburuxka baimentzerakoan duen erantzukizuna; eta legea Europako erregelamendu horren zehapen-araubidera egokitzea. Indarrean jarraitzen dute Europako Erregelamenduarekin guztiz bateragarritzat jotzen diren arau nazionalak.

Zazpigarrenik, Balore Merkatuaren Legearen testu bateginaren 120. artikulua kentzen da, eta, horrekin batera, alde batera uzten da merkatu arautuetan kotizatzen duten akzioak dituzten enpresek hiru hilean behin finantza-informazioa argitaratzeko duten betebeharra. Horrek esan nahi du Espainiako araua homologatu egiten dela Europar Batasuneko beste herrialde batzuetako arauekin eta Europako merkatu garrantzitsuekin. Hori horrela, enpresek, nahi izanez gero, jarraitu ahaliko dute hiru hilean behin informazioa aurkezten. Baina informazio hori aurkezteak gehiegizko karga edo epe laburreko presioak eragiten dizkien enpresen kasuan, ez da halakorik exijituko. Aitzitik, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren esku hartzeko ahalmenei buruzko 234.2 artikulua ere aldatzen da, eta aldaketa horren xedea da erakunde horrek hiruhileko informazioa exijitu ahal izatea, aldizkako informazioa egiaztatzeako eginkizunari jarraikiz. Izan ere, kasu jakin batzuetan, hiruhileko informazio hori argitaratzea garrantzitsua izan daiteke inbertitzaileentzat.

Era berean, lege honek arautzen du administratzaileek partaidetza handiak jakinarazteko betebeharra dutela, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko apirilaren 16ko 596/2014 (EB) Erregelamenduan –Merkatu Abusuari buruzkoa–

xedatutakoaren arabera; hala, ez da izango beharrezkoa partaidetza horien berri ematea, Balore Merkatuaren Legearen testu bateginaren 125.5 artikulua arabera. Horren helburua da bikoiztasunak saihestea administratzaileek informazioa emateko betebeharrari dagokionez, informazioa bikoiztea segurtasun juridikorako kaltegarria delako eta betetze-kostuak handitzea dakarrelako.

Zortzigarrenik, Balore Merkatuaren Legearen testu bateginaren zazpigarren xedapen gehigarria aldatzen da, eta, hala, sozietate anonimo kotizatuez bestelako baloreak jaulkitzen dituzten entitateak salbuetsita geratzen dira gobernu korporatiboaren urteko txostena egiteko betebeharratik. Horren helburua da gure inguruko herrialdeekin bat etortzea eta Espainian errenta finkoa jaulkitzeko eragozpenak murriztea. Ez da ahaztu behar entitate horiek, nolana ere, gobernu korporatiboari buruzko informazioa jaso beharko dutela kudeaketa-txostenean, urteko kontuei, urteko kontu kontsolidatuei eta enpresa mota jakin batzuen antzeko beste txosten batzuei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013/34/EB Zuzentarauak horretarako ezartzen duen gutxieneko edukiarekin. Era berean, entitate horiek salbuetsita egongo dira Kapital Sozietateen Legearen 540. artikuluan aurreikusitako betebeharratik, alegia, gobernu korporatiboari buruzko informazioa Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari jakinaraztetik, ondoren argitaratzeko. Horrela, saihestu egiten da egungo bateratze falta eta murriztu egiten dira Espainian akzioez bestelako tresnak (errenta finkoa, normalean) jaulkitzeko eragozpenak.

Azkenik, Kapital Sozietateen Legearen testu bateginaren zazpigarren xedapen gehigarria aldatzen da; hain zuzen ere, eguneratu egiten da balore-merkatuaren antolamendu- eta diziplina-arautzat hartzen diren eta, beraz, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren ikuskaritzapean dauden manuen zerrenda. Hartara, erraztu egiten da Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren ikuskapen- eta babes-eginkizuna betetzea.

IX

Legeak bi xedapen gehigarri, bi xedapen iragankor eta bost azken xedapen ditu. Lehenengo xedapen gehigarriak aipatzen du Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak Europako Batzordeari jakinarazi behar dizkiola Kapital Sozietateen Legearen testu bateginaren zenbait artikulua aplikatzerakoan sortzen diren zailtasun praktikoak, eta, orobat, Europar Batasuneko zein hirugarren herrialdeetako erakunde bitartekariak artikulua horiek aplikatzean egiten dituzten ez-betetzeak. Bigarren xedapen gehigarriak Inbertsio Kolektiboko Erakundearen azaroaren 4ko 37/2003 Legearen 47 ter eta 47 quater artikuluetan ezarritako betebeharrak egokitzeko epea jasotzen du. Azken xedapenetako lehenengoak Zergei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorra aldatzen du; azken xedapenetako bigarrenak xedatzen du lege honen bidez partzialki txertatzen dela Espainiako Zuzenbidean Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2017ko maiatzaren 17ko (EB) 2017/828 Zuzentzaraua, 2007/36/EE Zuzentzaraua aldatzen duena akziodunen epe luzerako inplikazioa sustatzeko; azken xedapenetako hirugarrena eskumen-tituluar buruzkoa da; azken xedapenetako laugarrenak araugintzarako gaikuntza jasotzen du, eta, amaitzeko, azken xedapenetako bosgarrenak legea indarrean jartzen du.

Lehenengo artikulua. *Inbertsio Kolektiboko Erakundearen azaroaren 4ko 35/2003 Legea aldatzea.*

Inbertsio Kolektiboko Erakundearen azaroaren 4ko 35/2003 Legea aldatzen da, alderdi hauei dagokienez:

Bat. 46.1 artikulua 1. apartatuko e) letrako bigarren paragrafoa kentzen da, eta honela geratzen da idatzita aipaturiko letra:

«e) Titulu horien bidez ordezkaturako inbertsio-funtsetako partaidetzen ziurtagiriak egitea. Era berean, kontabilitate-erregistroaz arduratzen diren entitateei eskatu ahalko zaie Balore Merkatuaren Legearen testu bateginaren 14. artikuluan

aipatzen diren ziurtagiriak egin ditzatela, partaideen kontura eta haien izenean, betiere kontuko idatzoharren bidez ordezkaturako partaidetzak direnean. Aurrekoa ez da aplikatuko sozietate kudeatzailearen partaidetzen erregistroan partaidetzak entitate merkaturatzaile baten izenean daudenean partaideen kontura, lege honen 40.3 artikuluan zehaztutakoari jarraikiz; kasu horretan, entitate merkaturatzaile horrek igorri beharko dizkio ziurtagiriak partaide bakoitzari».

Bi. Bi artikulua berri txertatzen dira, 47 bis eta 47 ter, eta honela geratzen dira idatzita:

«47 ter artikulua. *Inplikazio-politika.*

1. Sozietate kudeatzaileek inplikazio-politika garatuko dute, deskribatzeko zer-nola integratzen duten akziodun gisa edo akziodunen kudeatzaile gisa duten inplikazioa beren inbertsio-politikan, eta publikoari jakinaraziko diote. Politika horrek deskribatuko du nola egiten dieten jarraipena estatu kide batean kokatuta dagoen edo bertan jarduten duen merkatu arautu batean negoziatzeko onartutako sozietateei, sozietate horietan inbertitzen dutenean; besteak beste, gai hauen jarraipena egiten dute: estrategia, errendimendu finantzarioa eta ez-finantzarioa, arriskuak, kapitalaren egitura, gizarte- eta ingurumen-inpaktua eta gobernu korporatiboa. Politika horrek deskribatuko du, halaber, zer mekanismo dauden elkarrizketarako estatu kide batean kokatuta dagoen edo bertan jarduten duen merkatu arautu batean negoziatzeko onartutako sozietateekin, baldin eta sozietate horietan inbertitzen badute, boto-eskubideak eta akzioekin lotutako beste eskubide batzuk baliatzen badituzte, beste akziodun batzuekin lankidetzan aritzen badira, beren inbertsioen xede diren sozietateen interes-talde garrantzitsuekin komunikatzen badira eta beren inplikazioari loturiko egiazko edo balizko gatazka-interesak kudeatzen badituzte.

2. Sozietate kudeatzaileek urtero argitaratuko dute beren inplikazio-politikaren aplikazioa, barnean harturik boto-eskubideei dagokienez duten jokabidearen deskribapen orokorra, bozketa garrantzitsuenen inguruko azalpena eta, hala badagokio, boto-aholkularien zerbitzuetara jotzeko aukeraren ingurukoa.

3. Sozietate kudeatzaileek publiko egingo dute beren botoa inbertsio kolektiboko erakundeek akzioak dituzten sozietateetako batzar nagusietan. Publiko egin gabe utz daitezke bozketaren xedeari edo sozietateko partaidetzaren pisuari erreparatuta hutsalak diren botoak.

4. 1., 2. eta 3. apartatueta aipaturiko informazioa jendaurrean eta doan egongo da eskuragarri, sozietate kudeatzailearen webgunean.

5. Inbertsio kolektiboko erakundeen kudeaketan sor daitezkeen interes-gatazkek detektatzeko, eragozteko, kudeatzeko eta kontrolatzeko sozietate kudeatzaileek hartu beharko dituzten neurriak, zeinak 46.5.b) artikuluan jasotzen baitira, aplikatzekoak izango dira 1. apartatuan aurreikusitako sozietate horien inplikazio-politika ezartzeko garatutako jardueretan ere.

6. Sozietate kudeatzaileek erabakitzen badute ez betetzea aurreko apartatueta jasotako baldintzetako bat edo gehiago, azalpen argi eta arrazoitua argitaratu beharko da ez betetzeko arrazoiei buruz.

47 quater artikulua. *Sozietate kudeatzailearen informazio-betebeharrak, aktiboak kudeatzeko zerbitzuak ematen dizkienean aseguru-entitateei edo enpleguko pentsio-plan eta -funtsei.*

Aseguru-entitateen edo enpleguko pentsio-plan edo -funtzen izenean estatu kide batean kokatuta dagoen edo bertan jarduten duen merkatu arautu batean negoziatzeko onartutako akzioetan inbertitzen duten sozietate kudeatzaileek urtero jakinaraziko diete aseguru-entitateei edo enpleguko pentsio-plan eta -funtsei nola egokitzen diren beren inbertsio-estrategia eta haren aplikazioa aktiboak kudeatze aldera sozietate kudeatzailearekin egin duten akordiora, eta jakinaraziko diete, orobat, nola laguntzen dioten entitate edo pentsio-plan eta -funtzen horien aktiboan

epe ertain eta luzeko errendimenduari. Aipatutakoa ez da izango beharrezkoa informazio hori jendearen eskura dagoenean edo sozietate kudeatzaileek argitaratu beharreko urteko txostenean jasota dagoenean. Horrelakoetan, adierazi beharko dute non dagoen jasota informazio hori.

Sozietate kudeatzaileek hauei buruzko informazioa jasoko dute: inbertsioei lotutako epe ertain eta luzeko arrisku nagusiak, zorroaren osaera, txandakatzea eta txandakatze-kostuak, eta, hala badagokio, boto-aholkularien erabilera inplikazio-jardueretan, eta baloreak mailegatzeko politika eta nola aplikatzen den hura sozietateen inplikazio-jarduerak gauzatzeko, bereziki inbertsioen xede diren sozietateen batzar nagusietan.

Era berean, jakinaraziko dute inbertsioen inguruko erabakirik hartu ote duten beren inbertsioen xede diren sozietateen epe ertain eta luzeko errendimenduaren ebaluazioan oinarrituta, eta, hala bada, nola hartu dituzten erabaki horiek, errendimendu ez-finantzarioa ere kontuan harturik, eta jakinaraziko dute, halaber, interes-gatazkarik izan ote den inplikazio-jarduerari dagokienez, eta, hala bada, zer gatazka izan diren eta nola konpondu dituzten».

Bigarren artikulua. *Merkataritza Kodea aldatzea.*

Honela geratzen da idatzita 49. artikulua 6.II apartatuaren («Gai sozialei eta Langileei buruzko informazioa») laugarren gidoia:

«Gizarte-harremanak: gizarte-elkarrizketaren antolaketa, langileei informazioa emateko eta kontsultatzeko eta haiekin negoziatzeko prozedurak barne; hitzarmen kolektiboaren eraginpeko enplegatuen ehuneko herrialdeka; hitzarmen kolektiboaren balantzea, bereziki laneko osasunaren eta segurtasunaren eremuan; eta enpresak dituen mekanismoak eta prozedurak, langileek konpainiaren kudeaketan parte har dezaten sustatzeko, informazioari, kontsultari eta parte-hartzeari dagokienez».

Hirugarren artikulua. *Kapital Sozietateen Legearen testu bategina aldatzea, zeina uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsi baitzen.*

Uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Kapital Sozietateen Legearen testu bategina aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

Bat. 182 artikulua aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«182. artikulua. *Telematikoki bertaratzea.*

Estatutuetan ezartzen bada batzarrean bide telematikoen bidez parte hartzeko aukera, eta bide horiek behar bezala bermatzen badute subjektuaren identitatea, deialdian zehaztu behar dira bazkideen eskubideak egikartzeko epeak, moduak eta moldeak, batzarra egokiro egin dadin, administratzaileek ezarritakoaren arabera. Bereziki, administratzaileek erabaki ahalko dute batzarra eratzeko unea baino lehen sozietateari helaraztea lege honen arabera bide telematikoen bidez bertaratuko direnek egin asmo dituzten hitz-hartzeak eta erabaki-proposamenak. Batzarrera telematikoki bertaratzen diren eta informazio-eskubidea batzarrean baliatzen duten bazkideei edo haien ordezkariari eman beharreko erantzunak bileran bertan emango dira, edo, bestela, idatziz helaraziko dira, batzarra amaitu eta hurrengo zazpi egunen buruan».

Bi. 182 bis artikulua eransten da, eta honela geratzen da idatzita:

«182 bis artikulua. *Batzorde zeharo telematikoa.*

1. Aurreko artikuluan ezarritakoaz gainera, estatutuek baimena eman ahalko diete administratzaileei bazkideek edo haien ordezkariak fisikoki bertaratu beharrik gabeko batzarretarako deialdiak egin ditzaten. Manu honetan aurreikusi gabekoari

dagokionez, aurrez aurreko batzarrei aplikatzekoak zaizkien arau orokorrak aplikatuko zaizkie batzar zeharo telematikoei ere, betiere haien tasunen ondoriozko berezitasunetara egokiturik.

2. Batzar zeharo telematikoen deialdia egiteko baimena ematen duen estatutu-aldaketa onesteko, beharrezkoa izango da bileran bertaratutako edo ordezkaturiko kapitalaren gutxienez bi herenak ordezkatzan dituzten bazkideek haren alde egitea.

3. Batzar zeharo telematikoa egiteko baldintza izango da, kasu guztietan ere, behar bezala bermatuta egotea bazkideen eta haien ordezkarien identitatea eta legitimazioa, eta parte-hartzaile guztiek esku hartu ahal izatea bileran, bitarteko telematiko egokiak baliatuz (audioa edo bideoa, kasu), eta, horretaz gainera, mezu idatziak bidaltzeko aukera izatea batzarra gauzatu ahala, dela hitz egiteko, informatzeko, proposatzeko eta bozkatzeko eskubideak denbora errealean baliatu ahal izateko, dela gainerako parte-hartzaileen hitz-hartzeak ere jarraitu ahal izateko, aipaturiko bitartekoen bidez. Horretarako, administratzaileek behar diren neurriak ezarri beharko dituzte, teknikaren egoeraren eta sozietatearen inguruabarren arabera (bereziki, bazkide kopurua).

4. Deialdiaren iragarkian, bertaratutako zerrenda osatzeko eta erregistratzeko jarraitu beharreko izapideen eta prozeduren berri emango da, pertsona horiek beren eskubideak balia ditzaten eta aktan egokiro jaso dadin batzarren nondik norakoa. Ezingo da bertaratzeko baldintzat hartu bilera hasteko aurreikusitako ordua baino ordubetetik gorako aurrerapenaz erregistratzea.

5. Batzarrean informazio-eskubidea baliatzen duten bazkideei edo haien ordezkariari emaniko erantzunak 182. artikulua arabera arautuko dira.

6. Batzar telematikoa sozietatearen egoitzan egin dela joko da, batzarburua edonon dagoela ere.

7. Artikulu honetan jasotako aurreikuspenak erantzukizun mugatuko sozietateari ere aplikatuko zaizkio».

Hiru. 225.1 artikulua aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«1. Administratzaileek enpresaburu txukunek berezko duten arretaz bete beharko dute kargua, eta halaxe bete beharko dituzte legeek eta estatutuek ezartzen dizkieten betebeharrak, karguaren izaera eta horietako bakoitzari esleitutako eginkizunak kontuan hartuta; eta enpresaren interesaren pean ipini beharko dute beti beren interes partikularra».

Lau. 231 artikulua aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«231. artikulua. *Administratzaileei lotutako pertsonak.*

1. Aurreko artikuluen ondorioetarako, hauek joko dira administratzaileei lotutako pertsonatzat:

a) Administratzailearen ezkontidea edo harekiko antzeko afektibitate-harremana duten pertsonak.

b) Administratzailearen eta haren ezkontidearen aurrekoak, ondorengoak eta neba-arrebak.

c) Administratzailearen aurrekoen, ondorengoaren eta neba-arreben ezkontideak.

d) Administratzailea partaide duten sozietate edo entitateak –partaidetza zuzena edo zeharkakoa izan daiteke, baita bitarteko pertsona baten bidezkoa ere–, baldin eta partaidetza horren ondorioz administratzaileak eragin nabarmena badu sozietate edo entitate horietan, edo postu bat betetzen badu haien administrazio-organoan edo goi-zuzendaritzan edo haiek mendean hartzen dituen sozietate nagusiarenean. Ondorio horietarako, eragin nabarmentzat hartuko da kapital sozialaren edo boto-eskubideen % 10eko edo gehiagoko partaidetza izatea edo,

partaidetza hori oinarri hartuta, sozietatearen administrazio-organoan ordezkaritza izatea, egitez edo zuzenbidez.

e) Administrazioaileak administrazio-organoan ordezkatzeko dituen bazkideak.

2. Administrazioailea pertsona juridikoa bada, ulertuko da hauek direla hari lotutako pertsonak:

a) Pertsona juridikoa den administrazioailearekiko harremanari dagokionez Merkataritza Kodearen 42. artikuluko lehen apartatuan aurreikusitako egoeretak batean dauden bazkideak.

b) Pertsona juridikoa den administrazioailearen zuzenbideko edo egitezko administrazioaileak, likidatzaileak eta ahalorde orokordun ahalduak.

c) Talde bereko sozietateak eta haien bazkideak.

d) Aurreko apartatuan ezarritakoaren arabera, pertsona juridikoa den administrazioaileari lotutakotzat har daitezkeen pertsonak».

Bost. 231 bis artikulua erantsen da, eta honela geratzen da idatzita:

«231 bis artikulua. *Talde barruko eragiketak.*

1. Batzar nagusiari dagokio sozietateak bere sozietate nagusiarekin edo interes-gatazka duten taldeko beste sozietate batzuekin egiten dituen eragiketak onestea, baldin eta negozio edo transakzio hori, haren izaeratik, organo horren eskumenerako erreserbatuta badago legez, eta, kasu guztietan ere, eragiketaren zenbatekoa edo balioa edo esparru-akordio edo -kontratu batean aurreikusitako eragiketa guztien zenbatekoa aktibo osoaren % 10etik gorakoa bada.

2. Administrazio-organoari dagokio sozietateak bere sozietate nagusiarekin edo interes-gatazka duten taldeko beste sozietate batzuekin egiten dituen gainerako eragiketak onestea. 228.c) eta 230. artikuluetan aurreikusitakoa gorabehera, sozietate nagusiarekin lotura duten eta hura ordezkatzeko dituen administrazioaileen parte-hartzearekin onetsi ahalko dira eragiketa horiek; kasu horretan, administrazioaile horien erabakia edo botoa erabakigarria bada onespenerako, sozietateak eta, hala badagokio, interes-gatazka ukitutako administrazioaileek frogatu beharko dute akordioa bat datorrela interes sozialarekin, baldin eta eragiketa hori aurkaratu badute, edo behar den arduraz eta leialtasunez jokatu dutela, baldin eta haien erantzukizuna exijitu bada.

3. Administrazio-organoak organo eskuordetuei edo goi-zuzendaritzako kideei eskuordetu ahaliko die sozietateak bere sozietate nagusiarekin edo interes-gatazka duten taldeko beste sozietate batzuekin egindako eragiketen onespena, baldin eta enpresa-jardueraren ohiko jardunean egindako eragiketak badira –eragiketa horien artean sartuko dira, kasurako, esparru-akordio edo -kontratu bat betearaztearen ondoriozkoak– eta merkatu-baldintzetan amaitu badira. Administrazio-organoak barne-prozedura bat ezarri beharko du, aldian-aldian ebaluatzeko aipaturiko betekizunak konplitzen ote diren.

4. Aurreko apartatuen ondorioetarako, ez dira hartuko interes-gatazka duen taldeko sozietate batekin egindako eragiketatzat mendeko sozietateekin egindakoak, salbu eta mendeko sozietatean akziodun nabarmena ez bada pertsona bat, zeinarekin sozietateak ezin baitu eragiketa zuzenean gauzatu, alderdi lotuekin eragiketak egiteko araubidea aplikatu gabe. Hala eta guztiz ere, sozietate nagusiarekin eragiketak egiten dituztela-eta lege hau bete behar duten mendeko sozietateei aurreko apartatuetan aurreikusitakoa aplikatuko zaie».

Sei. Honela geratzen da idatzita 315. artikulua:

«315. artikulua. *Gehikuntza-eragiketa inskribatzea.*

Kapital soziala gehitzeko erabakia eta haren betearazpena aldi berean inskribatu behar dira Merkataritza Erregistroan».

Zazpi. Honela geratzen da idatzita 495. artikulua:

«495. artikulua. *Sozietate kotizatuaren kontzeptua eta titulu honen aplikazio-eremua.*

1. Sozietate kotizatutzat hartzen dira Espainiako merkatu arautu batean negoziatzeko onarturiko akzioak dituzten sozietate anonimoak.

2. Titulu honetan aurreikusi gabekoetan, sozietate anonimoei aplikatu beharreko xedapen orokorren arabera arautuko dira sozietate kotizatuak, jarraian adierazten diren berezitasun hauekin:

a) Lege honetan akziodunei aitortzen zaizkien zenbait eskubide gauzatzeko sozietate anonimoei aplikatzekoak diren zenbait xedapenek exijitzen duten ehuneko bosteko gutxienezko ehuneko hirukoa izango da sozietate kotizatueta.

b) 206.1 eta 251. artikuluen arabera akordio sozialak aurkaratu ahal izateko behar den kapital sozialaren zatikia milaren bat izango da.

c) Ordena publikoaren aurkakoak diren akordioetarako 205.1 artikuluan xedatutakoa eragotzi gabe, hiru hilabeteko epean iraungiko da akordio sozialak aurkaratzeko egintza.

3. Akzioak Europako Esparru Ekonomikoko beste estatu kide bateko merkatu arautu batean edo hirugarren estatu bateko pareko merkatu batean negoziatzeko onartuta dauden eta Espainiako merkatuetan negoziatzeko onartuta ez dauden sozietate anonimoei titulu honetan jasotako xedapenak aplikatuko zaizkie, berezitasun hauekin:

a) Ulertuko da xedapen horiek baliokidetasunez betetzen direla, baldin eta sozietateak konplitzen baditu atzerriko merkatuko legeak sozietate kotizatuak exijitzen dizkienen arau edo betekizun funtzionalak analogoak, eta, aldiz, aplikaezinak izango dira atzerriko merkatuko legean sozietate negoziatzeko onartzeko eta hari eusteko ezarritako betekizunekin bateraezinak diren xedapenak.

b) Komunikazio eta publizitaterako bideak bat etorriko dira atzerriko merkatuko legean aurreikusitakoarekin. Atzerriko merkatuan aplikatu beharreko kodeak edo estandarrak aipatuta emango da gobernu korporatiboaren gomendioen jarraipen-mailari buruzko informazioa.

c) Akzioen ordezkariak eta dokumentazioa atzerriko merkatuko legearen eskakizunetara egokitu ahalko dira. Kasuak hala eskatzen badu, merkatu horretan baimendutako entitate baten esku utzi ahalko da akzioen kontabilitate-erregistroko liburu eramatea.

d) Ulertuko da atzerriko merkatuko legeak aurreikusitako agintaritzari buruzkoak direla titulu honetan Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari egiten zaizkion aipamenak».

Zortzi. Honela geratzen da idatzita 496. artikuluen 1. apartatua:

«1. Kontuko idatzoharren bidez adierazi beharko dira, nahitaez, Espainian helbideratuta dagoen edo bertan jarduten duen merkatu arautu batean kotizatu nahi duten edo kotizatzeko onartuta egon nahi duten akzioak eta betebeharrak».

Bederatzi. Honela geratzen da idatzita 497. artikulua:

«497. artikulua. *Akziodunen identitatea ezagutzeko eskubidea.*

1. Sozietateak edo hark izendatutako hirugarren batek eskubidea izango du baloreen gordailuzain zentralak akziodunen identitatea zehazteko informazioa eman diezaion noiznahi, akziodun horiekin zuzenean komunikatzeko, hartara eskubideak egikaritu ditzaten eta sozietatean inplikatu daitezen errazteko. Informazio horretan, gutxienez, datu hauek sartuko dira:

- a) izena eta harremanetarako datuak; helbide osoa eta, halakorik edukiz gero, akziodunaren helbide elektronikoa; eta, pertsona juridikoa bada, identifikatzaile bakarra, hala nola entitate juridiko gisa identifikatzeko kodea (LEI), edo, halakorik ezean, erregistro-zenbakia edo identifikazio fiskaleko zenbakia;
- b) zenbat akzioren titular den; eta
- c) sozietateak hala eskatzen badu, datu hauetako bat edo batzuk: zer motatako akzioak diren eta zein datatatik aurrera den haien titular (datu hori eskuragarri badago).

Gainerako datu pertsonalak sozietateak akziodunak identifikatzeko eta haiekin komunikatzeko helburua betetzeko beharrezkoak direnean bakarrik eman beharko dira.

2. Eskubide hori bera izango dute sozietate jaulkitzailean eraturako eta kapital sozialaren gutxienez ehuneko bata ordezkatzeko duten akziodunen elkarteek, baita banaka edo taldean kapital sozialaren gutxienez ehuneko hiruko partaidetza duten akziodunek ere, eskusiboki akziodunekiko komunikazioa errazte aldera, haien eskubideak egikaritzeko eta interes komunak hobeto defendatzeko.

Eskabidean, kontsultaren helburua adierazi beharko da, eta ezingo da baliatu informazio hori eskabidean ageri ez diren xedeetarako.

Eskatutako informazioa abusuz edo modu kaltegarrian erabiliz gero, akziodunen edo bazkideen elkarteak izango da eragindako kalte-galeren erantzule. Erantzukizun zibil hori bereizita egongo da datu pertsonalak babesteko araudia urratzeagatik sor daitekeen administrazio-erantzukizunetik.

3. Akziodunen datu pertsonalak artikuluko honen arabera tratatuko dira, sozietateak akziodunak identifikatu eta haiekin zuzenean komunikatu ahal izateko, beren eskubideak egikaritu ditzaten eta sozietatean inplika daitezkeen errazteko, eta datu horien tratamendua guztiz bat etorriko da Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (EB) 2016/679 Erregelamenduari (Datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen eta 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen duena), eta bat etorriko da, orobat, datu pertsonalak babesteko araudi orokorrarekin ere. Datuak eskatzen dituzten akziodunei eta akziodunen elkartei aplikatzekoak izango zaizkie (EB) 2016/679 Erregelamendua eta, oro har, datu pertsonalak babesteko araudia, gainerako akziodunekin errazago komunikatu ahal izan daitezkeen, guztia ere akziodunek beren eskubideak egikaritzeko eta beren interes komunak hobeto defendatzeko. Datu pertsonalak hirugarren herrialdeetako bitartekariari transmititzeko, (EB) 2016/679 Erregelamenduan ezarritako baldintzak bete beharko dira, eta hirugarren herrialdeetako bitartekari horiek, EBtik kanpo badaude ere, konpromisoa hartu beharko dute beteko dutela Europar Batasuneko Erregelamendu horretan biltzen den datuak babesteko araudia.

Europar Batasunaren legegintzako egintza sektorial batek edo haren transposizio-araudiak ez badu ezartzen epe luzeagoa, sozietateek eta bitartekari edo zerbitzu-emaileek, nahiz eta EBtik kanpo egon, ez dituzte gordeko akziodunarengandik lortu dituzten datu pertsonalak hamabi hilabete bako bako gehiagoan, akziodun izateari utzi diola jakiten dutenetik aurrera. Sozietateek eta bitartekariak akziodunen datu pertsonalak eguneratuta daudela bermatzeko prozedurak antolatuko dituzte. 2. apartatuaren arabera datu pertsonalak lortu dituzten akziodunek eta akziodunen elkarteek datu pertsonalak gordetzeko epea ez da izango luzeagoa datu pertsonalen tratamenduaren helburuak betetzeko beharrezkoa den denbora baino; hau da, ez da izango luzeagoa beren eskubideak baliatzeko eta beren interes komunak hobeto defendatzeko behar duten denbora baino.

Pertsona juridikoak diren akziodunek eskubidea izango dute akziodun gisa duten identitateari buruzko informazio osatugabea edo zehaztugabea zuzentzeko.

4. Batzordearen 2018ko irailaren 3ko (EB) 2018/1212 Betearazpen Erregelamenduan xedatutakoaren arabera arautuko dira aurreko apartatuaren

agindutakoaren arabera egindako eskaerak eta erantzunak. Erregelamendu horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2007/36/EE Zuzentarauaren xedapenak betearazteko gutxieneko baldintzak ezartzen dira, akziodunak identifikatzearekin, informazio-transmisioarekin eta akziodunek beren eskubideak baliatzea erraztearekin loturik».

Hamar. 497 bis artikulua eransten da, eta honela geratzen da idatzita:

«497 bis artikulua. *Azken onuradunak identifikatzeko eskubidea.*

1. Akzioen kontabilitate-erregistroaren arabera akziodun gisa legitimatutako entitatea edo pertsona akzio horiek azken onuradunen edo beste erakunde bitartekari baten kontura zaintzen dituen erakunde bitartekaria bada, aurreko artikuluan araututako akziodunen identitatea ezagutzeko eskubidearen barruan azken onuradun horien identitatea ezagutzeko eskubidea ere sartuko da.

Ondorio horietarako, sozietate kotizatuak edo sozietate horrek izendatutako hirugarren batek azken onuradunak identifikatzeko eskatu ahalko du, dela zuzenean, erakunde bitartekariari galdeginda, dela zeharka, baloreen gordailuzain zentralaren bidez. Gutxienez kapital sozialaren ehuneko bat ordezkatzan duten akziodunen elkarteek edo, banaka edo batera, gutxienez kapital sozialaren ehuneko hiruko partaidetzaren titular diren akziodunek nahitaez baloreen gordailuzain zentralaren bidez eskatuko diote erakunde bitartekariari azken onuradunak identifikatzeko. Bi kasuetan, erakunde bitartekariak zuzenean jakinaraziko dio eskatzaileari zein diren azken onuradunak.

2. Lege honetan ezarritako ondorioetarako, kontabilitate-erregistroaren arabera akziodun gisa legitimatutako erakunde bitartekariak zeinen kontura jarduten duen, zuzenean edo bitartekari-kate baten bidez, hura hartuko da azken onuraduntzat.

3. Katean diharduten zenbait erakundek zaintzen dituztenean azken onuradun beraren akzioak, entitate horiek luzamendurik gabe transmitituko diote elkarri sozietate horren eskaera; hala, azken onuradunari buruz eskatutako informazioa duen kateko edozein erakunde bitartekari zuzenean eta luzamendurik gabe helaraziko dio informazioa eskatzaileari.

4. Sozietate kotizatuak edo baimendutako gainerako eskatzaileek azken onuradunaren akzioen berri izateak ez du izango eraginik erakunde bitartekariari edo akzioen kontabilitate-erregistroa arautzen duen araudiaren arabera akziodun gisa legitimatutako pertsonari dagozkion eskubide ekonomiko eta politikoen titulartasunean, ez eta haien egikaritzean ere.

5. Sozietateak ez du zerikusirik azken onuradunaren eta erakunde bitartekarien arteko harremanekin, ez eta erakunde bitartekarien katea osatzen duten entitateen arteko harremanekin ere. Erakunde bitartekariei bakarrik dagozkie azken onuradunari buruz ezarritako betebeharrak, eta haien erantzukizuna izango da eginbeharrok betetzea. Sozietatea ez da egongo behartuta azken onuradunen aurrean.

6. Batzordearen 2018ko irailaren 3ko (EB) 2018/1212 Betearazpen Erregelamenduan xedatutakoa aplikatuko zaie aurreko apartatuetan zehazturikoaren arabera egindako eskaerei eta erantzunei. Erregelamendu horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2007/36/EE Zuzentarauaren xedapenak betearazteko gutxieneko baldintzak ezartzen dira, akziodunak identifikatzearekin, informazioa transmititzearekin eta akziodunek beren eskubideak baliatzea erraztearekin loturik».

7. Artikulu honetan deskribatutako azken onuradunen datu pertsonalen tratamenduei (EB) 2016/679 Erregelamendua aplikatuko zaie, bai eta, oro har, datu pertsonalak babesteko araudia ere, 497.3 artikuluan ezarritako moduan eta baldintzetan.

8. Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko Ministerioaren titularraren agindu bidez, akziodunen eta azken onuradunen identifikazioarekin loturik beharrezkoak diren beste alderdi tekniko eta formal batzuk zehaztu ahalko dira».

Hamaika. Honela geratzen dira idatzita 503. artikulutik 508.era bitartekoak:

«503. artikulua. *Harpidetzeko eskaintza iragartzeko eta harpidetza-eskubidea baliatzeko gutxieneko epea.*

Sozietate kotizatueta, sozietatearen administratzaileek emandako epearen barruan gauzatuko da lehentasunezko harpidetza-eskubidea; epe hori ezingo da izan hamalau egunetik beherakoa, jaulkipen berria harpidetzeko eskaintzaren iragarkia *Merkataritza Erregistroaren Aldizkari Ofizialean* argitaratzen denetik aurrera.

504. artikulua. *Lehentasunezko harpidetza-eskubidea baztertzeko araubidea.*

1. Sozietate kotizatueta lehentasunezko harpidetza-eskubidea baztertzeko, oro har, 308. artikuluan aurreikusitako aditu independentearen txostena beharko da, baldin eta administrazio-kontseiluak proposatzen badu akzio edo balore bihurtzeko jaulkitzea, kapitalaren % 20tik gorako zenbatekoan, lehentasunezko harpidetza-eskubidea baztertuta. Jaulkipenaren zenbatekoa kapitalaren % 20 baino txikiagoa bada, sozietate kotizatuak bere borondatez lortu ahalko du txosten hori.

2. Artikulu honetako 1. apartatuan jaso gabeko kasuetan, jaulki beharreko akzioen balio nominalak, gehi jaulkipen-primaren zenbatekoak –kasuak hala eskatzen badu–, bat etorri beharko du administratzaileen txostenetik ateratzen den arrazoizko balioarekin.

3. Administratzaileek besterik justifikatu ezean –eta, horretarako, beharrezkoa izango da aditu independente baten txostena aurkeztea–, eta, kasu guztietan ere, kapitalaren % 20 gaitzen ez duten eragiketarako, merkatuko balioa hartuko da arrazoizko baliozat, burtsako kotizazioa erreferentziatzen hartuta, betiere kotizazio horren prezioa baino ehuneko hamar txikiagoa edo are txikiagoa ez bada.

4. Akzioak arrazoizko balioa baino merkeago jaulki ahalko dira. Kasu horretan, administratzaileen txostenak justifikatu beharko du interes sozialak, lehentasunezko harpidetza-eskubidea baztertzeko ez ezik, proposatutako jaulkipen-tasa ezartzea ere exijitzen duela. Horretaz gainera, aditu independenteak txostena egin beharko du, eta, han, berriaz adierazi beharko du, batetik, zer diluzio ekonomiko espero den, eta, bestetik, administratzaileen txostenean ageri diren diluzioa justifikatzeko datu eta kontsiderazioak arrazoizkoak ote diren.

505. artikulua. *Kapital-gehikuntzen prezioa eta gainerako jaulkipen-baldintzak zehaztea, lehentasunezko harpidetza-eskubidea baztertuta.*

Batzen nagusiak, harpidetza-eskubidea baztertuta kapitala gehitzeko erabakia hartzean, jaulkipenaren data, prezioa eta gainerako baldintzak finkatu ahalko ditu, edo, bestela, administrazio-kontseiluari eskuordetu ahalko dio haiek finkatzeko eginkizuna. Azken horrek, bestalde, zuzenean zehaztu ahalko du jaulkipen-prezioa, edo arrazoizkotzat jotzen duen prozedura zehaztu ahalko du horretarako, betiere merkatuan onartutako jardunbideen arabera egokia bada, ziurtatzeko jaulkipen-prezioa bat datorrela arrazoizko balioarekin.

506. artikulua. *Akzio berriak jaulkitzen direnean lehentasunezko harpidetza-eskubidea baztertzeko ahalmena eskuordetzea.*

1. Batzen nagusiak administratzaileei eskuordetzen dienean kapital soziala gehitzeko ahalmena, horiei esleitu ahalko die, halaber, eskuordetzaren xede diren akzioen jaulkipenetan lehenespen-eskubidea baztertzeko ahalmena ere, baldin eta sozietatearen interesa hori bada. Lehentasunezko harpidetza-eskubidea baztertuta

kapitala gehitzeko eskuordetza ezingo da izan sozietateak baimena emateko unean duen kapitalaren ehuneko hogeai baino gehiagoren gainekoa.

2. Batzar nagusiaren deialdia egiterakoan, administratzaileei kapital soziala gehitzeko ahalmena eskuordetzeko proposamena jasotzen bada iragarkian, espresuki adierazi behar da administratzaileei baimena eman zaiela lehentasunezko harpidetza-eskubidea baztertzeko. Batzar nagusiaren deialdia egiten denetik, akziodunen esku jarriko da administratzaileen txostena, zeinean justifikaturik egongo baita ahalmen hori eskuordetzeko proposamena.

3. Batzarraren eskuordetzean oinarrituta hartutako gehikuntza-erabakiarekin batera, administratzaileen justifikazio-txostena aurkeztu beharko da. Era berean, sozietateak bere borondatez lortu ahalko du 308. artikuluan aurreikusitako aditu independentearen txostena.

4. Arrazoizko balioari egokituko zaio jaulki beharreko akzioen balio nominala gehi, hala badagokio, jaulkipen-primaren zenbatekoa, 504. artikulua 3. apartatuan aurreikusitako moduan. Administratzaileen txostena akziodunen esku utziko da, eta gehikuntza-erabakia hartu ondoren egiten den lehen batzar nagusiari jakinaraziko zaio.

507. *artikulua. Harpidetza osatugabea.*

Non eta erabakiak ez duen kontrakorik aurreikusten, kapital-gehikuntza efikaza izango da, nahiz eta harpidetza ez izan osoa.

508. *artikulua. Kapital-gehikuntzetan akzioak entregatzea.*

1. Sozietate kotizatuetan, Merkataritza Erregistroan inskribatu ahalko da kapitala gehitzeko erabakia, betearazi aurretik, salbu eta harpidetza osatugabea egiteko aukera baztertu bada.

2. Sozietatea eratzeari buruz 34. artikuluan aurreikusitakoa eragotzi gabe, kapitala gehitzen den kasuetan, kapitala gehitzeko erabakia aurreko apartatuan ezarritakoaren arabera inskribatu eta kapital-gehikuntza gauzatzeko eskritura egiletsi ondoren eman eta eskualdatu ahalko dira akzioak.

Betearazte-eskritturak finkatuko du kapital-gehikuntzaren azken zenbatekoa, harpidedunen identitatea zehaztu beharrik gabe, eta egilespenaren ondoko bost egunetan aurkeztuko dira inskribatzeko.

Akzioak entregatzen badira, ez dira aplikatzekoak izango ez 316. artikulua, ez 309.1.f) artikulua».

Hamabi. Honela geratzen dira idatzita 510. artikulutik 512.era bitartekoak:

«510. artikulua. *Obligazio bihurgarrien jaulkipena.*

Sozietate kotizatuetan, akzio bihur daitezkeen obligazioak jaulkitzeko, ez dira beharrezkoak izango 414. artikulua 2. apartatuan eta 417. artikulua 2. apartatuko b) letran jasotako aditu independentearen txostenak, baldin eta jaulkipenok ez badira iristen kapitalaren ehuneko hogeira. Hala ere, sozietate kotizatuak bere borondatez lortu ahalko ditu txosten horiek. Administratzaileen txostenak jaulkipenaren finantza-baldintzen arrazoizkotasuna justifikatu beharko du, eta, halaber, justifikatu beharko du bihurketa-erlazioa eta hura doitzeko formulak egokiak ote diren akziodunen partaidetza ekonomikoa ez gutxitzeko.

511. *artikulua. Obligazio bihurgarriak jaulkiz gero lehentasunezko harpidetza-eskubidea baztertzeko ahalmena eskuordetzea.*

1. Sozietate kotizatuaren kasuan, batzar nagusiak administratzaileei eskuordetzen dienean obligazio bihurgarriak jaulkitzeko ahalmena, horiei esleitu ahalko die, halaber, eskuordetzaren xede diren obligazio bihurgarrietan lehentasunezko harpidetza-eskubidea baztertzeko ahalmena ere, baldin eta

sozietatearen interesa hori bada. Kasu horretan, baimena ematen den unean kapital soziala osatzen duten akzioen ehuneko hogeiz izango dira, gehienez, akzio hauen batura: batetik, obligazioak akzio bihurtuta lor daitezkeen akzioak, hasierako bihurteta-erlazioa aintzat hartuta (finkoa bada) edo gutxieneko bihurteta-erlazioari erreparatuta (aldakorra bada) eta, bestetik, 506. artikuluan aurreikusitako eskuordetzaren babesean administratzaileek jaulkitako akzioak.

2. Batzar nagusiaren deialdian administratzaileei obligazio bihurtgarriak jaulkitzeko ahalmena eskuordetzeko proposamena ageri bada, iragarki horretan berariaz jaso beharko da, halaber, lehentasunezko harpidetza-eskubidea baztertzeko proposamena. Batzar nagusiaren deialdia egiten denetik, administratzaileen txosten bat jarriko da akziodunen esku, eta, han, baztertzeko-proposamena justifikatuko da.

3. Batzarraren eskuordetzan oinarrituta obligazio bihurtgarriak jaulkitzeko harturiko erabakiarekin batera, administratzaileen justifikazio-txostena aurkeztu beharko da. Akziodunen esku jarriko da txosten hori, eta, hala badagokio, baita aditu independentearena ere, eta jaulkitzeko erabakia hartu ondoren egiten den lehen batzar nagusiarri jakinaraziko zaizkio.

512. *artikulua. Batzar nagusiaren nahitaezko erregelamendua.*

Sozietate kotizatu anonimoaren akziodunen batzar nagusiak, 193. artikuluko quorumarekin edo estatutuetan horretarako ezarritako handiagoarekin eratuta, batzar nagusirako erregelamendu berezia onetsiko du. Erregelamendu horretan jaso ahalko dira batzar nagusiarekin loturiko gai guztiak, betiere legean eta estatutuetan ezarritakoa errespetatuz».

Hamahiru. 518. artikuluan b) letra aldatzen da, eta artikulua beraren e) letraren azken tartekia ezabatzen. Honela geratzen dira idatzita:

«b) Deialdiaren eguneko akzioen eta boto-eskubideen guztizko kopurua, akzio moten arabera sailkatuta, halakorik baldin bada. Estatutuek leialtasunagatiko boto bikoitza esleitzea aurreikusten badute eta 527. artikuluan aipatzen den erregistro berezia sortu bada, batzar nagusiaren bileraren aurreko legitimazio aurreratua epea amaitu eta berehala eguneratu beharko da boto-eskubideen kopuruari buruzko informazioa».

«e) Administrazio-kontseiluko kideak izendatu, berretsi edo berrautatu behar izanez gero, horietako bakoitzari dagokion identitatea, curriculum eta kategoria, bai eta 529. artikuluan aipatzen dituen proposamena eta txostenak ere».

Hamalau. Bi artikulua berri txertatzen dira, 520 bis eta 520 ter, eta honela geratzen dira idatzita:

«520 bis artikulua. *Sozietatearen informazioa helaraztea akziodunei eta azken onuradunei.*

1. Sozietateek informazio hau eman beharko diete akziodunei edo akziodun bakoitzak izendaturiko hirugarrenei:

a) beren akzioetatik eratorritako eskubideak baliatu ahal izateko eman behar dien informazioa, mota horretako akzioen titular diren akziodun guztiei zuzendua; edo

b) baldin eta a) letran jasotako informazioa sozietatearen webgunean badago akziodunen eskura, informazio hori non aurkitu dezaketen adierazten duen oharra.

Informazioa hizkuntza eta estilo ulergarrian idatzi behar da, idazkera argia, zehatza, eskuragarria eta ulergarria baliatuz.

2. Aurreko apartatuan aurreikusitako ondorioetarako, sozietateek modu bat baino gehiago izango dute informazio hori helarazteko:

- a) zuzenean akziodun guztiei; edo
- b) zeharka, modu normalizatuan eta dagokion garaian, haiek izendatutako hirugarrenen, baloreen gordailuzain zentralaren edo erakunde bitartekariaren bidez; kasu horretan, horiek behartuta egongo dira informazioa berandu gabe helaraztera sozietateko akziodunei.

3. Baldin eta akzioen kontabilitate-erregistroaren arabera akziodun gisa legitimatutako entitatea akzio horiek azken onuradun baten kontura zaintzen dituen erakunde bitartekaria bada, bitartekari horrek 1. apartatuan aipatutako informazioa helaraziko dio azken onuradunari, atzerapenik gabe.

520 ter artikulua. *Azken onuradunek sozietateari informazioa helaraztea.*

Akzioen kontabilitate-erregistroaren arabera akziodun gisa legitimatutako erakunde bitartekariak sozietateari edo sozietateak izendatzen duen hirugarrenari helaraziko diote, luzamendurik gabe, azken onuradunengandik edo beste erakunde bitartekari batzuegandik zuzenean jaso duten eskubideak baliatzeari buruzko informazioa».

Hamabost. 521. artikulua aldatzen da, eta 3. apartatua eransten zaio. Honela geratzen da idatzita:

«521. artikulua. *Urruneko parte-hartzea.*

(...)

3. Sozietate kotizatuaren batzar nagusia modu telematikoa bakarrik egiten bada, 182 bis artikuluan aurreikusitakoaren arabera, beharrezkoa izango da, gainera:

- a) akziodunek ere gai-zerrendako puntuei buruzko proposamenen botoa alde aurretik eskuordetu edo baliatu ahal izatea, 1. apartatuan aurreikusitako edozein bitartekoren bidez; eta
- b) notarioak egitea bileraren akta».

Hamasei. 522 bis artikulua eransten da, eta honela geratzen da idatzita:

«522 bis artikulua. *Erakunde bitartekariak azken onuradunen eskubideak baliatzeko erraztasunak ematea.*

1. Akzioen kontabilitate-erregistroaren arabera akziodun gisa legitimatutako erakunde bitartekariak, bai eta gainerako erakunde bitartekariak ere 497 bis.2 artikuluan aurreikusitako kasuan, erraztasunak emango dizkiete azken onuradunei haiek zaindutako akzioekin loturiko eskubideak balia ditzaten –barnean harturik batzar nagusietan parte hartzeko eta botoa emateko eskubideak–, eta azken onuradunak emandako baimenaren eta jarraibideen arabera eta haien intereserako baliatuko dituzte akzioetatik eratorritako eskubideak.

2. Erakunde bitartekariak azken onuradunen akzioei dagozkien eskubideak baliatzea erraztuko dute, Batzordearen 2018ko irailaren 3ko (EB) 2018/1212 Betearazpen Erregelamenduan jasota dagoenaren arabera».

Hamazazpi. Honela geratzen da idatzita 524. artikulua:

«524. artikulua. *Erakunde bitartekarien aldetik ordezkaritza eta boto-eskubidea eskuordetzea.*

1. Akzioen kontabilitateko erregistroaren arabera akziodun gisa legitimatuta agertzen diren baina zenbait azken onuradunen bidez jarduten duten erakunde

bitartekariak botoa zatitu eta zentzu dibergentean baliatu ahalko dute, bozkatzeko jarraibide desberdinak betez, halakorik jaso badute.

2. Erakunde bitartekariak azken onuradun bakoitzari edo horiek izendatutako hirugarrenei eskuordetu ahalko diete botoa, eta ezingo da mugatu emandako eskuordetza kopurua».

Hemezortzi. Bi artikulua berri sartzen dira, 524 bis eta 524 ter, eta honela geratzen dira idatzita:

«524 bis artikulua. *Informazioa emateko eta botoa baliatzeko xedapen komunak.*

1. Erakunde bitartekari batek baino gehiagok zaintzen dituztenean azken onuradun beraren akzioak, entitate horiek elkarri helaraziko diote 520 bis, 520 ter, 522 bis, 524. eta 527 bis artikuluetan aipatutako informazioa edo berrespena, atzerapenik gabe, azken onuradun horrengana edo sozietatera iritsi arte, salbu eta informazioa edo berrespen hori erakunde bitartekarietako batek zuzenean helaraz badieziaieke.

2. 520 bis eta 520 ter artikuluen arabera helarazitako informazioari Batzordearen 2018ko irailaren 3ko (EB) 2018/1212 Betearazpen Erregelamendua aplikatzekoa izango zaio.

3. 520 bis, 520 ter, 522 bis, 524. eta 527 bis artikuluetan xedatutakoaren aplikagarritasuna bermatzeko beharrezkoak diren beste alderdi tekniko eta formal batzuk erregelamendu bidez zehaztu ahalko dira.

524 ter artikulua. *Diskriminaziorik eza, proportzionaltasuna eta kostuen gardentasuna.*

1. Erakunde bitartekariak beren web-orrietan argitaratu beharko dituzte 497., 497 bis, 520 bis, 520 ter, 522 bis, 524., 524 bis eta 527 bis artikuluen arabera emandako zerbitzuengatik aplikatu beharreko tarifa guztiak, banan-banan.

2. Bitartekari batek akziodunei, sozietateei, azken onuradunei eta beste erakunde bitartekari batzuei kobratzen dizkien tarifak ezingo dira izan diskriminatuak, eta proportzionatuak izan beharko dute zerbitzu hori emateko izan dituzten kostu errealekiko.

3. 497., 497 bis, 520 bis, 520 ter, 522 bis, 524., 524 bis eta 527 bis artikuluetan aitortutako eskubideak baliatzearen ondorioz bezeroari edo haren ordezkariari – jatorrizko estatua zein duten– zerbitzu beragatik kobratzen zaizkien tarifen artean aldeak egotea baliozkoa izango bada, diferentziak behar bezala justifikatuta egon beharko du, eta agerian utzi beharko da zerbitzu horiek emateak dakartzan kostu errealean aldakuntza».

Hemeretzi. 527 bis artikulua eranstean da, eta honela geratzen da idatzita:

«527 bis artikulua. *Botoak berrestea.*

1. Botoa bitarteko elektronikoen bidez eman denean, sozietateak botoa jaso izanaren baieztapen elektronikoa bidali beharko dio botoa ematen duen akziodunari.

2. Batzar nagusia egin eta hilabeteko epearen barruan, akziodunak edo haren ordezkariak eta azken onuradunak beren akzioei dagozkien botoak behar bezala erregistratu eta kontabilizatu dituela berrets dezala eskatu ahalko diote sozietateari, non eta ez duten aurretik jaso informazio hori. Batzordearen 2018ko irailaren 3ko (EB) 2018/1212 Betearazpen Erregelamenduan ezarritako gehieneko epean bidali beharko dio sozietateak baieztapen hori akziodunari, haren ordezkariari edo azken onuradunari».

Hogei. 4. azpiatala eranstean zaio Kapital Sozietateen Legearen testu bategina onartzen duen uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren XIV. tituluko VI. kapituluaren 3. atalari, eta titulu eta eduki hau izango du:

«4. azpiatala. Leialtasunagatiko botoa duten akzioak

527 ter artikulua. *Leialtasunagatiko boto gehigarri bikoitza duten akzioen estatutu-aurreikuspena.*

1. 96.2 eta 188.2 artikuluetan ezarritakoaren salbuespen gisa, sozietate anonimo kotizatuaren estatutuek akzioaren balio nominalaren eta boto-eskubidearen arteko proportzioa aldaraz dezakete, boto bikoitza emateko etenik gabeko hurrenez hurrenako bi urtean akziodun beraren titulartasuneko izan den akzio bakoitzari (akzioa 527 septies artikuluan jasotako erregistro-liburu berezian inskribatu denetik aurrera zenbatuko dira bi urteak).

Ondorio horietarako, boto bikoitza izango da akzio bakoitzari balio nominalaren arabera dagozkion botoen halako bi.

2. Estatutuen bidez, aurreko apartatuaren arabera boto bikoitza lortzeko behar den etenik gabeko titulartasun-aldi gutxienezkoa luzatu ahalko da; ezingo da, ordea, murriztu.

3. Artikulu honetan aipatzen den titulartasun-aldia zenbatzeko, kapital-gehikuntzak direla-eta doan esleitutako akzioek esleipen horretarako eskubidea eman dutenen antzinasun bera izango dute.

4. Leialtasunagatiko boto bikoitzeko akzioak ez dira izango 94. artikuluan zehazturikoaren arabera akzio mota berezia.

527 quater artikulua. *Onartzeko behar diren gehiengoak.*

1. Batzar nagusiak leialtasunagatiko boto bikoitza estatutuetan sartzea ebatzi eta erabaki hori baliozkoa izan dadin, beharrezkoa izango da batzarrean presente edo ordezkaturik dagoen kapitalaren ehuneko hirurogeik gutxienez aldeko botoa ematea, baldin eta bertarutzen diren akziodunek boto-eskubidearekin harpidetutako kapital osoaren ehuneko berrogeita hamar edo gehiago ordezkatzan badute, edo presente edo ordezkaturik dagoen kapitalaren ehuneko hirurogeita hamabostek aldeko botoa ematea, baldin eta bertarutzen diren akziodunek kapitalaren ehuneko hogeita bost edo gehiago baina ehuneko berrogeita hamar baino gutxiago ordezkatzan badute.

2. Estatutu sozialen bidez, aurreko apartatuan aurreikusitako gehiengoak eta quorumak zabaldu ahalko dira.

527 quinquies artikulua. *Leialtasunagatiko botoak zenbatzea.*

1. Estatutuetan kontrakorik xedatu ezean, akziodunen batzarren quoruma zehazteko eta erabakiak hartzeko behar diren boto-gehiengoak zenbatzeko, kontuan hartuko dira leialtasunagatiko boto bikoitzak.

Ondorio horietarako, leialtasunagatiko boto bikoitza esleitzea aurreikusten duten estatutuak dituzten sozietate kotizatuatan, 193. eta 194. artikuluen arabera batzar nagusia eratzeko behar den quoruma kalkulatzeko, boto-eskubidearekin harpidetutako kapitalari dagozkion boto guztiak hartuko dira kontuan, boto bikoitzak barne.

Bertaratuen zerrendan, bertaratu bakoitzak zer izaera duen edo noren ordezkari den adieraziko da, eta, halaber, zehaztuko da zenbat akziorekin esku hartzen duten eta zenbat boto dagozkien akzio horiei.

Estatutuek oro har ezartzen badute zenbat boto eman ditzakeen gehienez ere akziodun bakoitzak 527. artikuluan ezarritakoaren arabera, muga hori bera aplikatuko zaie leialtasunagatiko boto bikoitza duten akzioen titularrei ere.

2. Nolanahi ere, leialtasunagatiko botoak kontuan hartuko dira partaidetza esanguratsuak jakinarazteko betebeharraren ondorioetarako eta baloreak eskuratzeko eskaintza publikoei buruzko araudiaren ondorioetarako, bai eta Kreditu Entitateen Antolamendu, Gainbegiraketa eta Kaudimenari buruzko ekainaren 26ko 10/2014 Legearen I. tituluaren III. kapituluaren ezarritakoaren ondorioetarako ere.

527 sexies artikulua. *Estatutueta leialtasunagatiko botoaren aurreikuspena azkentzeko eta ezabatzeko klausula.*

Estatutueta jasotako leialtasunagatiko boto bikoitza 527 quater artikuluan jasotako baldintzetan berriro beharko da, akziodunen batzar nagusiak estatutua onartu eta bost urte igaro ondoren.

Batzar nagusiak noiznahi erabaki ahalko du leialtasunagatiko boto bikoitzaren estatutu-aurreikuspena kentzea, 201.2 artikuluan aurreikusten diren quorumekin eta gehiengoekin. Batzar nagusiak estatutueta leialtasunagatiko boto bikoitza duten akzioen gaineko aurreikuspena jasotzea onetsi zuenetik hamar urte baino gehiago igaro badira, aurreikuspen hori ezabatzeko behar diren quorumak eta gehiengoak zenbatzean ez dira kontuan hartuko boto-eskubide bikoitzak.

527 septies artikulua. *Boto bikoitza duten akzioen erregistro-liburu berezia.*

1. Sozietate jaulkitzaileak leialtasunagatiko boto bikoitza duten akzioen erregistro-liburu berezia sortuko du, eta, han, 497.1 artikuluan aurreikusitako datuak jasoko dira. Erregistro-liburu horretan inskribatzeak ez du izango eraginik balore-merkatuaren araudiaren arabera kontabilitate-erregistroetako idazpenen ondorioz bazkideek dituzten eskubideen titulartasunean eta eskubide horiek baliatzeko legitimazioan.

2. Boto bikoitzaren eskubidea esleitu diezaioten, akziodunak erregistro-liburu berezian inskribatzea eskatu beharko du, eta adierazi beharko du zenbat akzioen gainean nahi duen boto bikoitzaren eskubidea aitortzea; ildo horretan, gutxienez bi urtez mantendu beharko du akzio kopuru horren titulartasuna, etenik gabe, inskripzio-datatik aurrera.

3. Akziodun pribilegiatuak sozietateari komunikatu eta justifikatu beharko dio, aurreko apartatuan aipaturiko erregistro-liburuan behar bezala jasota gera dadin, bere izenean inskribatutako leialtasunagatiko botoen kopurua murrizten duen edozein akzio-eskualdaketa, horrek, 527 decies artikulua arabera, leialtasunagatiko botoak azkentzeari bide eman zein ez.

4. Sozietateak luzamendurik gabe eman beharko dio erregistro-liburu honetan jasotako informazioa hala eskatzen duen zernahi akzioduni.

5. Erregistro-liburu berezian inskribatutako akziodunak noiznahi komunikatu ahalko dio sozietateari erabat edo partzialki uko egiten diola berari legokiokeen boto bikoitzari. Kasu horretan, sozietateak aldatu edo ezereztu egingo du kasuan kasuko inskripzioa, eta ekintza horrek jakinarazten den datatik aurrera izango ditu ondorioak.

6. Artikulu honetan deskribatutako akziodun pribilegiatuen datu pertsonalen tratamenduei aplikatzekoak izango zaizkie (EB) 2016/679 Erregelamendua eta, oro har, datu pertsonalak babesteko araudia, betiere 497.3 artikuluan ezarritako moduan eta baldintzetan.

7. Estatutuen bidez, dagokion akzio kopuruaren titulartasun etengabea sozietatearen aurrean egiaztatzeko modua garatu ahalko da, baita artikulu honetan aurreikusitako leialtasunagatiko botoak gutxitzeko eta haiei uko egiteko komunikazioak egiteko modua ere.

8. Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko Ministerioaren titularraren agindu baten bidez edo Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren zirkular baten bidez –baldin eta aipatutako ministerioaren titularraren gaikuntza badu–, artikulu honetan aipatzen den erregistro-liburu osagarriari buruzko beste alderdi tekniko eta formal batzuk zehaztu ahalko dira.

527 octies artikulua. *Leialtasunagatiko boto bikoitza, merkatu arautu batean negoziatzeko onartzea eskatzen duten sozietateetan.*

1. Beren akzioak merkatu arautu batean negoziatzeko onartzea eskatzen duten sozietateek estatutu sozialetan aurreikusi ahalko dute leialtasunagatiko boto bikoitza esleitzea, 527 quater artikuluko eraketa- eta bozketa-gehiengoekin hartutako

erabaki baten bidez, eta aurreikuspen horrek sozietatearen akzioak kotizatzeke onartzen diren egunetik aurrera izango ditu ondorioak; erabaki hori hartzeaz batera, boto bikoitza duten akzioen erregistro-liburu berezia sortuko dute sozietateek.

2. Etenik gabeko bi urtez gutxienez akzioen titular izan direla egiaztatzen duten akziodunak aipatutako erregistro-liburu berezian inskribatu ahalko dira, kotizatzeke onartzeko data baino lehen. Kasu horretan, erregistro-liburu berezian inskribatuta ageri diren akziodunek boto bikoitza izango dute inskripzioak aipatzen dituen akzioei dagokienez, akzioak negoziatzeko onartzen diren egunetik aurrera.

3. Aurreko bi apartatuetan ezarritakoaren arabera boto bikoitza esleitu zaienez bestelako akzioei leialtasunagatikoto boto bikoitza esleitzeko, beharrezkoa izango da alde aurretik erregistro-liburu berezian inskribatzea eta inskripzio-datatik gutxienez bi urteko titulartasun-aldia igarotzea, 527 septies artikulua 2. apartatuan ezarritakoarekin bat.

527 nonies artikulua. *Leialtasun-aldia zenbatzea eta egiaztatzea.*

1. Erregistro-liburu berezian inskribatzeko eskaerarekin batera, akzioen titulartasuna egiaztatzen duen ziurtagiri bat aurkeztu beharko da, kontuko idatzoharrak erregistratzeaz arduratzen den entitateak emana.

2. Batzar nagusiaren bilera egin aurretik eta legitimazio aurreratuko epea amaitu baino lehen, boto bikoitza duten akzioen erregistro berezian inskribatutako akziodunak egiaztatu beharko du boto bikoitza duten zenbat akzioen gainean duen titulartasuna, inskripzioa egiten den egunetik aurrera gutxienez bi urtez jarraian. Hori egiaztatzeke, ziurtagiri bat aurkeztu beharko da, kontuko idatzoharren erregistro-liburuaz arduratzen den entitateak propio egindakoa.

3. Sozietate kotizatuek, baldin eta boto bikoitza esleitzea aurreikusten badute beren estatutuetan, unean-unean dauden boto bikoitzeko akzioen kopuruari buruzko informazio eguneratua jaso beharko dute beren web-orrian, eta adierazi beharko dute, orobat, zenbat akzio dauden inskribatuta baina estatutuetan ezarritako leialtasun-aldia betetzeko zain.

4. Sozietate kotizatuek, estatutuetan boto bikoitza esleitzea aurreikusten badute, jakinaren gainean ipini beharko dute Balore Merkatuaren Batzorde Nazionala unean-unean dauden boto bikoitzeko akzioen kopuruari buruz, eta jakinarazi beharko diote, halaber, zenbat akzio dauden inskribatuta baina estatutuetan ezarritako leialtasun-aldia betetzeko zain. Informazio hori bidaltzeke baldintzak Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko Ministerioaren titularrak ezarri ahalko ditu, baita Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak ere, baldin eta aipatutako ministerioaren titularraren gaikuntza badu.

527 decies artikulua. *Boto bikoitza duen akziodun batek akzioak eskualdatzea.*

1. Akziodunak boto bikoitza duten bere akzio guztiak edo batzuk zuzenean nahiz zeharka lagatzearen edo eskualdatzearen ondorioz azkenduko da leialtasunagatikoto boto bikoitza, lagapenaren edo eskualdatzearen datatik aurrera, baita akzioak doan laga edo eskualdatu baditu ere.

2. Nolanahi ere, estatutuetan kontrakorik xedatu ezean, boto bikoitza duten akzioak eskuratzen dituenak ere baliatu ahalko du leialtasunagatikoto boto bikoitza, baldin eta arrazoi hauetakoren batengatik eskuordetzen badira akzioak eta betiere sozietatearen aurrean egiaztatzen bada xehetasun hori:

a) Mortis causa ondorengotza; edo akzioak ezkontideari esleitzea irabazpidezko sozietatea edo ondasun-erkidegoa desegiten direnean, edo bestelako ezkontza-erkidegoa desegiten bada, hala nola ezkontideen, antzeko afektibitate-harremanaren bidez lotutako pertsonen edo aurrekoen eta ondorengoen arteko dohaintza, salbu eta kontrol-akziodunen kasuan, zeinean estatutuetan zehazturiko baldintzetan bozkatuko baita boto bikoitza duen akziodunaren izaera.

b) Merkataritza Sozietateen Egitura Aldaketei buruzko apirilaren 3ko 3/2009 Legean aurreikusitako egiturazko edozein aldaketa, izan boto bikoitzeko akzioen titular den akziodun-sozietateari buruzkoa, izan leialtasun-akzioak jaulki dituen sozietateari buruzkoa, baldin eta, azken kasu horretan, egitura-aldaketaren ondoriozko sozietateak boto bikoitzeko akzioak aurreikusten baditu estatutuetan.

c) Talde bereko sozietateen arteko eskualdaketa.

3. Leialtasunagatiko boto gehigarriak automatikoki ekarriko die onura kapital-gehikuntzek eraginda doan esleituriko akzioei, jada jabetzan eskuratu diren eta leialtasunagatiko botoa duten akzioei dagokienez.

527 undecies artikulua. *Akzioen azken onuraduna, akziodunaz bestelakoa.*

1. Baldin eta akzioen azken onuradunik bada 497 bis artikuluan aurreikusitakoaren arabera, 527 ter artikuluan aipatzen den aldiko titulartasun jarraitua azken onuradunari dagokionez bakarrik egiaztatu beharko da.

2. Leialtasunagatiko boto bikoitza akzioen azken onuradunaren edozein aldaketaren ondorioz azkenduko da, 527 decies artikuluko kasuetan izan ezik».

Hogeita bat. 529 bis artikulua 1. apartatua aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«1. Hamabigarren xedapen gehigarrian aurreikusitakoa eragotzi gabe, administrazio-kontseilu batek administratu beharko ditu sozietate kotizatuak, eta pertsona fisikoek soilik osatuko dute kontseilu hura».

Hogeita bi. 529 ter artikulua 1. apartatuko h) letra aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«h) Eragiketa lotuak onartzea, XIV. tituluaren VII bis kapituluaren aurreikusitako kasu eta baldintzetan».

Hogeita hiru. 529 decies artikulua 7. apartatua kentzen da.

Hogeita lau. 529 quaterdecies artikulua 4. apartatuko g) letra aldatzen da, eta h) letra eransten zaio apartatu horri. Honela geratzen dira idatzita:

«g) Batzar nagusiak edo administrazio-kontseiluak onartu behar dituen eragiketa lotuei buruzko informazioa ematea, eta konpainiak eskuordetutako eragiketarako ezarrita daukan barne-prozedura gainbegiratzea.

h) Administrazio-kontseiluari aldez aurretik ematea legean, estatutu sozialetan eta kontseiluaren erregelamenduan aurreikusitako gai guztien berri, eta, bereziki, hauen berri:

1.a Finantza-informazioa eta kudeaketa-txostena, sozietateak aldi behin argitaratu behar duen nahitaezko informazio ez-finantzarioa barne, kasuak hala eskatzen duenean; eta

2.a Xede bereziko entitateetan edo paradisu fiskaltzat hartzen diren herrialde edo lurraldeetan egoitza daukaten entitateetan partaidetzak sortzea edo erostea.

Auditoretza-batzordeak ez ditu beteko letra honetan edo aurrekoan aurreikusitako eginkizunak, baldin eta estatutuen arabera beste batzorde bati esleitu bazaizkio eta batzorde horrek betetzen baditu artikulua honen 1. apartatuan aurreikusitako osaera-baldintzak».

Hogeita bost. 529 sexdeciesetik 529 novodeciesera bitarteko artikulua honela geratzen dira idatzita:

«529 sexdecies artikulua. *Izaera ordaindua.*

Estatutuetan kontrakoa adierazi ezean, ordaindua izango da sozietate kotizatu bateko kontseilari-kargua.

529 septdecies artikulua. *Kontseilarietako kontseilari izateagatik dagokien ordainsaria.*

1. Kontseilarietako kide anitzeko organoko zein haren batzordeetako kide gisa kontseilari-lanetan aritzen direnean bete behar dituzten eginkizunengatik ordainsariak bat etorri beharko du estatutuetan aurreikusitako ordainsari-sistemarekin, 217. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta bete beharko du, orobat, 529 novodecies artikuluekin bat onetsitako ordainsari-politika.

2. Ordainsari-politikak, gutxienez, kontseilari guztietako eginkizun horregatik ordaindu beharreko urteko ordainsariaren gehieneko zenbatekoa ezarriko du, baita kopuruok banatzeko irizpideak ere, kontseilari bakoitzari esleitutako eginkizunen eta erantzukizunen arabera.

3. Administrazio-kontseiluak finkatuko du zer ordainsari jasoko duen kontseilari bakoitzak kontseilari-lanagatik, betiere estatutu-esparruaren eta ordainsari-politikaren barruan; horren aurretik, izendapenen eta ordainsariaren batzordeak txostena egingo du.

529 octodecies artikulua. *Kontseilarietako eginkizun exekutiboak betetzeagatik dagokien ordainsaria.*

1. Kontseilari delegatuen eginkizun exekutiboengatik ordainsariak nahitaez jarraitu beharko dio estatutuetan zehazturikoari, eta, horrez gain, kasu guztietan bete beharko ditu 529 novodecies artikuluen arabera onetsitako ordainsari-politika eta 249. artikuluen arabera onetsitako kontratuak; beste horrenbeste gertatuko da bestelako kontseilari batzuen ordainsariekin ere, baldin eta tasun horretako eginkizunak esleitzen bazaizkie beste titulu batzuen arabera.

2. Ordainsari-politikan, kontseilarietako beren eginkizun exekutiboak betetzeagatik zer urteko ordainsari finko dagokien zehaztuko da, gutxienez, bai eta hurrengo artikuluan aipatzen diren gainerako aurreikuspenak ere.

3. Administrazio-kontseiluak finkatuko du zer ordainsari jasoko duen kontseilari bakoitzak esleituta dauzkan eginkizun exekutiboak betetzeagatik, betiere estatutu-esparruaren eta ordainsari-politikaren barruan; horren aurretik, izendapenen eta ordainsariaren batzordeak txostena egingo du.

529 novodecies artikulua. *Kontseilarietako ordainsari-politika onestea.*

1. Kontseilarietako ordainsari-politikak estatutuetan aurreikusitako ordainsari-sistemara egokitu beharko du. Akziodunen batzar nagusiak onartuko du, gaitzerrondatik bereizitako puntu gisa, eta gehienez ere hiru ekitalditan izango da aplikatzeko. Hala eta guztiz ere, akziodunen batzar nagusiaren esku utzi beharko dira kontseilarietako ordainsari-politika berrien proposamenak, aurreko politika aplikatzeko azken ekitaldia amaitu baino lehen, eta batzar nagusiak erabaki ahalko du onarpen-datatik bertatik aurrera eta hurrengo hiru ekitalditan aplikatzea politika berria. Epe horretan zernahi aldaketa edo ordezkapen egiteko, akziodunen batzar nagusiaren alde aurreko onespina beharko da, ordainsari-politika onartzeko prozedurari jarraituz.

2. Ordainsari-politika, bozketaren datarekin eta emaitzarekin batera, doan egongo da eskuragarri sozietatearen web-orrian, onartzen denetik aurrera, eta, gutxienez, aplikatzen den aldian.

3. Ordainsari-politikak baldintza hauek bete beharko ditu:

a) Enpresa-estrategiari ez ezik, gizartearen epe luzeko interesei eta jasangarritasunari ere lagundu beharko die, eta horietan nola laguntzen duen ere azaldu beharko du.

b) Argia eta ulergarria izango da, eta ordainsari finkoaren eta aldakorraren osagaiak deskribatuko ditu, barnean harturik kontseilarietara eman dakizkiekeen hobari eta bestelako prestazio guztiak, horien proportzio erlatiboa adierazita.

c) Azalduko du zer-nola hartu diren kontuan sozietateko langileen ordainsari-eta enplegu-baldintzak ordainsari-politika ezartzerakoan.

d) Sozietate batek ordainsari aldakorra ematen duenean, ordainsari-politikak irizpide argiak, osoak eta askotarikoak ezarriko ditu halakoak emateari dagokionez, eta etekin finantzarioaren eta ez-finantzarioaren irizpideak adieraziko ditu, baita enpresen erantzukizun sozialari buruzkoak ere, kasuak hala eskatzen badu; ildo horretan, azalduko du nola laguntzen duten a) letran ezarritako helburuak lortzen, eta zer metodo aplikatu behar diren errendimendu-irizpideak zer neurritan bete diren zehazteko.

e) Geroratze-aldi guztietan buruzko informazioa emango du, bai eta sozietateak ordainsari aldakorra itzultzeko eskatu ahal izateari buruzkoa ere.

f) Sozietateak akzioetan oinarritutako ordainsaria ematen duenean, ordainsari-politikak sortzapen-aldiak zehaztuko ditu, bai eta, hala badagokio, akzioen atxikipena ere kontsolidazioaren ondoren; politika horrek azalduko du, halaber, nola laguntzen duen aipatutako ordainsariak a) letran ezarritako helburuak lortzen.

g) Adieraziko du zenbat irauten duten kontseilarietara egindako kontratuek edo akordioek, zer aurreabisu-epe aplikatu behar diren, zer ezaugarri nagusi dituzten pentsio osagarriaren edo erretiro aurreratuaren sistemek, eta zein diren azkentzeko baldintzak eta zer ordainketa egin behar diren azkentzeari lotuta.

h) Azalduko du zer prozesuri jarraitu zaion erabakiak zehazteko, berrikusteko eta aplikatzeko, barnean hartuta interes-gatazkak saihesteko edo kudeatzeko neurriak, eta, kasuak hala eskatzen badu, izendapen- eta ordainsari-batzordeak eta esku hartu duten gainerako batzordeek zer eginkizun duten ere bai.

i) Politika berrikusiz gero, aldaketa esanguratsu guztiak deskribatu eta azalduko dira, eta zehaztuko da nola hartu diren kontuan eginiko bozketak eta zein izan diren akziodunek helarazitako ikuspegiak kontseilarien ordainsarien politikari eta urteko txostenei buruz, akziodunen batzar nagusian ordainsari-politikaren gainean egin den azkeneko bozketaz geroztik.

4. Administrazio-kontseiluaren ordainsari-politikaren proposamena arrazoituta egongo da, eta, harekin batera, izendapen- eta ordainsari-batzordeak egindako txosten espezifiko bat aurkeztuko da. Bi agiri horiek akziodunen eskura jarriko dira sozietatearen web-orrian, batzar nagusiaren deialdia egiten denetik, eta akziodunek agiri horiek doan entregatu edo bidaltzeko eskatu ahaliko dute. Batzar orokorraren deialdiaren iragarpenean aipamena egingo zaio akziodunen eskubide horri.

5. Kontseilarietara kargua betetzeagatik edo amaitzeagatik eta eginkizun exekutiboak betetzeagatik jasotzen duten ordainsari oro bat etorriko da indarrean dagoen unean uneko kontseilarien ordainsari-politikarekin, akziodunen batzar nagusiak berriaz onartutako ordainsariak izan ezik.

6. Sozietateek aldi baterako salbuespenak aplikatu ahaliko dizkiote ordainsari-politikari, baldin eta politika horretan jasota badago zein den erabili beharreko prozedura eta zein baldintzatan balia daitezkeen salbuespen horiek, eta betiere zehazten bada politikaren zer osagai izan daitezkeen salbuespen.

Apartatu honetan aipatutako salbuespenezko inguruabarrak egoera hauetan baino ez dira aplikatuko: ordainsari-politikaren salbuespena beharrezkoa denean sozietatearen epe luzeko interesei eta iraunkortasunari erantzuteko edo haren bideragarritasuna ziurtatzeko.

7. Artikulu honen 1. apartatuan ezarritakoa eragotzi gabe:

a) akziodunen batzar nagusiak atzera botatzen badu ordainsari-politika berri baten proposamena, sozietateak jarraituko du kontseilarietara batzar nagusia egiten den egunean indarrean dagoen ordainsari-politikaren arabera ordaintzen, eta

akziodunen hurrengo ohiko batzar nagusiak ordainsari-politikaren beste proposamen bat onartu beharko du; eta

b) ohiko batzar nagusiaren kontsulta-bozketan kontseilarien ordainsariei buruzko urteko txostena baztertzen bada, sozietateak hurrengo ohiko batzar nagusia egin arte bakarrik jarraitu ahalko du aplikatzen batzar nagusia egiten den egunean indarrean dagoen ordainsari-politika».

Hogeita sei. VII bis kapitulua eransten zaio XIV. tituluari. Kapitulu horrek 529 vicies eta 529 tervicies arteko artikulua jasotzen ditu, eta honela geratzen da idatzita:

«VII bis kapitulua

Eragiketa lotuak

529 vicies artikulua. *Eragiketa lotuen definizioa.*

1. Kapitulu honetan ezarritakoaren ondorioetarako, hauek hartuko dira eragiketa lotuztat: sozietateak edo haren mendeko sozietateek kontseilariekin, boto-eskubideen % 10 edo gehiago duten akziodunekin edo sozietatearen administrazio-kontseiluan ordezkatuta daudenekin egiten dituzten eragiketak, edo Nazioarteko Kontabilitate Arauak aplikatzeari buruzko 2002ko uztailaren 19ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1606/2002 (EE) Erregelamenduaren arabera onartutako Nazioarteko Kontabilitate Arauen arabera alderdi lotuztat hartu beharreko beste edozein pertsonarekin egiten dituztenak.

2. Aurreko apartatuan aurreikusitakoaren salbuespen gisa, ez dira hartuko eragiketa lotuztat:

a) Sozietatearen eta haren mendeko sozietate partaidetzapekoen artean egindako eragiketak –partaidetza zuzena edo zeharkakoa izan–, hargatik eragotzi gabe 231 bis artikuluan aurreikusitakoa.

b) Kontseiluak sozietatearen eta eginkizun exekutiboak izango dituen edozein kontseilariaren artean sinatu beharreko kontratuaren zehaztapenak eta baldintzak onartzea –kontseilari delegatua edo goi-zuzendariak ere barnean harturik–, bai eta kontseiluak kontratu horien arabera ordaindu beharreko zenbateko edo ordainsari zehatzak zehaztea ere, hargatik eragotzi gabe ukitutako kontseilariaren abstentzio-betebeharra, zeina 249.3 artikuluan aurreikusten baita.

c) Kreditu-erakundeek beren egonkortasuna babesteko neurrietan oinarrituta egiten dituzten eragiketak, Europar Batasuneko zuzenbidearen ildotik zuhurtziazko gainbegiratzeaz arduratzen den agintaritza eskudunak hartutakoak.

3. Era berean, ez dira hartuko alderdi lotuekin eginiko eragiketatzat sozietate batek mendeko edo partaidetzazko sozietateekin egiten dituenak, baldin eta sozietatearekin lotutako beste ezein alderdik ez badu interesik mendeko edo partaidetzazko sozietate horietan.

529 unvicies artikulua. *Eragiketa lotuen gaineko informazioa argitaratzea.*

1. Sozietateek jendaurrean iragarri beharko dituzte, egiten diren unean beranduenez, sozietate horrek edo bere taldeko sozietateek gauzatzen dituzten eragiketa lotuak, baldin eta balio hauek edo handiagoak lortzen badituzte:

- a) aktiboaren partida guztien ehuneko 5, edo
- b) urteko negozio-zifraren urteko zenbatekoaren ehuneko 2,5.

2. Iragarkia sozietatearen web-orrian erraz eskuratzeko moduko tokiren batean ipini beharko da, eta Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari jakinaraziko zaio, jendaurrean zabal dezan.

3. Iragarkiarekin batera, 529 duovicies.3 artikuluan aipatzen den auditoretza-batzordearen txostena aurkeztu beharko da, eta, gutxienez, informazio hau jaso beharko du:

- a) eragiketaren izaerari eta alderdi lotuarekiko harremanari buruzko informazioa;
- b) alderdi lotuaren identitatea;
- c) eragiketaren data eta kontraprestazioaren balioa edo zenbatekoa; eta
- d) sozietatearen eta alderdi lotuak ez diren akziodunen ikuspuntutik aipatutako informazioa bidezkoa eta arrazoizkoa den balioesteko behar den beste zernahi informazio.

4. Artikulu honetan aurreikusitakoak ez ditu eragotziko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 596/2014 (EB) Erregelamenduaren 17. artikuluan informazio pribilegiatuaren zabalkunde publikoari buruz ezarritako arauak.

529 duovicies artikulua. *Eragiketa lotuak onartzea.*

1. Akziodunen batzar nagusiarena da eragiketa lotuak onartzeko eskumena, baldin eta eragiketa horien zenbatekoa edo balioa aktiboaren partida guztien % 10 edo gehiago bada, sozietateak onetsitako urteko azken balantzearen arabera. Batzar nagusiak eragiketa lotu bati buruzko iritzia eman behar duenean, ukitutako akziodunak ez du izango boto-eskubiderik, salbu eta administrazio-kontseiluak erabaki-proposamena onartu badu eta onespren hori kontseilari independente gehienek aurkako botoz gabe izan bada. Hala ere, kasuak hala eskatzen badu, 190.3 artikuluan aurreikusitako frogatu beharraren karga inbertitzearen erregela aplikatuko da.

2. Administrazio-kontseiluak izango du gainerako eragiketa lotuak onartzeko eskumena, eta ezingo du eskuordetu. Ukituriko kontseilariak edo hura ordezkatzeko duenak edo ukituriko akziodunarekin loturik dagoenak ezingo du esku hartu dagokion erabakiaren deliberamendu eta bozketan, 228.c) artikuluan aurreikusitakoarekin bat. Hala ere, mendeko sozietate kotizatuaren administrazio-organoan sozietate nagusia ordezkatzeko duten edo hari lotuta dauden kontseilariak ez dira abstenitu beharko; nolahi ere, horrelakoetan, haien botoa funtsezkoa izan bada erabakia hartzeko, frogatu beharraren karga inbertitzearen erregela aplikatuko da, 190.3 artikuluan aurreikusitakoaren ildo beretik.

3. Batzordeak edo kontseiluak eragiketa lotu bat onar dezan, auditoretza-batzordeak txostena eman beharko du aurretiaz. Txosten horretan, batzordeak balioetsi beharko du eragiketa bidezkoa eta arrazoizkoa den, sozietatearen eta –hala badagokio– alderdi lotuaz bestelako akziodunen ikuspuntutik, eta adierazi beharko du zer premisatan oinarritu duen ebaluazioa eta zer metodo baliatu dituen horretarako. Ukituriko kontseilariak ezingo dute parte hartu txostena egiten.

4. Aurreko 2. eta 3. apartatuetan xedaturikoa gorabehera, administrazio-kontseiluak eragiketa lotu hauen onspena eskuordetu ahalko du:

- a) talde bereko kide diren sozietateen arteko eragiketak, betiere kudeaketa arruntaren esparruan eta merkatu-baldintzetan egiten badira;
- b) bezero kopuru handi bati denak batera aplikatzen zaizkien baldintza estandarizatuak dituzten kontratuen bidez hitzartzen diren eragiketak, kasuan kasuko ondasun edo zerbitzuaren hornitzaile gisa diharduenak oro har ezarritako prezio edo tarifetan egiten badira, eta zenbatekoak ez badu gainditzen sozietatearen negozio-zifren zenbateko garbiaren ehuneko 0,5.

Ez da beharko auditoretza-batzordearen aurretiazko txostenik 4. apartatu honetan aipatzen diren eragiketa lotuak onartzeko. Hala ere, administrazio-kontseiluak aldizkako informazio eta kontrolerako barne-prozedura bat ezarri beharko du eragiketa horiei lotuta. Prozedura horretan, auditoretza-batzordeak esku hartu beharko du, eta eragiketa horien ekitatea eta gardentasuna egiaztatuko ditu,

eta, hala badagokio, aurreko salbuespenei aplikatu beharreko lege-irizpideak betetzen direla ere egiaztatuko du.

529 tervicies artikulua. *Kalkulu-arauak.*

1. Azken hamabi hilabeteetan kontrako alderdi berarekin egindako eragiketa lotuak gehitu egingo dira, balio osoa zehazteko, lege honetan jasotako arau aplikagarrietan aurreikusitakoaren ondorioetarako.

2. Kapitulu honetan aktiboaren partida guztiak edo urteko negozio-zifra aipatzen direnean, azken urteko kontu bateratuetan jasotako balioei egindakotzat hartuko dira aipamenok, edo, halakorik ezean, batzar nagusiak onartu dituen sozietate kotizatuaren urteko azken kontu indibidualei egindakotzat».

Hogeita zazpi. Honela geratzen da idatzita 538. artikulua:

«538. artikulua. *Gobernu korporatiboaren txostena eta ordainsarien txostena kudeaketa-txostenean sartzea.*

Sozietateak baloreak jaulki dituenen eta balore horiek kotizatzeko onartu direnean Europar Batasuneko edozein estatu kidetako merkatu arautuan, sozietate horrek gobernu korporatiboaren txostena sartu behar du kudeaketa-txostenean, atal bereizi batean. Harekin batera, sozietate kotizatu anonimoei kontseilarien ordainsariei buruzko urteko txostena ere jaso beharko dute».

Hogeita zortzi. 540. artikulua 4. apartatuko c) letran, 3. eta 4. paragrafoak eransten dira, eta jarraian ageri den bezala geratzen dira idatzita. Halaber, paragrafo batzuk berriro zenbakitzen dira: 3. paragrafoa 5.a izango da aurrerantzean; 4. paragrafoa 6.a izango da; 5. paragrafoa 7.a izango da; eta 6. paragrafoa, 8.a.

«3. Sozietatearen administrazio-kontseiluko kide diren kontseilariak edo haien ordezkariak beste entitate batzuetan betetzen dituzten kontseilari, administratzaile edo zuzendari karguen edo figura horien ordezkari karguen xehetasunak, izan sozietate horiek kotizatuak edo ez.

4. Sozietatearen administrazio-kontseiluko kide diren kontseilariak edo haien ordezkariak egiten dituzten aurreko apartatuan aipatutakoez bestelako jarduera ordainduei buruzko informazioa, edozein izanik ere jarduera horien izaera».

Hogeita bederatzia. Honela geratzen da idatzita 541. artikulua:

«541. artikulua. *Kontseilarien ordainsariei buruzko urteko txostena.*

1. Sozietate kotizatu anonimotako administrazio-kontseiluak kontseilarien ordainsariei buruzko txostena egin eta argitaratu beharko du urtero; bertan, kontseilari izateagatik jasotzen dituzten edo jaso behar dituzten ordainsariak zehaztuko dira, bai eta, hala dagokionean, eginkizun exekutiboak betetzeagatik jasotzen dituztenak edo jaso behar dituztenak ere.

2. Kontseilarien ordainsariei buruzko urteko txostenak uneko ekitaldian aplikatzekoa den kontseilarien ordainsari-politikari buruzko informazio oso, argi eta ulergarria jaso beharko du. Era berean, ordainsarien politika itxitako ekitaldian nola aplikatu zen azaltzen duen laburpen globala bilduko du, baita aipatutako ekitaldian kontseilarietako bakoitzak kontzeptu guztiengatik sorrarazitako banakako ordainsariei buruzko zehaztasunak ere.

3. Sozietateak beste informazio garrantzitsu bat bezala zabalduko du kontseilarien ordainsariei buruzko urteko txostena, gobernu korporatiboaren urteko txostenarekin batera, eta doan eskuratzeko moduan egongo da, gutxienez hamar urtez, bai sozietatearen web-orrian, bai Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalarenean. Sozietateak eta Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak luzarago eduki ahalko dute txostena jendearen eskura, eta hala egin beharko dute

Europar Batasunaren legegintza-egintza sektorial batek hartarako denbora-tarte luzeagoa ezartzen duenean. Bi kasuetan, txosten horrek ezingo du eduki administratzaileen datu pertsonalik.

4. Kontseilarien ordainsariei buruzko urteko txostena bozkatu egingo da, akziodunen ohiko batzar nagusiko gai-zerrendatik bereizitako puntu gisa, eta bozketak kontsulta-izaera izango du.

5. Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko Ministerioaren titularrak edo Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak –baldin eta aipatutako ministerioaren titularraren berariazko gaikuntza badu– kontseilarien ordainsariei buruzko urteko txostenaren edukia eta egitura zehaztuko ditu, eta ordainsari-batzordeak zer eginkizun izan duen azalduko du, eginkizunik izan badu.

Eduki horretan, administratzaile bakoitzaren ordainsariari buruzko informazio hau sartuko da, aplikatzekoa denean:

a) ekitaldian sorturiko ordainsari osoa, osagaien arabera banakatuta; ordainsari finko eta aldakorren proportzio erlatiboa; zer-nola betetzen duen sortutako ordainsari osoak aplikatu beharreko eta alde zurretik onartutako ordainsari-politika, eta, bereziki, nola laguntzen dion sozietatearen errendimendu iraunkorrari eta epe luzeakoa; eta nola aplikatu diren errendimendu-irizpideak;

b) sortutako urteko zenbateko osoa eta kategoria hauetan urtean izandako aldakuntza: kontseilariaren ordainsaria, sozietatearen errendimendua eta batez besteko ordainsaria, gutxienez azken bost ekitaldietan administratzaileez bestelako langileek lanaldi osoaren oinarri baliokidearen gainean kalkulaturik (aipatutako datuak batera aurkeztuko dira, konparazioak egin ahal izateko);

c) talde bereko edozein enpresatetik datorren ordainsari oro;

d) emandako edo eskaintako akzioen eta akzioen gaineko aukeren kopurua, edo akzioen balioa erreferentziatzat duen beste edozein finantza-tresnarena; eskubideak baliatzeko baldintza nagusiak, barnean harturik prezioa eta eskubideak baliatu diren data; eta baldintzen aldaketa oro.

e) ordainsari aldakorra itzultzea eskatzeko aukera baliatzeari buruzko informazioa; eta

f) 529 novodecies.2 artikuluan aipatzen den ordainsari-politika aplikatzeko prozeduraren desbideratze orori eta 529 novodecies.5 artikuluan arabera aplikatzen den salbuespen orori buruzko informazioa, barnean harturik salbuespenezko inguruabarren berri ematea eta salbuespena zer osagai espezifikorik aplikatzen zaien adieraztea.

6. Ordainsariei buruzko txostenean ez da jasoko, administratzaile bakoitzari dagokionez, datu pertsonalen kategoria berezirik (EB) 2016/679 Erregelamenduaren 9.1 artikuluan zentzuan, ezta haren familia-egoerari buruzko datu pertsonalik ere. Sorrarazitako ordainsarien guztizko zenbatekoaren barruan sar daitezke kontzeptu horiei dagozkien zenbatekoak, baina babes berezia duten datu pertsonal horiek ezagutaraz ditzaketen ordainsari-kontzeptu espezifikoak ez dira banakatuko.

Administratzaileen datu pertsonalak ordainsariei buruzko txostenean sartuko dira, sozietateen gardentasuna areagotzeko administratzaileen ordainsariei dagokienez, eta, hala, administratzaileen kontu-ematea ez ezik, akziodunek ordainsari horri buruz egiten duten gainbegiratzea ere indartuko da; datuon tratamendua erabat egokituko da datu pertsonalak babesteko araudian ezarritakora, eta ezingo dira baliatu hemen ezarritakoaz bestelako zernahi xedetarako.

Sozietateek apartatu honetan aipatzen den txostena argitaratu eta hamar urtera utziko diote txosten horretan jasotako administratzaileen datu pertsonalak jendaurrean ipintzeari».

Hogeita hamar. Honela geratzen da idatzita zazpigarren xedapen gehigarria:

«Zazpigarren xedapen gehigarria. *Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren gainbegiratze-eskumenak.*

1. XIV. tituluaren 497., 497 bis, 512., 513., 514., 515., 516., 517., 520 bis, 520 ter, 522 bis, 524 bis, 524 ter, 525.2, 526., 527 bis.2, 527 septies, 528., 529., 529 quaterdecies, 529 quindecies, 529 unvicies, 530., 531., 532., 533., 534., 538., 539., 540. eta 541. artikuluetan jasotako xedapenak baloreen merkatuko antolamendu-eta diziplina-arauen parte dira. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari dagokio horiek gainbegiratzea, halaxe xedatzen baitu urriaren 23ko 4/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onetsiriko Balore Merkatuen Legearen VIII. tituluak.

Urriaren 23ko 4/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Balore Merkatuaren Legearen testu bateginaren VIII. tituluaren xedatutakoari jarraikiz, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak izango du eskumena aurreko paragrafoan adierazitako artikuluetan finkatutako betebeharrak ez betetzeak ekar ditzakeen zehapen-espedienteak abiarazteko eta bideratzeko».

Hogeita hamaika. Bederatzigarren xedapen gehigarria honela geratzen da idatzita:

«Bederatzigarren xedapen gehigarria. *Administrazio-kontseiluko batzordeak.*

Merkatu arautuetan negoziatzeko onartutako akzioez bestelako baloreak jaulkitzen dituzten kapital-sozietateei ere aplikatuko zaie hurrenez hurren 529 terdecies, 529 quaterdecies eta 529 quindecies artikuluetan jasota dauden administrazio-kontseiluko batzordeen, auditoretza-batzordearen eta ordainsari- eta izendapen-batzordearen araubideak. Hala ere, baloreak jaulkitzen dituzten kapital-sozietateak ez daude behartuta izendapen- eta ordainsari-batzordea eratzera, baldin eta aplikatu beharreko araudiaren arabera auditoretza-batzordea eratzetik salbuetsita badaude».

Hogeita hamabi. Hamabigarrenetik hamabosgarrenera arteko xedapen gehigarriak eransten dira, eta honela geratzen dira idatzita:

«Hamabigarren xedapen gehigarria. *Sektore publikoa osatzen duten entitateen berezitasunak.*

1. 529 bis.1 artikuluan xedatutakoaren salbuespen gisa, administrazio-kontseiluko kide izan daitezke, sektore publikokoak izanik, kapital sozialaren zati baten ordezkari gisa administrazio-kontseiluan sartzen diren pertsona juridikoak. Kontseilari horien ordezkari izendatzen diren pertsona fisikoei 529 decies artikuluan xedatutakoa aplikatuko zaie. Pertsona fisikoa den ordezkariaren proposamenak izendapen- eta ordainsari-batzordearen txostena beharko du.

2. 529 tervicies artikuluekin bat etorriz, Estatuko merkataritza-sozietate kotizatuek alderdi lotu berarekin egindako eragiketak gehitzeko, alderdi lotu beratzat hartuko da sektore publikoa osatzen duten administrazio, entitate eta enteetako bakoitza, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 2. artikuluen arabera.

3. Sektore publikoa osatzen duten entitateek, kontratazioari buruzko araudi publikoaren arabera publikotasunez eta konkurrentziaz egindako adjudikazio-prozedura baten ondoren, alderdi lotutzat hartutako adjudikaziodun batekin merkatuko baldintza normaletan egiten dituzten eragiketak ez dira egongo Kapital Sozietateen Legearen 529 unvicies eta 529 duovicies artikuluetan ezarritako alderdi lotuekin egindako eragiketen publizitate- eta onarpen-araubidearen mende.

Hamahirugarren xedapen gehigarria. *Negoiazio-sistema aldeaniztunetan negoziatzeko onartutako akzioak dituzten sozietate anonimoak.*

Negoiazio-sistema aldeaniztunetan negoziatzeko onartutako akzioak dituzten sozietate anonimoen lege honen XIV. tituluko II., III., IV. eta V. kapituluetan jasotako arauak aplikatuko zaizkie.

Hamalagarren xedapen gehigarria. *Sozietateak merkatu arautuetan edo negoiazio-sistema aldeaniztunetan kotizatu aurretik harpidetzeko eskaintza duten kapital-gehikuntzak.*

Lege honen XIV. tituluko III. kapitulan jasotako arauak hainbat inbertitzailei eskaintako kapital-gehikuntzei aplikatuko zaizkie, baldin eta horien helburua bada sozietatearen akzioen hedapena handitzea akzio horiek araututako merkatuetan negoziatzeko onartu edo negoiazio-sistema aldeaniztunetan sartu aurretik. Arrazoizko balioari buruzko aipamenak harpidetza-eskaintzan finkatutako prezioari egindakotzat hartuko dira, salbu eta, harpidedun kopuru txikiagatik edo beste inguruabar batzuegatik, ez badago justifikatuta uste izatea prezio hori bat datorrela merkatuko balioarekin.

Hamabosgarren xedapen gehigarria. *Kreditu-erakundeei aplika dakiekeen muga, baldin eta obligazio bihurtgarriak jaulkitzen direnean lehentasunezko harpidetza-eskubidea baztertzeko ahalmena eskuordetzen bada.*

Baimena emateko unean kapital soziala osatzen duten akzioen kopuruaren ehuneko hogeita bosteko muga, 511. artikuluan aurreikusitakoa, ez zaie aplikatuko kreditu-erakundeek egiten dituzten obligazio bihurtgarrien jaulkipenei, baldin eta jaulkipen horiek betetzen badituzte Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 575/2013 (EB) Erregelamenduaren Bigarren Zatikoko I. tituluaren 3. kapituluako 1. atalean aurreikusitako baldintzak [Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 575/2013 (EB) Erregelamendua, 2013ko ekainaren 26koa, Kreditu-erakundeen eta inbertsio-zerbitzuetako enpresen zuhurtziazko betekizunei buruzkoa, 648/2012 (EB) Erregelamendua aldatzen duena jaulkitako obligazio bihurtgarriak kreditu-entitate jaulkitzailearen 1. mailako kapital-tresna gehigarritzat jo ahal izateko]».

Laugarren artikulua.

Arrisku-kapitaleko erakundeak, inbertsio kolektiboko bestelako erakunde itxiak eta inbertsio kolektiboko erakunde itxien erakunde kudeatzaileak arautzen dituen eta azaroaren 4ko 35/2003 Legea –Inbertsio Kolektiboko Erakundeena– aldatzen duen azaroaren 12ko 22/2014 Legean, bi artikuluko berri eransten dira, 67 bis eta 67 ter. Honela geratzen dira idatzita:

«67 bis artikulua. *Inplikazio-politika.*

1. IKESKek inplikazio-politika bat garatuko eta jendaurrean ipiniko dute; han deskribatuko da nola integratzen duten akziodunen inplikazioa beren inbertsio-politikan AKE-en edo IKIE-en kontura kudeatutako inbertsioen kasuan, estatu kide batean dagoen edo bertan jarduten duen merkatu arautu batean negoziatzeko onartutako akzioetan. Politika horrek deskribatuko du nola egiten den inbertsioen xede diren sozietateen jarraipena, zenbait alorrekin loturik, hala nola estrategia, errendimendu finantzario eta ez-finantzarioa eta arriskuak, kapitalaren egitura, gizarte- eta ingurumen-inpaktua eta gobernu korporatiboa. Politika horrek azalduko du, orobat, nola garatzen diren elkarrizketak inbertsioen xede diren sozietateekin, zer-nola egikaritzen diren boto-eskubidea eta akzioekin lotutako beste eskubide batzuk, zer-nola jarduten duten lankidetzan beste akziodun batzuekin, nola komunikatzen diren esku-hartzeen xede diren sozietateetako interes-talde

garrantzitsuenekin, eta, halaber, nola kudeatzen dituzten beren inplikazioari lotutako interes-gatazka errealak eta potentzialak.

2. Sozietate kudeatzaileek urtero argitaratuko dute nola aplikatu duten beren inplikazio-politika, barnean harturik boto-eskubideei dagokienez duten jokabidearen deskribapen orokorra, bozketa garrantzitsuenen azalpena eta, hala badagokio, boto-aholkularien zerbitzuetara jotzeko aukerarena.

3. Sozietate kudeatzaileek publiko egingo dute beren botoa akzioak dituzten sozietateetako batzar nagusietan. Publiko egin gabe utz daitezke bozketaren xedeari edo sozietateko partaidetzaren pisuari erreparatuta hutsalak diren botoak.

4. 1., 2. eta 3. apartatueta aipatutako informazioa sozietate kudeatzailearen web-orrian egongo da eskuragarri, jendaurrean eta doan.

5. Inplikazio-jarduerei ere aplikatuko zaizkie 59.1.d) artikuluan araututako interes-gatazkei buruzko betebeharrak.

6. Sozietate kudeatzaileek erabakitzen badute aurreko apartatueta araututako betebeharrak bat edo batzuk ez betetzea, azalpen argi eta arrazoitua argitaratu beharko da horretarako arrazoiei buruz.

67 ter artikulua. *IKESKaren informazio-betebeharrak, aseguru-erakundearen aktiboak edo pentsio-plan eta -funtzak kudeatzeko zerbitzuak ematen dituenen.*

1. Aseguru-erakundearen edo enpleguko pentsio-plan eta -funtzen izenean estatu kide batean dagoen edo bertan jarduten duen merkatu arautu batean negoziatzeko onartutako akzioetan inbertitzen duten IKESKek urtero jakinaraziko diete erakunde aseguratzaileei edo aktiboak kudeatzeko akordioak egin dituzten enpleguko pentsio-plan eta -funtsei nola egokitzen den beren inbertsio-estrategia eta haren aplikazioa aipatutako akordioa, eta zer-nola laguntzen dioten erakunde edo pentsio-plan eta -funtz horietako aktiboaren epe ertain eta luzeko errendimenduari. Ez da horren berri eman beharrik izango informazio hori jendearen eskura dagoenean edo IKESKek egin beharreko urteko txostenean jasota dagoenean. Horrelakoetan, adierazi beharko dute non dagoen jasota informazio hori.

2. Horrez gain, IKESKek informazioa emango dute inbertsioei lotutako epe ertain eta luzeko arrisku nagusiei buruz, zorroaren osaerari buruz, txandakatzeari eta txandakatze-kostuei buruz, inplikazio-jardueretarako boto-aholkulariak erabiltzeari buruz, baloreak mailegatzeko IKESKen politikari buruz (hala badagokio, jakinaraziko dute politika hori zer-nola aplikatzen den IKESKen inplikazio-jarduerak betetzeko, bereziki inbertsioen xede diren sozietateen batzar nagusian).

3. Era berean, alderdi hauei buruzko informazioa emango dute:

a) inbertsioen xede diren sozietateen epe ertain eta luzeko errendimenduaren ebaluazioan oinarritutako inbertsioei buruzko erabakiak hartu dituzten, errendimendu ez-finantzarioa barne, eta, kasu horretan, nola hartu dituzten erabaki horiek, eta

b) inplikazio-jarduerei lotuta interes-gatazkarik izan den eta, hala bada, zer gatazka izan diren eta zer-nola konpondu dituzten».

Bosgarren artikulua.

Kontu Auditoretzaren uztailaren 20ko 22/2015 Legea aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

Bat. Honela geratzen da idatzita 5.1 artikulua f) letra:

«f) Auditorearen iritzia, kudeaketa-txostena ekitaldi berari dagozkion kontuekin bat datorren edo ez dioena, urteko kontuekin batera aipatutako kudeaketa-txostena dagoenean. Era berean, aipatutako kudeaketa-txostenaren edukia eta aurkezpena aplikatzeko den arautegiak eskatzen duenarekin bat datozen edo ez dioten iritzia ere jasoko da, eta, kasua hala denean, gai horren inguruan hautemandako oker materialak adieraziko dira.

Alabaina, kasu hauetan ez da aplikatuko aurreko paragrafoan xedaturikoa:

1.a Merkataritza Kodearen 49.5 artikulua aipagai dituen sozietateen kontu bateratuen auditoretzen kasuan eta Kapital Sozietateen Legearen testu bateginaren 262.5 artikulua aipagai dituen sozietateen banakako urteko kontuen auditoretzen kasuan, artikulua horietan aipatutako informazio ez-finantzarioaren egoera-orriari dagokionez, edo, kasua bada, kudeaketa-txostenaren ekitaldi bereko txosten bereziari dagokionez, zeinean jasorik egongo baita Merkataritza Kodearen 49.6 artikuluan egoera-orri horretarako eskatzen den informazioa, artikulua bereko 7. apartatuan ezarritakoarekin bat etorritik.

Bi kasuetan ere, auditoreak egiaztatu beharko du, soil-soilik, informazio ez-finantzarioaren orria kudeaketa-txostenean sartuta dagoela edo, kasua bada, txosten bereziaren erreferentzia erantsi dela kudeaketa-txostenean, aurreko paragrafoan aipatutako artikuluetan adierazten den moduan. Hala ez bada, auditoretza-txostenean adieraziko du.

2.a Merkatu arautuetan negoziatzeko onartutako baloreak jaulkitzen dituzten erakundeen kontu-auditoretzen kasuan, Kapital Sozietateen Legearen testu bategineko 540.4 artikuluan a) letrako 3. zenbakian, c) letrako 2., 4. eta 6. zenbakietan eta d), e), f) eta g) letretan jasotako informazioari dagokionez, eta, testu bategin horren beraren 495. artikuluan definituriko sozietate kotizatuei dagokienez, aurreko informazioaz gainera, kontseilarien ordainsariei buruzko urteko txostena, testu bateginaren 541. artikuluan jasotako informazioari dagokionez.

Bi kasuetan ere, auditoreak egiaztatu beharko du, soil-soilik, baloreak jaulkitzen dituzten entitateen eta sozietate kotizatuen kasuan, aurreko paragrafoan aipatutako informazioaren berri eman dela, dagozkion txostenetan, eta txosten horiek kudeaketa-txostenari erantsi zaizkiola. Hala ez bada, auditoretza-txostenean adieraziko du».

Bi. 35. artikuluan 2. apartatua kentzen da.

Hiru. Honela geratzen da idatzita 78.3 artikuluan bigarren paragrafoa:

«Auditoretza interes publikoko erakunde bati egin zaion kasuan, berariaz adierazi beharko da ez direla bete apirilaren 16ko 537/2014 (EB) Erregelamenduaren 10. artikuluan eta 5.1.f) artikuluan ezarrita dauden betebeharrak».

Lau. Kontu Auditoretzaren uztailaren 20ko 22/2015 Legearen hirugarren xedapen gehigarriko 3. apartatuaren b) eta d) letrak aldatzen dira, eta honela geratzen dira idatzita:

«b) Bestetik, 3.5.b) artikuluan aurreikusitako interes publikoko erakundeak, txikiak eta ertainak badira, eta haien funtzioak administrazio-organoak bere gain hartuta baldin baditu».

«d) Merkataritza Kodearen 42. artikuluan aurreikusitakoaren arabera interes publikoko beste erakunde batzuen mendekoak diren interes publikoko erakundeak, baldin eta erakunde nagusiaren Auditoretza Batzordeak bere gain hartzen baditu mendeko erakundearen Auditoretza Batzordeari dagozkion funtzioak eta hari egotz dakizkiokeen beste zernahi eginkizun, apartatu honek hizpide duen mendeko erakundearen esparruan, eta, horrez gain, baldintza hauetako bat betetzen bada:

1.a Erakunde nagusiak partaidetza osoa izatea mendeko erakundeetan, edo

2.a Salbuespen horren aplikazioa mendeko sozietatearen akziodunen batzordeak aho batez onestea.

Apartatu honetan aipatzen diren interes publikoko erakundeek beren web orriari argitaratu beharko dute zer arrazoirengatik uste duten ez dela egokia Auditoretza Batzorde bat edo Auditoretza Batzordearen eginkizunetara arduratuko den administrazio- edo gainbegiratze-organo bat edukitzea».

Bost. Kontu Auditoretzaren uztailaren 20ko 22/2015 Legearen hirugarren xedapen gehigarriko 3. apartatuari e) letra eransten zaio, eta honela geratzen da idatzita:

«e) Interes publikoko erakundeak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 103. artikuluan aurreikusitako enpresa-erakunde publikoak direnean, betiere administrazio-organoak bere gain hartzen baditu haien eginkizunak».

Seigarren artikulua. *Urriaren 23ko 4/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Balore Merkatuaren Legearen testu bategina aldatzea.*

Urriaren 23ko 4/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Balore Merkatuaren Legearen testu bategina aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

Bat. Honela geratzen da idatzita 7. artikulua:

«7. artikulua. *Jaulkipenaren dokumentua.*

1. Baloreak kontuko idatzoharren bidez ordezkatzeko, erakunde jaulkitzaileak dokumentu bat egin beharko du, zeinean jaulkipenean integratutako baloreak identifikatzeko behar den informazioa jasoko baita.

Partaidetzako baloreen kasuan, aipatutako dokumentuaren eskritura publikoa egingo da, eta eskritura hori jaulkipenarena izan ahalko da.

Partaidetzakoak ez diren baloreen kasuan, aukerakoa izango da jaulkipenaren dokumentua eskritura publiko bihurtzea. Dokumentu horren ordeztu, hauetako bat egin ahalko da, eta jaulkipenaren dokumentutzat hartuko da:

a) Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak onartu eta erregistratutako informazio-liburuxka, lege honetan xedatutakoaren arabera.

b) Jaulkipenaren ezaugarrien argitalpena kasuan kasuko aldizkari ofizialean, Estatuko nahiz autonomia-erkidegoetako zorraren jaulkipenen kasuan, bai eta halakoa ezarrita dagoen gainerako kasuetan ere.

c) Indarreko araudiaren arabera ahalmena duten pertsonak emandako ziurtagiria, Espainian ezarritako negoziazio-sistema aldeaniztun batean negoziatzeko onartu diren jaulkipenen kasuan, 41.4 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Partaidetzako baloretzat ulertuko dira akzioak eta akzioen baliokideak diren balore negoziagarriak, bai eta akzioak edo akzioen baliokideak diren baloreak eskuratzeko eskubidea ematen duten bestelako balore negoziagarriak ere, haiek bihurtzeagatik nahiz ematen dituzten eskubideez baliatzeagatik; betiere, balore horiek azpiko akzioen jaulkitzaileak edo talde jaulkitzailearen erakunde batek jaulki beharko ditu.

2. Erakunde jaulkitzaileak jaulkipenaren dokumentuaren eta haren aldaketen kopia bat aurkeztu beharko du kontabilitate-erregistroaz arduratzen den erakundean. Merkatu arautu batean edo negoziazio-sistema aldeaniztun batean negoziatzeko onartutako baloreak direnean, haien zuzentze-erakundean ere kopia bat aurkeztu beharko da.

3. Erakunde jaulkitzaileak eta kontabilitate-erregistroaz arduratzen denak une oro aipatutako dokumentuaren kopia bat jarri beharko dute titularren eta, oro har, interesdunen esku.

4. Kontuko idatzoharren bidez ordezkatzeko baloreen edukia jaulkipenaren dokumentuak zehaztuko du.

5. Ez da beharrezkoa izango jaulkipenaren dokumentu bat egitea gerokoan eta aukeren merkatu arautuetan negoziatzen diren finantza-tresnetarako, ez eta gainerako kasuetan ere. Baldintzak, nolana ere, erregelamenduz ezarriko dira».

Bi. Honela geratzen da idatzita 33. artikuluan 2. apartatua:

«2. Jaulkitzaileak modu baliozkoan eratauta egon beharko du, helbidea duen herrialdeko legerian ezarritakoaren arabera, eta bere eratzte-eskirituran eta estatutuetan edo dokumentu baliokideetan ezarritakoaren arabera jardun beharko du.

Horretaz gainera, baloreek haien ginetik dagoen araubide juridikoa errespetatu beharko dute, eta jaulkitzaileak liburuxka bat egiteko betebeharra duenean, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2017/1129 Erregelamenduan xedatutakoaren arabera, baloreen kokatzeak liburuxka horretan jasotako baldintzak bete beharko ditu [Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2017/1129 Erregelamendua, 2017ko ekainaren 14koa, Merkatu arautu batean baloreak kotizatzeke onartuz edo eskaintza publikoa eginez gero argitaratu behar den liburuxkari buruzkoa, eta 2003/71/EE Zuzentaraua indargabetzen duena]».

Hiru. 33. artikulua 3. apartatua kentzen da.

Lau. Honela geratzen da idatzita 34. artikulua:

«34. artikulua. *Informazio-liburuxka argitaratzeko eginbeharra.*

(EB) 2017/1129 Erregelamenduak 1. artikulua 4. eta 5. apartatuetan xedatutakoa eragotzi gabe, erregelamendu horren arabera liburuxka bat argitaratu ondoren soilik jarri ahalko dira jendaurrean baloreak, edo orduantxe bakarrik onartu ahalko dira merkatu arautu batean kotizatzeke.

Aurreko paragrafoan aipaturiko liburuxka ez da izango galdagarria 365 egunetik beherako epemuga duten ordaindukoen eskaintza publikoetan edo merkatu arautuetan negoziatzeko onartutakoetan.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2017ko ekainaren 14ko (EB) 2017/1129 Erregelamenduak 3.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, ez da izango liburuxka bat argitaratzeko eginbeharririk, erregelamendu horren 25. artikulua arabera ez denean beharrezkoa balore-eskaintzak jakinaraztea eta eskaintza horietako bakoitzak Batasunean duen zenbateko osoa zortzi milioi eurotik beherakoa denean (muga hori kalkulatzeko, hamabi hilabeteko aldia hartuko da kontuan).

Kreditu-erakunde kasuan, ez da izango liburuxka bat argitaratzeko eginbeharririk, erregelamendu horren 25. artikulua arabera ez denean beharrezkoa balore-eskaintzak jakinaraztea eta eskaintza horietako bakoitzak Batasunean duen zenbateko osoa bost milioi eurotik beherakoa denean (muga hori kalkulatzeko, hamabi hilabeteko aldia hartuko da kontuan)».

Bost. Honela geratzen da idatzita 35. artikulua:

«35. artikulua. *Jaulkipen jakin batzuk kokatzeari buruzko betebeharrak.*

Kokatu behar diren jaulkipenen izaera dela-eta ez badago liburuxka argitaratzeko eginbeharririk, dela ordaindukoek 365 egunetik beherako epemuga dutelako, dela estatu kide bakoitzeko ehun eta berrogeita hamar inbertitzailei baino gutxiagori zuzenduta daudelako –inbertitzaile kualifikatuak kanpoan utzita–, dela gutxienez ehun mila euroko edo hortik gorako inbertsioa behar dutelako edo Europar Batasunean guztira zortzi milioi eurotik beherako zenbatekoa dutelako (hamabi hilabeteko epean kalkulaturik), eta, horrez gain, jaulkipenak publiko orokorrari zuzenduak badira zernahi publizitate-komunikazioko bide erabiliz, inbertsio-zerbitzuak emateko baimenduriko erakunde batek esku hartu beharko du. Erakunde horren jardunaren barruan sartuko da, gutxienez, inbertitzaileei eman beharreko informazioa baliozkotzea eta merkaturatze-prozesua oro har gainbegiratzea. Betebehar hori ez zaio aplikatuko behar bezala baimendutako partaidetzako finantzaketarako plataformen berezko jarduerari. Horretaz gainera, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak kokapen horiei exijitu ahalko die liburuxka argitaratzeko eginbeharra bete dezatela, kasuan kasuko jaulkitzailearen edo finantza-tresnaren konplexutasuna kontuan hartuta».

Sei. Honela geratzen da idatzita 36. artikulua:

«36. artikulua. *Merkatu arautu batean negoziatzeko onartzeko informazio-betekizunak.*

1. Baloreak merkatu arautu batean negoziatzeko onartzeak ez du aurretiko administrazio-baimenik eskatuko. Hala eta guztiz ere, aurretik betekizun hauek bete beharko ditu:

a) Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalean aurkeztea eta erregistratzea bai jaulkitzailea bai baloreak aplikatzekoa zaien araubide juridikoaren mende daudela ziurtatzen duten dokumentuak.

b) Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalean aurkeztea eta erregistratzea jaulkitzailearen finantzen egoera-orriak, jaulkitzaile horri aplikatzekoa zaien legeriaren arabera prestatuak eta auditatuak. Erregelamendu bidez finkatuko da finantzen egoera-orri horiek zenbat ekitaldi hartuko dituzten.

c) Liburuxka bat aurkeztea eta erregistratzea Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalean, baldin eta galdagarria bada, eta batzorde horrek hura onartzea.

2. Baloreak merkatu arautuetan negoziatzeko onartzeko prozedurak erraztu egin beharko du baloreak modu zuzen, antolatu eta efizientean negoziatzea daitezela. Prozedura hori erregelamendu bidez arautuko da.

3. Merkatu arautu batean baloreak negoziatzeko onartzeari eta baloreen eskaintza publikoei buruzko publizitatea bat etorriko da Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2017ko ekainaren 14ko (EB) 2017/1129 Erregelamenduak 22. artikuluan eta lege honek 240. artikuluan xedatutakoarekin.

4. Artikulu honen 1. apartatuan aurreikusitakoa aplikatuko zaie informazio-liburuxka bat argitaratzeko betebeharretik salbuetsita ez dauden baloreak saltzeko edo harpidetzeko eskaintza publikoei, erregelamendu bidez zehazten diren egokitzapen eta salbuespenekin».

Zazpi. 37. artikulua kentzen da, eta edukirik gabe geratzen da.

Zortzi. Honela geratzen da idatzita 38. artikulua:

«38. artikulua. *Liburuxkaren erantzukizuna.*

1. Liburuxkan ageri den informazioaren erantzukizuna gutxienez ere jaulkitzailearena, eskaintzailearena edo baloreak merkatu arautu batean negoziatzeko onartzea eskatzen duen pertsonarena eta aurreko figura horien administratzaileena izango da.

Halaber, subjektu hauek izango dira erantzuleak:

a) Baloreen bermatzailea, prestatu beharreko informazioari dagokionez.

b) Zuzentze-erakundea, egiten dituen egiaztapen-lanei dagokionez.

c) Liburuxka dela-eta erantzukizuna onartzen duten gainerako pertsonak, dokumentu horretan hala jasota dagoenean, bai eta aurrekoen artean ez dauden baina liburuxkaren edukia baimendu dutenak ere.

Erregelamenduz ezarriko dira apartatu honetan aipatzen diren pertsonen erantzukizuna arautzeko baldintzak.

2. Liburuxkan ageri den informazioaren erantzuleak argiro identifikatuta egongo dira liburuxkan beren izenarekin eta karguarekin, pertsona fisikoen kasuan, edo beren izendapenarekin eta helbide sozialarekin, pertsona juridikoen kasuan. Halaber, aitortu beharko dute ezen, beren ustez, liburuxkan ageri diren datuak errealitatearen arabera direla eta hartan ez dela falta bere izaera dela-eta liburuxkaren norainokoa alda dezakeen ezer.

3. Erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzen arabera, aurreko zenbakietan aipatutako pertsona guztiak izango dira, kasuan kasu, bermatzaileak

egin beharreko liburuxkako nahiz dokumentuko datu aipagarrietako informazio faltsuen ondorioz edo omisioen ondorioz eskuratutako baloreen titularrei eragindako kalte eta galera guztien erantzuleak.

Erantzukizuna eskatzeko egintza hiru urteren buruan preskribatuko da, erreklamazio-egileak liburuxkaren edukia dela-eta faltsutasunaren edo omisioen berri izan duenetik hasita.

4. Ezingo da eskatu inolako erantzukizunik Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2017ko ekainaren 14ko (EB) 2017/1129 Erregelamenduak 7. artikuluan aipatzen duen laburpen-oharrarekin edo erregelamendu horren 15.1 artikulua aurreikusten duen Batasunaren hazkunde-liburuxkaren laburpen-ohar espezifikoarekin soilik lotutako arrazoiengatik (barnean dela ohar horien itzulpena ere), salbu eta:

a) engainagarria, zehaztugabea edo liburuxkaren gainerako zatiekin inkoherentea bada, edo

b) liburuxkaren gainerakoarekin batera irakurrita, ez badu ematen funtsezko informazioa inbertitzaileei baloreetan inbertitu behar duten ala ez erabakitzen laguntzeko».

Bederatzi. Honela geratzen da idatzita 39. artikulua:

«39. artikulua. *Liburuxka onartzearen erantzukizuna.*

Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren ardura izango da liburuxka onartzea, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2017ko ekainaren 14ko (EB) 2017/1129 Erregelamenduak 20.9 artikuluan aurreikusitako baldintzetan eta han adierazitako irismenarekin».

Hamar. 40. artikulua kentzen da, eta edukirik gabe geratzen da.

Hamaika. Honela geratzen da idatzita 42. artikulua:

«42. artikulua. *Obligaziodunen sindikatuaren aplikazio-eremua.*

Uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Kapital Sozietateen Legearen testu bateginaren XI. tituluko IV. kapitulua aplikatuko zaie zorra aitortzen edo sortzen duten eta harpidetza-eskaintza publikoaren izaera duten obligazioen edo bestelako baloreen jaulkipenei, baldin eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2017ko ekainaren 14ko (EB) 2017/1129 Erregelamenduan xedatutakoaren arabera liburuxka bat egiteko betebeharra badute, egoera hauetan:

a) Horrelakoen baldintzak Espainiako ordenamendu juridikoak edo Europar Batasuneko edo Ekonomiako Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundeko kidea ez den estatu bateko ordenamendu juridikoak gidatzen dituenean.

b) Espainiako lurraldean gertatzen direnean, edo Espainiako merkatu arautu batean edo Espainian ezarritako negoziazio-sistema aldeaniztun batean negoziatzeko onartzen direnean.

Halaber, zorra aitortzen edo sortzen duten baina liburuxka argitaratzetik salbuetsita dauden obligazioen edo bestelako baloreen jaulkipenei 34. artikulua bigarren paragrafoan aurreikusitakoaren arabera bakarrik aplikatuko zaie uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Kapital Sozietateen Legearen testu bateginaren XI. tituluko IV. kapitulua».

Hamabi. Honela geratzen dira idatzita 77. artikulua 1. eta 2. apartatuak:

«1. Erakunde baten akzioak negoziazio-sistema aldeaniztun batean beharrezko merkatu arautu batean negoziatzera igarotzen badira, erakunde horiek, behin-behinean, gehienez ere bi urtean, ez dira beharturik egongo sei hilean behingo

bigarren finantza-txostena argitaratzera eta zabaltzera (119.2 artikuluan jasota dago betebehar hori).

2. Aurreko apartatuan aurreikusitako salbuespenari heldu ahal izateko, merkatu arautuan negoziatzeko onartzeko liburuxkak adierazi beharko du erakundeak horri guztiz edo zati batez heltzeko asmoa duela, eta iraupena ere adierazi beharko da. Adierazpen hori beharrezkoa den informaziotzat hartuko da, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2017ko ekainaren 14ko (EB) 2017/1129 Erregelamenduaren 6. artikulua onorioetarako».

Hamahiru. Honela geratzen da idatzita 82. artikulua:

«82. artikulua. *Norberaren borondatez negoziatuz kanpo geratzea.*

1. Erakunde jaulkitzaileak ere eskatu ahalko du finantza-tresna baten merkatu arautu bateko negoziazioa baztertzea.

Negoziatioaren baztertze horren parekotzat joko dira sozietate kotizatuaren akziodunak, guztiz edo partzialki, kotizatu gabeko beste erakunde bateko bazkide bilakatzea dakarten sozietate-eragiketak.

2. Sozietate batek erabakitzen duenean bere akzioak merkatu arautuetan negoziatuz baztertzea, haiek eskuratzeko eskaintza publiko bat sustatu beharko du, bazterketak ukitutako balore guztiei zuzendua.

Salbuespen gisa hartuko da alde aurretik balore guztietara zuzendutako eskaintza bat egin izana, apartatu honetan jasotako eskaintzetan eska daitekeen prezioaren berdina edo handiagoa, betiere eskaintzaileak ukitutako sozietatearen boto-eskubidedun kapitalaren ehuneko hirurogeita hamabostera iritsi bada eskaintza horren ondorioz.

3. Baztertze-erabakia eta eskaintzari eta eskaintako prezioari buruzkoak akziodunen batzar nagusiak onartu beharko ditu.

Eskaintza onartu behar duten organo sozialen deialdia egiteaz batera, administratzaileen txosten bat jarriko da ukitutako baloreen titularren eskura, zeinean zehetasun guztiekin justifikatuko baitira proposamena eta eskaintako prezioa.

4. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak baloreak eskuratzeko eskaintza publiko bat egiteko betebeharretik salbuetsi ahalko du bestelako prozedura baliokide batez segurtatzen denean bazterketak ukitutako akzioen titularren interes legitimoen babesa, bai eta obligazio bihurtgarrien eta harpidetzarako eskubidea ematen duten gainerako baloreen titularrei dagozkien interes legitimoen babesa ere.

5. Negoziatioa baztertu baino lehenago eskaintzarik egonez gero, akzio propioak eskuratzeko muga, uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Kapital Sozietatei buruzko Legearen testu bateginean ezarritakoa, kapital sozialaren ehuneko 20koa izango da sozietate kotizatuentzat. Baldin eta eskaintza egitearen ondorioz akzio propioek muga hori gainditzen badute, urtebeteko epean amortizatu edo besterendu beharko dira.

6. Erregelamendu bidez ezarriko dira artikulua honetan aurreikusitako eskaintza publikoetako prezioa eta gainerako betekizunak finkatzeko baldintzak».

Hamalau. 120. artikulua kentzen da.

Hamabost. 122. artikulua 2. apartatua aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«2. 118. artikulutik 119. artikulura bitartekoek aipatzen duten aldizkako informazioa Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari igorri beharko zaio, Espainia jatorrizko estatu kidea denean, erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzetan, 238. artikuluan araututako erregistro ofizialean sar dadin».

Hamasei. 125. artikulua 5. apartatua kentzen da.

Hamazazpi. 131. artikulua 3. apartatua eransten zaio:

«3. Baldin eta edozein akziodunek ehuneko 30eko boto-eskubidea edo handiagoa lortzen badu zuzenean edo zeharka, Kapital Sozietateen Legearen testu bateginaren 527 ter artikulua eta hurrengo arabera akzio batzuek leialtasunagatiko botoa dutela eta sozietatearen boto-eskubideen guztizko kopurua aldatzearen ondorioz soilik, akziodun horrek ezingo ditu baliatu ehuneko hori gainditzen duten eskubide politikoak, non eta ez duen egiten erosteko eskaintza publiko bat, kapital sozial guztira zuzendurik.

Ehuneko 30eko muga gainditu eta hurrengo 3 hilabeteen barruan egin beharko da eskaintza, eta bidezko prezioa zehazteari buruzko arauak aplikatuko zaizkio.

Hala ere, ez da izango nahitaezkoa eskaintza egitea, baldin eta, boto-eskubideen ehuneko 30eko muga gainditu eta hurrengo 3 hilabeteetan, eskaintza egitera behartuta dagoenak besterendu egiten baditu aipatutako ehuneko gaineko boto-eskubideen soberakina murrizteko behar diren akzioak edo uko egiten badie sozietatearen boto-eskubideen ehuneko 30 gainditzen duten leialtasunagatiko boto-eskubideei, betiere bien bitartean ez baditu egikaritzen ehuneko hori gainditzen duten eskubide politikoak edo ez badu lortzen Merkatuaren Batzorde Nazionalaren dispentsa».

Hemezortzi. IV. tituluaren, «Boto-aholkulariak» izeneko X. kapitulua eransten da, 137 bis eta 137 quinquies bitarteko artikulua berriak biltzen dituena, eta honela geratzen da idatzita:

«X. KAPITULUA

Boto-aholkulariak

137 bis artikulua. *Boto-aholkulariak.*

1. Kapitulu hau aplikatzekoa izango zaie Europar Batasuneko estatu kide batean egoitza soziala duten sozietate kotizatuekin loturik zerbitzua ematen duten boto-aholkulariei, baldin eta sozietate horien akzioak Europar Batasuneko estatu kide batean kokatutako merkatu arautu batean edo negoziazio-sistema aldean zintun batean negoziatzeko onartuta badaude, eta baldin eta boto-aholkulariak:

- a) Espainian badu egoitza soziala,
- b) egoitza soziala Europar Batasuneko estatu kide batean ez izanik ere, Espainian badu establezimendu nagusia; edo
- c) egoitza soziala eta establezimendu nagusia Europar Batasuneko estatu kide batean ez izanik ere, Espainian badu establezimendu bat.

2. Kapitulu honetan aurreikusitakoaren ondorioetarako, boto-aholkularia da pertsona juridiko bat, sozietate kotizatuak lege argitaratu behar duten informazioa –eta, hala badagokio, baita bestelako informazioa ere– izaera profesional eta komertzialarekin aztertzen duena, inbertitzaileei boto-eskubideez baliatzeko aholkuak emateko, analisiaren, aholkularitzaren edo boto-gomendioen bidez.

3. Aurreko bi apartatuetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten erakundeek jakinaren gainean jarri beharko dute Balore Merkatuaren Batzorde Nazionala.

137 ter artikulua. *Jokabide-kodea.*

1. Boto-aholkulariek argitaratu egin beharko dute aplikatzen duten jokabide-kodearen erreferentzia, bai eta lanbideari dagokion kode deontologikoa ere, hala badagokio, eta nola argitaratu duten ere jakinaraziko dute.

Boto-aholkulariek ez dutenean aplikatzen jokabide-koderik, horren kausaren berri emango dute, argi eta arrazoituta. Era berean, boto-aholkulariek jokabide-kode bat aplikatzen dutenean baina gomendioren bat alde batera uzten dutenean,

jendaurrean jakinaraziko dute zer gomendio ez diren ari jarraitzen, zergatik, eta zer neurri hartu diren gomendio horien orde.

2. Apartatu honetan aipatzen den informazioa doan argitaratuko da boto-aholkularien web-orrietan, eta urtero eguneratuko da.

137 quater artikulua. *Urteko txostena.*

1. Boto-aholkulariek txosten bat argitaratuko dute urtero, bezeroek beren jardueren zehaztasunari eta fidagarritasunari buruzko informazioa izan dezaten. Txosten horretan, gutxienez, informazio hau jasoko da, ikerketei, aholkularitzari eta ematen dituzten boto-gomendioei dagokienez:

- a) aplikatutako metodo eta eredu ezaugarri garrantzitsuak;
- b) erabilitako informazio-iturri nagusiak;
- c) ikerketen, aholkularitzen eta boto-gomendioen kalitatea bermatzeko ezarritako prozedurak, eta eginkizun horietara bideratutako langileen kualifikazioa;
- d) merkatu-ingurunearen eta ingurune juridiko, ekonomiko-enpresarial eta araugintzakoaren inguruabarrak eta kasuan kasuko sozietate kotizatuaren baldintza espezifikoak aintzakotzat hartzeko modua, eta zenbateraino hartzen diren kontuan horiek.
- e) merkatu bakoitzean aplikatzen dituzten boto-politiken ezaugarri garrantzitsuak;
- f) beren ikerketen aholkularitzen edo boto-gomendioen xede diren sozietateekin eta sozietatean interesa duten beste alderdi batzuekin komunikatzeko erabiltzen dituzten bideak, eta zenbateraino jartzen diren harremanetan sozietate horiekin.
- g) interes-gatazka potentzialak prebenitzeari eta kudeatzeari buruzko politika; eta
- h) emandako gomendioetan kontuan hartu beharreko mugak edo baldintzak.

2. Boto-aholkulariek beren web-orrietan jarriko dute artikulua honetan aipatzen den informazioa, herritarren eskura, eta han egongo da eskuragarri, doan, gutxienez hiru urtez, argitaratzen den egunetik aurrera.

137 quinques artikulua. *Interes-gatazkak.*

Boto-aholkulariek atzerapenik gabe zehaztuko dute beren ikerketa, aholkularitza edo boto-gomendioetan eragina izan dezakeen interes-gatazka erreal edo potentzial eta negozio-harreman oro, eta berehala jarriko dituzte jakinaren gainean bezeroak, eta beste horrenbeste egingo dute, orobat, interes-gatazka errealak edo potentzialak ezabatzeko, arintzeko edo kudeatzeko hartutako neurriekin ere».

Hemeretzi. VII. tituluko I. kapituluari 9. atala eransten zaio:

«9. atala. Inplikazio-politika

224 bis artikulua. *Inbertsio-zerbitzuetako enpresen inplikazio-politika.*

1. Zorroen kudeaketa diskrezionaleko eta indibidualizatuko zerbitzua ematen duten inbertsio-zerbitzuetako enpresek eta kreditu-erakundeek inplikazio-politika bat garatuko dute, deskribatzeko nola integratzen duten inbertsio-politikan akziodun edo akziodunen kudeatzaile gisa duten inplikazioa. Ondoren, publiko egingo dute politika hori. Politika horrek deskribatuko du nola egiten dieten jarraipena estatu kide batean kokatuta dagoen edo bertan jarduten duen merkatu arautu batean negoziatzeko onartutako sozietateei, sozietate horietan inbertitzen dutenean; besteak beste, gai hauen jarraipena egiten dute: estrategia, errendimendu finantzarioa eta ez-finantzarioa, arriskuak, kapitalaren egitura, gizarte- eta ingurumen-inpaktua eta gobernu korporatiboa. Politika horrek deskribatuko du, halaber, zer mekanismo dauden elkarrizketarako estatu kide batean kokatuta dagoen edo bertan jarduten

duen merkatu arautu batean negoziatzeko onartutako sozietateekin, baldin eta sozietate horietan inbertitzen badute, boto-eskubideak eta akzioekin lotutako beste eskubide batzuk baliatzen badituzte, beste akziodun batzuekin lankidetzan aritzen badira, beren inbertsioen xede diren sozietateen interes-talde garrantzitsuekin komunikatzen badira eta beren inplikazioari loturiko egiazko edo balizko gatazka-interesak kudeatzen badituzte.

2. Aurreko apartatuan aipatutako erakundeek urtero emango dute jakitera nola aplikatzen duten beren inplikazio-politika, barnean harturik boto-eskubideei dagokienez duten jokabidearen deskribapen orokorra, bozketa garrantzitsuenen azalpena eta, hala badagokio, boto-aholkularien zerbitzuetara jotzeko aukerarena.

3. 1. apartatuan bildutako erakundeek publiko egingo dute beren botoa akzioak dituzten sozietateetako batzar nagusietan. Publiko egin gabe utz daitezke bozketaren xedeari edo sozietateko partaidetzaren pisuari erreparatuta hutsalak diren botoak.

4. 1., 2. eta 3. apartatueta aipatutako informazioa jendaurrean eta doan egongo da eskuragarri, 1. apartatuan jasotako erakundeen web-orrian.

5. Inplikazio-jarduerei ere aplikatuko zaizkie 208 bis artikuluan araututako interes-gatazkei buruzko betebeharrak.

6. 1. apartatuan bilduriko erakundeek erabakitzen badute aurreko apartatueta araututako eskakizun bat edo gehiago ez betetzea, azalpen argi eta arrazoitua argitaratu beharko da horretarako arrazoiei buruz».

Hogei. 233.1.a) artikuluari 9. paragrafoa eransten zaio, eta honela geratzen da idatzita:

«9.a Boto-aholkulariak».

Hogeita bat. 234. artikulua 2. apartatuko t) letra aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«t) 122.2 artikulua aipatzen duen aldizkako informazioa egiaztatzeko eginkizunaz baliatuta, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak hauek egin ahalko ditu:

1.a Baloreak Europar Batasunean egoitza duen merkatu arautu batean negoziatzeko onartuta dauzkaten jaulkitzaileen kontu-auditoreei eskatzea behar diren informazio edo dokumentuak, idatzizko errekerimendua eginda eta uztailaren 20ko 22/2015 Legean ezarritakoari jarraituz.

Baldin eta kontu-auditoreek ezagutarazten badituzte artikulua honetan ezarritakoari jarraituz Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak eskatutako informazioak, jokabide hori ez da hartuko sekretu-eginbeharraren ez-betetzetzat.

2.a Baloreak Europar Batasunean egoitza duen merkatu arautu batean negoziatzeko onartuta dauzkaten jaulkitzaileen kontu-auditoreei eskatzea argitara ditzatela informazio gehigarriak, barnean harturik hiru hilean behingo informazioak, bateratzeak, zuzenketak edo, kasuak hala eskatzen duenean, aldizkako informazioaren birformulazioak».

Hogeita bi. 234. artikuluari 15. apartatua eransten zaio, eta honela geratzen da idatzita:

«15. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak izango du eskumena Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2017ko ekainaren 14ko (EB) 1129/2017 Erregelamendua aplikatzeko. Horretarako, eta aurreko apartatueta aurreikusitako eragotzi gabe, erregelamendu horrek agintari eskudunei aitortzen dizkien ahalmen guztiak baliatu ahalko ditu, 32.1 artikuluan berariaz adierazitakoak, kasurako, eta erregelamendu horren 32.2 artikuluan adierazitako zernahi modu baliatu ahalko du horretarako».

Hogeita hiru. Honela geratzen da idatzita 271. artikulua 4. apartatua:

«4. Balore-merkatuaren antolamendu- eta diziplina-arautzat hartuko dira 233.1.a) eta b) artikuluan jasotako erakundeei edo 233.1.b) eta c) artikuluan aipatutako pertsona edo erakundeek baloreen merkatuarekin erlazionatuta egiten dituzten jardueri berariaz dagozkien manuak dakartzaten legeak eta izaera orokorreko xedapenak, aipatutako pertsona eta erakundeek nahitaez bete beharrekoak baldin badira. Xedapen horien artean ulertuko dira Estatuko organoek eta arloan eskumenak dituzten autonomia-erkidegoek onartutakoak, zuzeneko aplikazioa izango duten Europar Batasuneko erregelamenduak eta Europar Batasuneko erakundeek onartutako gainerako arauak, eta, 21. artikuluan aurreikusitakoari jarraituz, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak onartutako zirkularrak.

Bereziki, hauek hartuko dira balore-merkatuaren antolamendu- eta diziplina-arautzat:

- a) Batzordearen 1031/2010 (EB) Erregelamendua, 2010eko azaroaren 12koa.
- b) 236/2012 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2012ko martxoaren 14koa.
- c) 648/2012 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2012ko uztailaren 4koa.
- d) 575/2013 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2013ko ekainaren 26koa.
- e) 596/2014 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2014ko apirilaren 16koa.
- f) 600/2014 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2014ko maiatzaren 15ekoa.
- g) 909/2014 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2014ko uztailaren 23koa.
- h) 1286/2014 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2014ko azaroaren 26koa.
- i) 2365/2015 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2015eko azaroaren 25ekoa.
- j) 2016/1011 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko ekainaren 8koa.
- k) 2017/1129 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2017ko ekainaren 14koa.
- l) Erregelamendu eskuordetuak edo betearazpenekoak, Europako Batzordeak onesten dituenak Europako balore-merkatuaren antolamendu- eta diziplina-arauak garatzeko edo betearazteko».

Hogeita lau. 276 bis artikulua 1. apartatua aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«1. Lege honetan edo ondoren zerrendatzen diren lege-testuetan aurreikusitako arau-hausteak ustez edo benetan egin izanaren berri edo haren susmo funtsatua duen pertsona orok jakinaren gainean ipini ahalko du Balore Merkatuaren Batzorde Nazionala, artikulua honetan ezarritako moduan eta bermeekin. Hauexek dira lege-testuak: Inbertsio Kolektiboko Erakundearen azaroaren 4ko 35/2003 Legea; Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko ekainaren 26ko 575/2013 (EB) Erregelamendua, inbertsio-zerbitzuetako enpresei dagokienez; Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko apirilaren 16ko 596/2014 (EB) Erregelamendua; Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko maiatzaren 15eko 600/2014 (EB) Erregelamendua; Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko azaroaren 26ko 1286/2014 (EB) Erregelamendua; eta Europako

Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2017ko ekainaren 14ko (EB) 2017/1129 Erregelamendua».

Hogeita bost. 279. artikuluari 7. apartatua eransten zaio, eta artikulua horren 2. apartatua, berriz, honela geratzen da idatzita:

«2. Salmentako edo harpidetzako edo negoziatzeko onartzeko eskaintza publikoak egitea 33.2, 36.1, 76. edo 77. artikuluetako betekizunak bete gabe; jaulkipenak kokatzea liburuxkan ezarritako oinarrizko baldintzak bete gabe; dokumentu hori egin behar den kasuetan, 2017ko ekainaren 14ko (EB) 2017/1129 Erregelamenduan aurreikusitakoaren arabera; edo dokumentu horretan datu garrantzitsuak falta izatea edo zehaztasun-ezak, faltsutasunak edo engainua dakarten datuak jasotzea. Kasu horietan guztietan, eskaintzaren edo onarpenaren zenbatekoak edo ukitutako inbertitzaileen kopuruak garrantzitsuak izan beharko dute».

«7. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2017ko ekainaren 14ko (EB) 2017/1129 Erregelamenduaren artikulua hauetan ezarritako betebeharrak ez betetzea, baldin eta horren ondorioz arrisku larrian jartzen bada baloreen lehen mailako merkatuaren funtzionamendu egokia:

a) 3, 5. eta 6. artikulua, liburuxka bat argitaratzeko betebeharrari, baloreak geroago birsalduz gero liburuxka bat argitaratzeko betebeharrari eta liburuxkak jaso beharreko informazioari buruzkoak, hurrenez hurren;

b) 7. artikulua 1. apartatutik 11.era bitartekoak, liburuxkak laburpen-oharra izateko betebeharrari eta oinarrizko edukari eta osakerari buruzkoak;

c) 8. artikulua, oinarrizko liburuxkak jaso beharreko informazioari buruzkoa;

d) 9. artikulua, erregistro-dokumentu unibertsalaren inguruko betebeharre buruzkoa;

e) 10. artikulua, liburuxka agiri bereiziz osatuta dagoenean jaulkitzaileak dituen betebeharre buruzkoa;

f) 11. artikulua 1. eta 3. apartatuak, liburuxkari datxezkion erantzukizunei buruzkoak;

g) 14. artikulua 1. eta 2. apartatuak, bigarren mailako jaulkipenetarako informazioa zabaltzeko araubide erraztuko betebeharre buruzkoak;

h) 15.1 artikulua, Batasunaren hazkunde-liburuxkari buruzko betebeharre buruzkoa;

i) 16. artikulua 1., 2. eta 3. apartatuak, liburuxkan azaldutako arrisku-faktoreak deskribatzeko betebeharre buruzkoak;

j) 17. artikulua, eskaintzaren behin betiko prezioari eta eskaintako balore kopuruaren gaineko betebeharre buruzkoa;

k) 18. artikulua, liburuxkan informazioa ez emateagatik sorturiko betebeharre buruzkoa;

l) 19. artikulua 1. apartatutik 3.era bitartekoak, liburuxkan jasotako informazioa erreferentzia bidez sartzeko baldintzei buruzkoak;

m) 20.1 artikulua, liburuxka onesteko betebeharrari buruzkoa;

n) 21. artikulua 1. apartatutik 4.era bitartekoak eta 7. apartatutik 11.era bitartekoak, liburuxka argitaratzeari buruzkoak;

ñ) 22. artikulua 2. apartatutik 5.era bitartekoak, balore-eskaintzaren edo negoziatorako onartzearen gaineko publizitate-betebeharre buruzkoak;

o) 23. artikulua 1., 2., 3. eta 5. apartatuak, liburuxkaren gehigarri buruzkoak;

p) 27. artikulua, hizkuntza-araubideari buruzkoa;

q) ikerketa, ikuskapen edo eskaera baten harira lankidetzarik ez ematea edo men ez egitea, agintaritzaren eskudunen ahalmenei buruzko 32. artikulua arabera».

Hogeita sei. 282. artikuluari 22. apartatua eransten zaio, eta honela geratzen da idatzita:

«22. Boto-aholkulariek ez betetzea betebeharrak, ez bada noizbehinka edo oso bakanetan: batetik, 137 ter eta 137 quater artikuluetan aipatzen diren informazioak beren web-orrian doan argitaratzea, eta, bestetik, beren ikerketa, aholkularitza edo boto-gomendioetan eragina izan dezaketen interes-gatazka errealak edo potentzialak zein diren zehaztea eta bezeroei jakinaraztea berehala, eta beste horrenbeste egitea interes-gatazka errealak edo potentzialak ezabatzeko, arintzeko edo kudeatzeko hartutako neurriekin».

Hogeita zazpi. 292. artikuluari 7. apartatua eransten zaio, eta zenbakia aldatzen zaie artikuluko horren ondorengo apartatuei (orain arteko 7.etik 11.era bitarteko apartatuak 8. apartatutik 12.era bitartekoak izango dira aurrerantz); halaber, 292. artikulua 5. eta 6. apartatuak aldatzen dira. Aipatutako apartatuak honela geratzen dira idatzita:

«5. Salmentako edo harpidetzako edo negoziatzeko onartzeko eskaintza publikoak egitea 33.2, 36.1, 76. edo 77. artikuluetako eskakizunak bete gabe; jaulkipenak kokatzea liburuxkan ezarritako oinarriko baldintzak bete gabe, dokumentu hori egin behar den kasuetan, 2017ko ekainaren 14ko (EB) 2017/1129 Erregelamenduan aurreikusitakoaren arabera; edo dokumentu horretan datu garrantzitsuak falta izatea edo zehaztasun-eraketa, faltsutasunak edo engainua dakarten datuak jasotzea, kasu horietan guztietan, arau-hauste oso astuntzat jotzen ez denean.

6. 35. artikuluan aipatzen diren jaulkipenak kokatzea arau horretan aurreikusitako erakunde baimenduaren esku hartzeko betekizuna bete gabe, argitara emandako oinarriko baldintzak bete gabe eta aipatutako argitalpen-jardueran datu esanguratsuak jaso gabe edo zehaztasun-eraketa, faltsutasunak edo engainua eragin dezaketen datuak jasoz, kasu horietan guztietan jaulkipenaren zerbatekoa edo ukitutako inbertitzaileen kopurua garrantzitsua ez denean.

7. Ez betetzea 2017ko ekainaren 14ko (EB) 2017/1129 Erregelamenduaren artikuluko hauetan ezarritako betebeharrak, kasu horietan guztietan, arau-hauste oso astuntzat jotzen ez denean:

a) 3., 5. eta 6. artikulua, liburuxka bat argitaratzeko betebeharrari, baloreak geroago birsalduz gero liburuxka bat argitaratzeko betebeharrari eta liburuxkak jaso beharreko informazioari buruzkoak, hurrenez hurren;

b) 7. artikulua 1. apartatutik 11.era bitartekoak, liburuxkak laburpen-oharra izateko betebeharrari eta oharraren edukari eta osakerari buruzkoak;

c) 8. artikulua, oinarriko liburuxkak jaso beharreko informazioari buruzkoa;

d) 9. artikulua, erregistro-dokumentu unibertsalaren inguruko betebeharrari buruzkoa;

e) 10. artikulua, liburuxka agiri bereiziz osatuta dagoenean jaulkitzaileak dituen betebeharrari buruzkoa;

f) 11. artikulua 1. eta 3. apartatuak, liburuxkari datu txeki erantzukizunei buruzkoak;

g) 14. artikulua 1. eta 2. apartatuak, bigarren mailako jaulkipenarako informazioa zabaltzeko araubide erraztuko betebeharrari buruzkoak;

h) 15.1 artikulua, Batasunaren hazkunde-liburuxkari buruzko betebeharrari buruzkoa;

i) 16. artikulua 1., 2. eta 3. apartatuak, liburuxkan azaldutako arrisku-faktoreak deskribatzeko betebeharrari buruzkoak;

j) 17. artikulua, eskaintzaren behin betiko prezioaren eta balore kopuruaren gaineko betebeharrari buruzkoa;

k) 18. artikulua, liburuxkan informazioa ez emateagatik sorturiko betebeharrari buruzkoa;

- l) 19. artikulua 1. apartatutik 3.era bitartekoak, liburuxkan jasotako informazioa erreferentzia bidez sartzeko baldintzei buruzkoak;
- m) 20. artikuluko 1. apartatua, liburuxka onesteko betebeharrari buruzkoa;
- n) 21. artikulua 1. apartatutik 4.era bitartekoak eta 7. apartatutik 11.era bitartekoak, liburuxka argitaratzeari buruzkoak;
- ñ) 22. artikulua 2. apartatutik 5.era bitartekoak, balore-eskaintzaren edo negoziatorako onartzearen gaineko publizitate-betebeharrei buruzkoak;
- o) 23. artikulua 1., 2., 3. eta 5. apartatuak, liburuxkaren gehigarriari buruzkoak;
- p) 27. artikulua, hizkuntza-araubideari buruzkoa;
- q) ikerketa, ikuskapen edo eskaera baten harira lankidetzarik ez ematea edo men ez egitea, agintaritzaren eskudunen ahalmenari buruzko 32. artikulua arabera».

Hogeita zortzi. 295. artikulua 23. apartatua eransten zaio, eta honela geratzen da idatzita:

«23. Boto-aholkulariek ez betetzea betebeharrak hauek, ez bada noizbehinka edo oso bakanetan: batetik, 137 ter eta 137 quater artikuluetan aipatzen diren informazioak beren web-orrian doan argitaratzea, eta, bestetik, beren ikerketa, aholkularitza edo boto-gomendioetan eragina izan dezaketen interes-gatazka errealak edo potentzialak zein diren zehaztea eta bezeroei jakinaraztea berehala, eta beste horrenbeste egitea interes-gatazka errealak edo potentzialak ezabatzeko, arintzeko edo kudeatzeko hartutako neurriekin, 137 quinquies artikulua dioenarekin bat».

Hogeita bederatzia. Honela geratzen da idatzita 296.1 artikulua:

«1. Uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Kapital Sozietateen Legearen testu bateginaren 540. eta 541. artikuluetan, hurrenez hurren, eta lege honen zazpigarren xedapen gehigarrian aipatutako gobernu korporatiboaren urteko txostena edo kontseilariaren ordainsariei buruzko urteko txostena ez prestatzea edo ez argitaratzea, edota txosten horietan hutsuneak edo datu faltsu edo engainagarriak egotea; lege horretako 497., 497 bis, 512., 513., 514., 515., 516., 517., 520 bis, 520 ter, 522 bis, 524 bis, 524 ter, 525.2, 526., 527 bis.2, 527 septies, 528., 529., 529 unvicies, 530., 531., 532., 533., 534., 538. eta 539. artikuluetan ezarritako betebeharrak ez betetzea; bigarren mailako merkatu ofizialetan negoziatzeko onartutako baloreak igortzen dituzten erakundeek auditoretza-batzorderik eta izendapenen eta ordainsarien batzorderik ez izatea, aipatutako legearen 529 quaterdecies eta quindicies artikuluetan ezarritako baldintzetan, edo ez betetzea batzorde horien osarari eta eginkizunen esleipenari buruzko arauak (eginkizun horiek 529 quaterdecies artikuluan jasotako interes publikoko erakundeen auditoretzari dagozkionak dira)».

Hogeita hamar. 302. artikulua 22. apartatua eransten zaio, eta honela geratzen da idatzita:

«22. Ez badira betetzen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2017ko ekainaren 14ko (EB) 2017/1129 Erregelamenduan aurreikusitako betebeharrak edo debekuak, eta ez-betetze horiek arau-hauste oso astunak badira, ezarritako isuna zenbateko hauetatik handienaren parekoa izango da:

- a) arau-haustearen ondorioz lortutako etekinak edo saihestutako galerak halako hiru, zenbatekoak izan diren zehazterik badago;
- b) pertsona juridikoen kasuan, 7.000.000 euro edo aurreko ekitaldian lortutako guztizko negozio-bolumenaren ehuneko 5, eskura dauden eta zuzendaritza-organoak onetsi dituen finantzen azken egoera-orrien arabera.

Pertsona juridikoa finantza-kontu bateratuak egin behar dituen enpresa nagusi bat edo enpresa nagusi baten filiala denean, Merkataritza Kodearen arabera, urteko guztizko negozio-bolumena izango da urteko guztizko bolumen bidezkoa, edo kasuan-kasuan dagokion diru-sarrera mota, kontabilitate-arloan aplikatzekoa den Europar Batasunaren legediaren arabera, betiere azken enpresa nagusiko zuzendaritza-organoak onetsita dauden eta berrienak diren kontu bateratu eskuragarrien arabera;

c) pertsona fisikoen kasuan, 1.000.000 euro».

Hogeita hamaika. 303. artikuluari 17. apartatua eransten zaio, eta honela geratzen da idatzita:

«17. Ez badira betetzen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2017ko ekainaren 14ko (EB) 2017/1129 Erregelamenduan aurreikusitako betebeharrak edo debekuak, eta ez-betetze horiek arau-hauste astunak badira, ezarritako isuna zenbateko hauetatik handienaren parekoa izango da:

a) arau-haustearen ondorioz lortutako etekinak edo saihestutako galerak halako bi, zenbatekoak izan diren zehazterik badago;

b) pertsona juridikoen kasuan, 5.000.000 euro edo aurreko ekitaldian lortutako guztizko negozio-bolumenaren ehuneko 3, eskura dauden eta zuzendaritza-organoak onetsi dituen finantzen azken egoera-orrien arabera.

Pertsona juridikoa finantza-kontu bateratuak egin behar dituen enpresa nagusi bat edo enpresa nagusi baten filiala denean, Merkataritza Kodearen arabera, urteko guztizko negozio-bolumena izango da urteko guztizko bolumen bidezkoa, edo kasuan-kasuan dagokion diru-sarrera mota, kontabilitate-arloan aplikatzekoa den Europar Batasunaren legediaren arabera, betiere azken enpresa nagusiko zuzendaritza-organoak onetsita dauden eta berrienak diren kontu bateratu eskuragarrien arabera;

c) pertsona fisikoen kasuan, 700.000 euro».

Hogeita hamabi. 310. artikuluari 4. apartatua eransten zaio, eta honela geratzen da idatzita:

«4. Aurreko apartatuetan ezarritakoa eragotzi gabe, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2017ko ekainaren 14ko (EB) 2017/1129 Erregelamenduen 39. artikuluan jasotako irizpideen arabera zehaztuko dira erregelamendu horretan aurreikusitako betebeharrak edo debekuak urratzeagatik aplikatzekoak diren zehapenak».

Hogeita hamahiru. Honela geratzen da idatzita zazpigarren xedapen gehigarria:

«Zazpigarren xedapen gehigarria. *Gobernu korporatiboaren urteko txostena, sozietate anonimo kotizatuez bestelako erakunde jaulkitzaileetan.*

Kapital Sozietateen Legearen testu bategina onartzen duen uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren 540. artikuluan ezarritakoa ez zaie aplikatzekoa izango egoitza estatu kide batean duten edo bertan jarduten duten merkatu arautuetan negoziatzen diren baloreak jaulkitzen dituzten sozietate anonimo kotizatuez bestelako erakundeei. Nahikoa izango da erakunde horiek erakundeak baliatzen duen gobernu onaren kodearen erreferentzia bat jasotzea kudeaketa-txostenean, halakorik baliatzen badu, eta, orobat, adieraztea kode horretako zer gomendiori ez zaien jarraitu, eta deskribatzea zein diren informazioa emateko prozesuaren harira arriskuak kontrolatzeko eta kudeatzeko barne-sistemen ezaugarri nagusiak».

Lehenengo xedapen gehigarria. *Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak Europako Batzordeari informazioa ematea.*

Kapital Sozietateen Legearen testu bateginaren 497., 497 bis, 520 bis, 520 ter, 522 bis, 524., 524 bis eta 527 bis artikulua aplikatzeko zailtasun praktikorik badago, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak horren berri emango dio Europako Batzordeari, zailtasun horiek kontuan har ditzan, eta, halaber, Europar Batasuneko edo hirugarren herrialdeetako erakunde bitartekariak artikulua horiek betetzen ez badituzte, inguruabar hori jakinaraziko dio.

Bigarren xedapen gehigarria. *Inbertsio Kolektiboko Erakundeen azaroaren 4ko 35/2003 Legearen 47 ter eta quater artikuluetan ezarritako betebeharrak egokitzeko epea.*

1. Hiru hilabeteko epea izango da, lege hau indarrean jartzen denetik aurrera, Inbertsio Kolektiboko Erakundeen azaroaren 4ko 35/2003 Legearen 47 ter artikuluan 1. apartatua eta 47 quater artikulua ezarritako betebeharrak berrietara egokitzeko.

2. Lege hau indarrean jartzen denetik zer ekitaldi osori aplikatu zaion lehenengo 47 ter artikuluan 1. apartatuaren arabera inplikazio-politika, bada ekitaldi horri dagokiona izango da 47 ter artikuluan 2. eta 3. apartatuetan jasotako informazioaren lehen argitalpena.

Lehenengo xedapen iragankorra. *Araubide iragankorra.*

1. *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratu eta sei hilabetera jarriko dira indarrean lege honek uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Kapital Sozietateen Legearen testu bateginaren 529. artikuluan txertatzen dituen aldaketak. Sozietateek data horren ondoren egiten den lehen batzar nagusian aurkeztu beharko dute aldaketa horietara egokitzeko ordainsari-politika, onar dadin.

2. 2020ko abenduaren 1etik aurrera itxita ekitaldiei dagozkien kontseilarien ordainsarien urteko txostenetarako jarriko dira indarrean lege honek uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Kapital Sozietateen Legearen testu bateginaren 541. artikuluan txertatzen dituen aldaketak.

3. Ez dira aplikatuko uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Kapital Sozietateen Legearen testu bateginaren XIV. tituluko VII bis kapitulu berria ezarritako betebeharrak, harik eta lege hau indarrean jarri eta bi hilabete igaro arte.

4. Sozietate kotizatuak kontseilariak pertsona fisikoak izateko eskakizuna, lege honek Kapital Sozietateen Legearen testu bateginaren 529 bis artikuluan txertatzen duen aldaketan aurreikusitakoa, *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratu eta hurrengo hilabetetik aurrera egiten diren izendapenei bakarrik aplikatuko zaie, berritzeak ere barnean harturik. Pertsona juridikoak diren kontseilariak dauden bitartean, horiek ordezkatzan dituzten pertsona fisikoei 529. artikuluan 7. apartatua xedatutakoa aplikatuko zaie; apartatu hori kendu egin da, lege honen hirugarren artikuluko hogeita hirugarren apartatuaren arabera.

Bigarren xedapen iragankorra. *Langileek enpresan duten inplikazioa sustatzeari buruzko informazio-betebeharrak indarrean jartzea.*

Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hamabi hilabetera jarriko dira indarrean lege honen bigarren artikuluko informazio-betebeharrak, Merkataritza Kodearen 49. artikuluko 6. II apartatuaren aldaketaren bidez ezarritakoak («Gai sozialei eta langileei buruzko informazioa» du izena apartatu horrek).

Azken xedapenetako lehengoa. *Zergei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorra aldatzea:*

Zergei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorren 93. artikuluko 1. apartatua d) letra eransten zaio:

«d) Indarrean dagoen araudia aplikatuz, ekintzen azken onuradunen identifikazioaren berri duten edo haren berri izateko moduan dauden pertsonak eta erakundeek bete egin beharko dituzte Zerga Administrazioaren aurrean identifikazio horri buruz erregelamendu bidez ezartzen diren informazio-errekerimendu edo -betebeharrak».

Azken xedapenetako bigarrena. *Europar Batasuneko zuzenbidea txertatzea.*

Lege honen bidez, partzialki ekartzen da Espainiako zuzenbidera Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2017ko maiatzaren 17ko (EB) 2017/828 Zuzentaraua, 2007/36/EE Zuzentaraua aldatzen duena akziodunen epe luzerako inplikazioa sustatzeko.

Azken xedapenetako hirugarrena. *Eskumen-titulua.*

Lege hau Espainiako Konstituzioaren 149.1 artikuluko 6., 11. eta 13. puntuetan xedatutakoarekin bat dago emanda, zeinek Estatuari esleitzen baitiote merkataritzako legeriari, kreditua, banka eta aseguruak antolatzeke oinarriari eta ekonomia-jardueraren plangintza orokorraren oinarriari eta koordinazioari buruzko eskumen eskusiboak, hurrenez hurren.

Azken xedapenetako laugarrena. *Arauk emateko gaikuntza.*

Gobernuari baimena ematen zaio lege honetan xedatua garatzeko behar diren arauak eman ditzan.

Azken xedapenetako bosgarrena. *Indarrean jartzea.*

Lege hau *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratu eta hogeiei egunera jarriko da indarrean.

Horrenbestez,

Lege hau bete eta betearaz dezatela agintzen diet espainiar guztiei, partikular zein agintariei.

Madriren, 2021eko apirilaren 12an.

FELIPE e.

Gobernuko presidentea,
PEDRO SÁNCHEZ PÉREZ-CASTEJÓN